



# Etxeko indarkeriako jokabideen azterketa, eta toki-administrazioaren arloko hurbilketa eta esku- hartzea



Financiado por  
la Unión Europea  
NextGenerationEU

**R** Berreskuratze, Eraldaketa  
eta Erresilientzia Plana







**VNiVERSiDAD  
D SALAMANCA**

## **AZKEN TXOSTENA**

**Unibertsitate Sistemari buruzko  
Lege Organikoaren 6o. artikuluan  
ezarritako kontratua**

### **IKERTZAILE ARDURADUNA**

Marta del Pozo Pérez dk.

### **BARNE-KOORDINATZAILEA**

Pablo Ramos Hernández

### **METODOLOGIAKO ARDURADUNA**

Carmen Patino Alonso dk.

Lourdes Santos Pérez dk.

### **IKERKETA-TALDEA**

Ángela Figueruelo Burrieza dk.

Inmaculada Sánchez Barrios dk.

Isabel Vicario Molina dk.

M.ª Luisa Ibáñez Martínez dk.

Alicia González Monje dk.

Sergio Martín Guardado dk.

José Luis Domínguez Álvarez dk.

José Luis Mateos Crespo dk.

Sergi Corominas Bach dk.

Emilio Ferrero García

Laura Mañas Acero

# AURKIBIDEA

<b>1. txostena</b> .....	2
<i>Etxeko indarkeriaren egungo egoeraren diagnostikoa</i>	
<b>2. txostena</b> .....	16
<i>Inkestaren emaitzak</i>	
<b>3. txostena</b> .....	44
<i>Prebentzio- eta sentsibilizazio-politika publikoak garatzeko soluzioen eta hobekuntza-neurrien proposamena</i>	
<b>4. txostena</b> .....	56
<i>Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa</i>	
<b>5. txostena</b> .....	95
<i>Estatistikaren definiziorako datu eta gakoaren analisiaren definizioa</i>	
<b>6. txostena</b> .....	98
<i>Esku hartzeko zerbitzu lokalen analisia</i>	
<b>7. txostena</b> .....	143
<i>Lokalki esku hartzeko ereduaren proposamena</i>	
<b>8. txostena</b> .....	150
<i>Emakumeen aurkako indarkeriaren diagnostikoa egiteko galdetegi/tresna lokalaren proposamena</i>	
<b>9. txostena</b> .....	159
<i>ATENPRO zerbitzuaren esparruan jarduteko protokoloa prestatzeko gakoak</i>	
<b>10. txostena</b> .....	162
<i>Azken ondorioak</i>	
<b>I. gehigarria</b> .....	166
<i>Erreferentzia bibliografikoak</i>	
<b>I. eranskina</b> .....	176
<i>Galdetegi-eredua</i>	
<b>II. eranskina</b>	
<i>Excel – I. taula</i>	
<b>III. eranskina</b>	
<i>Excel – II. taula</i>	
<b>IV. eranskina</b>	
<i>Excel</i>	

# 1. txostena

*Etxeko indarkeriaren egungo egoeraren  
diagnostikoa*

## I. Zer ulertzen dugu etxeko indarkeriako jokabide esaten dugunean?

Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haien kontra borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak honela definitzen du etxeko indarkeria 3.b) artikuluan: "familian edo etxean, edo ezkontideen, edo lehengo edo oraingo izatezko bikotekideen artean jazo diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko ekintza guztiak, delituaren egileak biktimarekin etxea partekatzen duen edo partekatu zuen alde batera utzita".

Hein batean, etxeko indarkeria genero-indarkeria da, eta, gure ordenamendu juridikoan, 1/2004 Lege Organikoan jasota dago, abenduaren 28koan, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoan, eta bikotekide edo bikotekide ohi den gizonak harreman afektiboen barruan emakumeari eragiten dion indarkeria-mota oro hartzen du barnean.

Horrenbestez, argi geratu behar da 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoa, ez dagoela zuzenduta emakume izate hutsagatik emakumearen aurka erabiltzen den indarkeria orori aurre egitera; tratamendu zehatzagoa egin nahi du, eta haren erregulazioa bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrura mugatzen du, nahiz eta genero-indarkeriaren fenomenoak askoz ere sustrai sakonagoak dituen, gizartearen zati bat desberdintasun handiko jokabide-arau bat iraunarazten saiatzen delako, munduko gizarte matxista eta patriarkalak sortua. Laburbilduz, portaera hori harreman afektibo eta sozialetan, publiko zein pribatuetan, emakumeak duen gutxiagotasun-posizioaren ideian oinarrituta dago.

Horiek horrela, genero-indarkeria horri esaten dio baldintza-agiriak "ezkontideen, lehengo edo oraingo izatezko bikotekideen edo haiekin antzeko afektibitate-harremanak dituztenen edo izan dituztenen artean jazo diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko ekintza guztiak, etxe berean bizi diren edo bizi izan diren alde batera utzita".

Azken finean, harreman sentimentala (legeriaren arabera, ezkongai-harremana ere bai) duen edo izan duen bikoteko gizonak emakumearen aurka erabiltzen duen indarkeriaz ari gara; esamolde horiek interpretatzeko zailak dira.

Horren harira, Auzitegi Gorenak 2009ko maiatzaren 12an emandako epaiak hau dio: "Zalantzarik gabe, ez da erraza aginduak aplikatzeko kontuan har daitezkeen bizikidetzareduer edo elkarbizitza-proiektuei dagokienez praktikak eskain ditzakeen kasu guzti-guztiei erantzutea. Afektibitate-harremana noiz dagoen definitzeko, ez da komeni jarraibide orokor abstraktuegiak finkatzea. Zenbait kasutan, afektibitate-harreman hori desberdin ikusiko du bikotekideetako bakoitzak, edo, beste batzuetan, bi protagonistek ez dute partekatuko elkarbizitza-proiektua. Bestela, mota horretatik kanpo utziko genituzke kasu erabat imajinagarriak, zeinetan, bizi-proiektu komun bat izan arren, bikoteko kideek borondatez helbide desberdinetan bizitzea erabakitzen baitute, arrazoi pertsonal, profesional edo familiarrengatik.

Parekatzea gertatzeko, erabakigarria da nolabaiteko konpromisoa edo egonkortasuna egotea, nahiz eta leialtasunik ez egon, edo etorkizun-itzaropenik ez partekatu. Hori bai, kanpo geratuko lirateke soil-soilik noizbehinkakoak eta adiskidetasun hutsekoak diren harremanak, haietan alderdi afektiboak oraindik aukera ere izan ez badu garatzeko eta erasotzailearen eragingarriak baldintzatzeko. Azken batean, manu horiek ematen duten babes penal indartuak ezin ditu kanpoan utzi, ezohikoak izan arren, intentsitate emozionaleko harremana duten bikoteak, batez ere intentsitate hori, patologikoki ulertua bada ere, erasoen jatorrian badago”.

Zentzu berean, hau dago jasota genero-indarkeriaren arloko irizpideak bateratzeari buruzko jardunaldien ondorioetan: “Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 87 ter artikuluan zerrendatutako delituetako baten biktima den emakume batek eta haren biktimarioak duten harremanaren izaerak zehaztuko du, batetik, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak edo instrukzioko epaitegiak duen ustezko delitu-egitateak ikertzeko eskumena, eta, bestetik, elementu penaletako baten integrazioa Zigor Kodeko 153., 171., 172. eta 173. artikuluetako delituen kasuan”. Jardunaldi horietan egindako gogoetekin jarraituz, halaber nabarmendu da harreman horren norainokoak zehaztuko duela Zigor Kodeko 23. artikuluan aipatzen den ahaidetasun-inguruabar mistoa dagoen eta ea biktimak aukera duen ikertuaren/akusatuaren aurka ez deklaratzeko dispentsari heltzeko, Prozedura Kriminalaren Legearen 416. artikulua babesean.

Laburbilduz, adierazitako ondorioak izateko ahalmena duen senar-emazteenaren antzeko afektibitate-harremana noiz den ondorioztatzeko orduan sortzen dira interpretazio-arazoak.

Eguneroko praktikak kasuistika aberatsa eskaintzen du. Kasuistika horretan beti ez da erraza zehaztea ea kausa indarkeriako epaitegiak edo instrukzioko epaitegiak bideratu behar duen. Horren erakusgarri argiak dira sare sozialen bidez sortutako harremanak, eksklusibotasunik ez duten harremanak, neska nerabeak tartean dituzten harremanak edo ezkontzaz kanpoko harremanak.

Horrela, adibidez, Auzitegi Gorenaren maiatzaren 12ko 510/2009 eta abenduaren 23ko 1376/2011 epaiak harreman horren interpretazio estentsiboa egiten dute, eta haietako doktrinari probintzia-uzitegi askok jarraitu diote. Aldiz, abenduaren 14ko 1348/2011 epaiak, azaroaren 23ko 807/2015 epaiak eta duela gutxiko uztailaren 13ko 556/2017 epaiak, besteak beste, askoz ere interpretazio murriztaileagoaren alde egiten dute.

Ondorio gisa, lehen aipatutako jardunaldietan, emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptutik abiatzen da, eta noizbehinkako harremanak edo sare sozialen bidez sortutako harremanak dituzten egoeretara zabal daitekeen eztabaidatzen da. Diotenez, emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptu murriztaileagoaren aurrean (hemen jaso: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa; eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoa bera), emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haien kontra borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11koa; hain

zuzen ere, haren 3.a eta d artikuluak) ez du lotzen emakumearen aurkako indarkeria egotea eta bikote-harremana egotea edo egon izatea. Zentzu berean, genero-indarkeriaren kontra borrokatzeari buruzko Estatuko Itunak (Diputatuen Kongresuan eta Senatuan egina) emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptua zabaltzeko joera du, gaur egun biltzen ez diren egoerak bilduz, eta adierazten du Ituneko edukia erabili behar dela interpretazio-elementu gisa, eta, horrenbestez, emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptua zabaltzera jo behar dela, Istanbulgo Hitzarmenaren arabera. Edonola ere, ondorioa da, gaur egun, eta ikuspegi penaletik, delitua kalifikatzean funtsezkoa dela harreman sentimentala egotea, eta horregatik ikertu behar da instrukzio-fasean.

Emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptuari dagokionez, eta nahiz eta bertaratu ziren gehienek goian definitutakoaren moduko kontzeptu zabal edo irekia aldarrikatu zuten, Espainiako legearen arabera "kontzeptu arautzailea" eta, beraz, murriztailea ezartzen duen tesia ere mantentzen dute. Denek esaten dute batzuetan zailtasunak daudela epaiketetan "harreman sentimental" kontzeptuari dagokionez, eta adierazten dute harreman sentimentalaren deskribapenaren "kalitatea" eta emakumearen aurkako indarkeriaren kontzeptu juridiko eta penala ere hartu behar direla kontuan, eta, horren harira, funtsezkoa dela instrukzio penaleko fasean emakumearen aurkako indarkeriako epaitegietan egiten den lana.

Gainerakoan, esaten dute zalantza jurisprudenzialak daudela ezkontzakoaren "antzeko harremana" definitzean zer elementu egon behar duten edo falta diren zehazteko orduan.

Adin goiztiarretan (nerabezaroa) ikusitako indarkeriari dagokionez, instrukzioko eginbide gisa adingabeak esploratzea egokia den ala ez eztabaidatzen da, benetako lekuko-adierazpenetik bereiziz, eta zalantza dago ea zer adinetan hel diezaiokeen adingabeak Prozedura Kriminalaren Legeko 416. artikuluan ezarritako dispentsari. Horren harira, bertaratuek proposatu dute, irizpide orientagarri gisa, 12 urteak hartzea erreferentziako adin gisa, araudi zibilarekin bat etorritik, eta adingabearen "heldutasuna" hartzen da kontuan beste kasu batean. Ondorioa da, adingabea behar bezain heldua bada, organo judizialaren arabera, lege-dispentsari heltzeko aukera eman behar zaiola. Hori guztia gorabehera, bertaratuetakoz batzuek diote 15 urte adin "kritikoa" dela; izan ere, adin horretan, eta martxoaren 30eko 1/15 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodeko 183. artikulua eta hurrengoak erreformatu ondoren, ezin dute baliozko baimena eman sexu-harremanak izateko, baina bai dispentsari heltzeko aukera izan. Hortaz, kontraesana irudi lezake dispentsa erabili ahal izatea eta, hala ere, legegilearen ustez heldutasun nahikoa ez izatea sexu-ekintzak onartzeko. Adingabearen heldutasuna baloratzeko orduan sortuko diren arazo praktikoei dagokienez, parte-hartzaile gehienek uste dute organo judizialak baloratu behar duela, gertutasunaren bidez, nahiz eta zaila izango den eta irizpide-desberdintasuna egon daitekeen.



“Ezkontza-harremanari” dagokionez, ondorioa da funtsezkoa dela segurutzat ez jotzea “ezkontza” dagoela, batzuetan ohituragatik esaten baita, prozesuko alderdiak ezkondu ez badira ere. Halakoetan, parte-hartzaileek gomendatzen dute instrukzio-fasean ikertzea, zenbait eginbideren bidez; besteak beste, familia-liburua aurkeztea edo exhorto bidez ezkontza erregistratu izana eskatzea. Gai hori ez da huskeria, ezkontza egoteak ala ez egoteak baldintzatuko baitu Prozedura Kriminaleko Legearen 416. artikuluan jasota dagoen dispentsari heltzeko aukera izatea ala ez izatea.

Atala amaitzeko, baldintza-agiriak, genero-indarkeria adierazi bezala aipatzeaz gain, zentzu hertsian hitz egiten du etxeko indarkeriari buruz; hau da, familiaratean eta etxean emakume, neska eta mutikoen aurka gertatzen diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko ekintza gisa.

Horrenbestez, gure azterlana, batetik, oso-osoko legean araututako genero-indarkeriari buruz arituko da, eta, bestetik, emakume, mutiko edo nesken aurkako etxeko indarkeriari buruz.

## II. Ohar metodologikoa.

Etxeko indarkeriaren Espainiako egoerari buruzko aurretiazko diagnostikoa (2022) prestatzeko, honela jokatu da metodologikoki. Lehenik eta behin, etxeko indarkeriako jokabideekin erlazionatutako hainbat informazio-iturri aztertu dira. Xede horrekin, emaitzak aurkezteko eskema bera erabili da, eta txosten indibidualizatuak sortu dira (1). Bigarrenik, iturri horietan identifikatutako aldagaiak oinarritzat hartuta, esanguratsuenak hautatu dira, etxeko indarkeria kuantifikatzeko (2). Hirugarrenik, aurretik prestatutako askotariko galdetegiak aplikatu zaizkie etxeko indarkeriako jokabideetan eskumenak, funtzioak edo interesak dituzten sare asoziatibo, zibil, sozial eta unibertsitarioko hainbat erakunderi (3).

## III. Informazio-iturrien analisisa.

(1) Etxeko indarkeriako jokabideekin erlazionatuta hautatu diren informazio-iturriak jarraian jasotakoak dira (kontratazio-agirian adierazitakoez gain, emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak, Barne Ministerioaren Kriminalitateari buruzko Atari Estatistikoko datuak, Estatistika Judiziala eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak gehitu dira), kontuan izanda haietako bakoitzaren azken bi ekoizpen-urteak aztertu direla, zeinak beti ez baitatoz bat (EINen kasuan, diagnostikoa idatzi zen datan, 2022ari zegozkion datuak argitaratu ziren, eta hemen jaso ditugu). Hain zuzen ere:

- Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko txostena (2015-2019), Barne Ministerioarena.
- Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2015eko makroinkestak, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarena.
- Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko 2019ko txostena, Berdintasun Ministerioarena.
- Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren hileko estatistika-buletina.

- Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren urteko estatistika-buletina.
- Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren urteko txostenak.
- Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko datuak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarenak.
- Etxeko indarkeriari eta genero-indarkeriari buruzko datu estatistikoak, Estatistikako Institutu Nazionalarenak (EIN).
- Genero-indarkeriako kasuetan segimendu integrala egiteko sistemari buruzko datu estatistikoak (VIOGÉN sistema).
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistikan eta haren hiru hilabeteko eta urteko txostenetan etxeko indarkeriari buruz biltzen diren urteko serieetako datuak.
- Barne Ministerioaren Kriminalitateari buruzko Atari Estatistikoko datuak.
- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memoriak.

Goian adierazi bezala, emaitzak aurkezteko eskema bera erabili da, egitura honekin:

1. Iturrien EGILEAK.
2. Iturriak prestatzeko/sortzeko DATAK.
3. Aurretik emandako zerrendan (I. taula) agertzen ez ziren beste ALDAGAI batzuk identifikatu badira, adierazi zein diren.
4. Esan zeri buruzkoak diren iturriak:
  - Genero-indarkeria.
  - Etxeko indarkeria.
  - Genero-indarkeria eta etxeko indarkeria.
5. Iturriak emandako datuek horretarako aukera emanaz gero, KUANTIFIKATU genero-indarkeriako biktimen kopurua eta etxeko indarkeriaren biktimen kopurua. Iturriak emandako datuek horretarako aukera emanaz gero, kuantifikatu genero-indarkeriako biktimen kopurua eta etxeko indarkeriaren biktimen kopurua; azaldu labur-labur zergatik.
6. Beste OHAR ERABAKIGARRI batzuk.

II. taulan, emaitza eta aurkikuntza aipagarrienak daude, aurreko eskemaren arabera.

Modu sistematikoan, honela laburbiltzen dira ohar erabakigarri nagusiak: (1) laginen tamainak eta denbora-sekuentziazio desberdinak; (2) izaera desberdineko datuak biltzeko iturriak: estatistika-buletinak, makroinkestak, etab.; (3) aldagaien zerrenda oso heterogeneo baten erabilera; eta (4) "etxeko indarkeria" kategoriaren barruan sartuko lirategen kasuak mugatzeko zailtasunak. Bereziki Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Fiskaltza Nagusiak egindako txostenek merezi dute arreta kritikoagoa, goiko taulan islatuta geratu den bezala.

#### IV. Etxeko indarkeria zenbakitan.

(2) Etxeko indarkeria kuantifikatzeko asmoz, jarraian aipatzen diren aldagaiak hautatu dira, eta azterketa-aldagaiak eta sailkapen-aldagaiak bereizi dira.

Hauek dira azterketa-aldagaiak:

1. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak.
2. Etxeko indarkeriaren biktima diren adingabeak.
3. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeak (umezurtzak).
4. Indarkeria-motak.
5. Etxeko indarkeriagatiko delituekin erlazionatutako salaketak.
6. Emandako kautelazko neurriak eta babes-aginduak. Leporatutako arau-hauste penalak. Emandako zigorrak eta neurriak.
7. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako babes instituzionala:
  - a. ATENPRO
  - b. VIOGÉN

1., 2. eta 3. aldagaietarako, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Behatokiaren urteko azken txostenera jo da (2019). 1. aldagaiari dagokionez, 2003tik 2019ra bitarteko datuak daude. 2. eta 3. aldagaiari dagokienez, 2013tik 2019ra bitarteko datuak daude. Hurrengo urteetan, 2020ko eta 2021eko Urteko Estatistika Buletinak eta 2022ko eta 2023ko Hileko Buletinak kontsultatu dira.

Horrela, 2003tik 2023ko martxoaren 31ra bitartean, 1.195 emakume hil dira genero-indarkeriaren biktima gisa; 2013tik 2023ko martxoaren 31ra bitartean, 391 adingabe geratu dira umezurtz; eta 2013tik 2023ko martxoaren 31ra bitartean, 49 adingabe hil dira genero-indarkeriaren biktima gisa.

4. aldagaiari dagokionez, Barne Ministerioaren Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Txostenera jo da, 2015etik 2019ra bitartekoa. 2020ri eta 2021ari dagokienez, Kriminalitateari buruzko Atari Estatistikoko urte horietako Urteko Serieak kontsultatu dira. Bi iturrik emakumearen aurkako lau indarkeria-mota biltzen dituzte: fisikoa, psikikoa, sexuala eta ekonomikoa. Horrez gain, emakumearen aurkako indarkeriaren 2019ko Makroinkestak bi motatako indarkeria psikologikoa jartzen du agerian: emozionala eta kontrolekoa. Iturri horrek 2015etik 2019ra bitarteko datuak ditu.

Kontuan izan behar da Barne Ministerioaren txostenak eta Kriminalitateari buruzko Atari Estatistikoko Urteko Serieak (hain zuzen ere, txostena Atariko datuez elikatzen da) biktimizazioaren kontzeptua erabiltzen dutela, ez biktimarena. Biktima direla edo arau-hauste penalen baten kaltea jasaten dutela dioten pertsonen salatutako gertaeren kopuruari dagokio. Txosten horretan biktimizazio guztiak femeninoak badira eta egileak maskulinoak edo femeninoak izan badaitezke —genero-indarkerian salbu, halakoetan, dakigunez, egileek gizonak izan behar baitute—, Urteko Serieetan eskuz hautatu behar dira aldagai horiek.

Halaber, komeni da ohartaraztea salaketa batean gertaera bat baino gehiago egon daitezkeela, eta biktima edo kaltetu bat baino gehiago ere bai. Biktimizazioa terminoak biltzen ditu biktima jakin bati eragiten dioten gertaera guztiak.

Hori esanda, Txostenaren arabera, 2015etik 2019ra bitartean guztira 409.157 biktimizazio erregistratu ziren genero-indarkeriarekin erlazionatuta. 2020an, 87.474 biktimizazio izan ziren genero-indarkeriako gertaera larriekin erlazionatuta, eta 2021ean, berriz, 98.230. Etxeko indarkeriari dagokionez (genero-indarkeria kanpo), nahiz eta Ministerioaren txostenak biktima femeninoak soilik kontabilizatzen dituen, Urteko Serieek bi sexuak hautatzeko aukera ematen dute, baina adingabeak diren ala ez bereizi gabe (hori dela eta, ez dira sartu datu horiek).

5. aldagairako, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren urteko txostenetatik hartutako datuak ditugu. Datu horiek erabiltzen ditu, baita ere, 2008 eta 2019 bitartean Emakumearen Behatokiaren urteko azken txostenak. Hurrengo urteei dagokienez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteko txostenak ditugu.

Estatistika osoagoa darabil Emakumearen aurkako Indarkeriaren Behatokiaren 2019ko Urteko Txostenak. EINek ematen du estatistika hori, eta etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro Zentraletik datozen eta Justizia Ministerioarenak diren datuak ustiatzeaz arduratzen da.

Erregistro horretan, haiek kontabilizatzen dira: Erregistroan izena ematea eragin duten genero-indarkeriagatiko eta etxeko indarkeriagatiko delituekin erlazionatutako salaketak (hein batean, 5. aldagaia), eman diren eta Erregistroan jasota dauden kautelazko neurriak edo babes-neurriak dituzten biktimak eta salatuak (6. aldagaia), delituengatiko epaietan ezarritako zigorrak eta segurtasun-neurriak, eta prozedura penaletan adostutako zigor, neurri eta babes-aginduak urratzea. EINen azken txostena 2021ekoa da, eta urtero argitaratzen da. Emakumearen aurkako Indarkeriaren Behatokiaren 2019ko urteko txostenak 2011tik 2019ra bitarteko datuak biltzen ditu erregistratutako kautelazko neurriak dituzten kontuei buruz, eta 2015etik 2019ra bitartekoak erreferentziako urtean emandako eta erregistratutako epai irmoei buruz.

EINek etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro Zentraletik datozen datuak ustiatzen ditu. Haren arabera, 2020an, 29.135 pertsona salatu ziren genero-indarkeriagatik, eta 5.578 etxeko indarkeriagatik. 2021ean, 30.047 pertsona salatu ziren genero-indarkeriagatik, eta 5.288 etxeko indarkeriagatik. 2022an, 33.209 pertsona salatu ziren genero-indarkeriagatik, eta 6.813 etxeko indarkeriagatik.

Bestalde, 25.436 eta 33.068 pertsona zigortu ziren genero-indarkeriagatik 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren; eta 5.180 eta 6.597, berriz, etxeko indarkeriagatik. 2022an, 36.161 pertsona zigortu ziren genero-indarkeriagatik; 7.022, berriz, etxeko indarkeriagatik.

Genero-indarkeriako kasuetan absolutu direnei dagokienez, 3.489 absolutu ziren 2020an, eta 4.263, berriz, 2021ean (2022ri dagokionez, ez da ematen informaziorik Justizia Administrazioari laguntzeko Administrazio Erregistroen Sistemari izandako aldaketen ondorioz). Bestalde, etxeko indarkeriako kasuei dagokienez, 715 absolutu ziren 2020an, eta 879, berriz, 2021ean (2022ri dagokionez, ez da ematen informaziorik Justizia Administrazioari laguntzeko Administrazio Erregistroen Sistemari izandako aldaketen ondorioz).

Era berean, genero-indarkeriari dagokionez, 2020rako, 29.215 biktimak zituzten babes-agindua edo kautelazko neurriak; 2021erako, 30.141 biktimak; eta 2022an, 32.644 biktimak. Etxeko indarkeriaren kasuan, 2020an, 8.279 biktimak; 2021ean, 8.240 biktimak; eta 2022an, 8.151 biktimak.

Genero-indarkeriagatik salatu ziren eta babes-aginduak edo kautelazko neurriak zituzten salatuen kopuruari dagokionez, EINEk 29.135 eta 30.047 kontabilizatzen ditu 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren; eta 33.209, berriz, 2022an. Bestalde, 5.578 eta 5.288, etxeko indarkeriako kasuetan 2020an eta 2021ean; eta 6.813, berriz, 2022an.

7.a aldagairako, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Behatokiaren urteko azken txostenetik (2005etik 2019ra bitartekoa) hartutako datuak ditugu. Gurutze Gorriak ematen ditu 2013tik aurrerako datuak, zerbitzuaren adjudikatu gisa. 2020rako eta hurrengo urteetarako, 2021eko urteko Estatistika Buletinak eta 2022ko eta 2023ko hilekoak kontsultatu dira.

Horrela, martxan jarri zenetik (2005eko urtarrilaren 1a) 2019ko abenduaren 31ra bitartean ATENPRO zerbitzuan aktibo egon diren erabiltzaileen kopurua 14.472 da. 2020ko abenduaren 31n, kopuru hori 14.928 zen; 2021ean, 16.716; 2022an, 17.062; eta 2023ko martxoaren 31n, 17.472.

7.b aldagairako, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Behatokiaren urteko azken txostenera jo da; txosten horrek 2010etik 2019ra bitarteko datuak ditu. Hurrengo urteei dagokienez, VIOGÉN sistemako hileko txostenak kontsultatu dira; azkena 2023ko otsailekoa da.

Horrela, 2019ko abenduaren 31n, 61.355 kasu aktibo zeuden erregistratuta VIOGÉN sistemari (2010eko abenduaren 31tik 2019ra bitarteko datuak). Haietatik, 30.460 kasuak polizia-arreta baino ez zuten jaso, eta 30.895 kasuak, berriz, polizia-babesa. 2020an, 63.566 zeuden erregistratuta (31.051 kasuak polizia-arreta baino ez zuten jaso, eta 32.515 kasuak, berriz, polizia-babesa); 2021ean, 69.469 (31.472 kasuak polizia-arreta baino ez zuten jaso, eta 37.997 kasuak, berriz, polizia-babesa); 2022an, 75.140 (31.470 kasuak polizia-arreta baino ez zuten jaso, eta 43.670 kasuak, berriz, polizia-babesa); eta 2023an, 76.404 (30.864 kasuak polizia-arreta baino ez zuten jaso, eta 45.540 kasuak, berriz, polizia-babesa).

Bestalde, hauek dira sailkapen-aldagaiak:

1., 2. eta 3. ikerketa-aldagaiak dagokienez:

- Adina (1 eta 2)
- Jaioterria (1 eta 2)
- Erasotzailearekiko harremana (1 eta 2)

- Elkarbizitza-egoera (1)
- Seme-alaba adingabe umezurtzen kopurua (1)
- Desgaitasuna (1)
- Erasotzailearen jaioterria (1 eta 2)

Hildako emakumeei dagokienez, 2021ean, kasu gehien izan zituen adin-tartea 31-40 urtekoa da (16 emakume), eta, gero, 41-50 urtekoa (11 emakume). 2022an, 41-50 tartea da garrantzi handienekoa (16 emakume), eta, gero, 31-40 urtekoa (10 emakume). 2023an, aurreko urtekoarekiko joera bera hautematen da: 7 eta 6 emakume, hurrenez hurren.

Elkarbizitza-egoerari dagokionez, 2021ean, hildako guztietatik, 28 erasotzailearekin bizi ziren; 16, ez; eta 5 kasutan ez dago jasota. 2022an, 34 erasotzailearekin bizi ziren; 11, ez; eta 4 kasutan ez dago jasota. 2023an, 12 erasotzailearekin bizi ziren; 6, ez; eta 1 kasutan ez dago jasota.

Jaioterria kontuan hartuta, 2021ean, 27 emakume Espainian jaioak ziren, eta 22, berriz, beste herrialde batean. 2022an, 33 gure herrialdean jaioak ziren, eta 16, berriz, beste batean. 2023an, 12 Espainian jaioak ziren, eta 7, berriz, beste herrialde batean.

Erasotzailearen jaioterriari dagokionez, 2021ean, 38 Espainian jaioak ziren, eta 11, berriz, beste herrialde batean; 2022an, 30, Espainian, eta 19, berriz, beste herrialde batean; eta 2023an, 10, Espainian, eta 9, berriz, beste herrialde batean.

Harremanari dagokionez (bikotekidea, bikotekide ohia), 2021ean, 14 kasutan, bikotekide ohiak egin zuen eraso; 26tan, bikotekideak; eta 9tan, bikotea banantze-fasean zegoen. 2022an, 10 kasu bikotekide ohiari egotz dakizkioke; 32, bikotekideari; eta 7, banantze-prozesuan zegoen gizonari. 2023an, 6 kasutan, bikotekide ohiak egin zuen eraso; 11tan, bikotekideak; eta 2tan, bikotea banantze-fasean zegoen.

Biktimei aitortutako desgaitasunari dagokionez, 2012tik 2019ra, kopurua 42 da. 2020an, 4 biktimak desgaitasun edo menpekotasun aitorturen bat zuten. 2021ean, 6 emakumek. Ez dugu 2022ri eta 2023ri buruzko daturik, data horiei dagozkien Estatistika Buletinek atzerriko biktimei eta haien seme-alaba adingabeei edo desgaitasunen bat zuten haien seme-alabei emandako aldi baterako egoitza- eta lan-baimenak eta hildako biktima-kopurua soilik erregistratzen baitituzte.

Hildako biktima adingabeen kopuruari eta haien adinari dagokienez, 2021ean, 7 izan ziren: urtebeteko 1 adingabe; urtebete eta bi urte bitarteko 2; hiru eta lau urte bitarteko 1; bost eta sei urte bitarteko 1; zazpi eta zortzi urte bitarteko 1; eta hamaika eta hamabi urte bitarteko 1. 2022an, 2 izan ziren: bost eta sei urte bitarteko 1, eta hamaika eta hamabi urte bitarteko 1. 2023an, oraingoz, 1 biktima dago zazpi eta zortzi urte bitarteko adin-tartean.

Adingabearen eta erasotzailearen arteko ahaidetasunari dagokionez, 2021ean, kasu guztietan, erasotzailea aita biologikoa izan zen; 2022an ere bai; eta 2023an, egoera bera da gaurdaino (2023ko urtarrilaren 23a).

Jaioterriari dagokionez, 2021ean, biktima adingabe guztiak Espainian jaioak ziren; 2022an, 1 Espainian jaioa zen, eta bigarrena, beste herrialde batean; eta 2023an, orain arteko biktima bakarra Espainian jaioa da.

Erasotzailearen jaioterria kontuan hartuta, 2021ean, 4 Espainian jaioak ziren, eta 3, berriz, beste herrialde batean. 2022an, 1 Espainian jaioa zen, eta beste erasotzailea, berriz, beste herrialde batean. 2023an, orain arteko erasotzaile bakarra Espainian jaioa da.

Seme-alaba adingabe umezurtzen kopuruari dagokionez, 2021ean, 32 izan ziren; 2022an, 38; eta 2023an (gaurdaino), berriz, 21.

4. ikerketa-aldagaiari dagokionez:

- Emakumearen aurkako indarkeria-motak.
- Delitu-tipologia genero-indarkeriako kasuetan.

Emakumearen aurkako indarkeria lau motatakoa izan daitekeela kontuan hartuta (hots, indarkeria fisikoa, indarkeria psikikoa, indarkeria sexuala eta indarkeria ekonomikoa), tipologia penalaren arabera banatzen dira biktimizazioak. Familiako tratu txarrak, familiako ohiko tratu txarrak, lesioak, agintaritzaren, agenteen edo funtzionario publikoen aurkako atentatua, legez kanpoko atxiloketa, hilketa engainagarria, mehatxuak, babes- eta urruntze-aginduaren urratzea, liskar nahaspilatsua, eta gainerakoak dira indarkeria fisikoko kasuetarako hautatutako mota penalak. Familiako tratu txarrak, babes- eta urruntze-aginduaren urratzea, familiako ohiko tratu txarrak, mehatxuak, pertsonen askatasunaren aurkako jazarpena, bortxak, zigorraren urratzea, tratu umiliagarria, lesioak, eta gainerakoak dira indarkeria psikikoko kasurako hautatutako mota penalak. Sexu-abusua, sexu-erasoa, sexu-erasoa penetrazioarekin, sexu-abusua penetrazioarekin, sexu-jazarpena, eta sexu-organoen mutilazioa dira indarkeria sexualeko kasurako hautatutako mota penalak. Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea, familia uztea, adingabea edo desgaitasuna duen pertsona uztea, ebasketa, kalteak eta ibilgailuko kalteak, eta gauzak indarrez lapurtzea dira indarkeria ekonomikoko kasurako hautatutako motak.

2021ean, lesioen eta tratu txarren 86.640 kasu instruitu ziren (Zigor Kodeko 153. art.); lesioen eta tratu txarren 26.164 kasu (Zigor Kodeko 173. art.); askatasunaren aurkako 10.701; lesioen eta tratu txarren 8.922 (148. art. eta hurrengoak); neurrien urratzeagatiko 20.112; osotasun moralaren aurkako 2.850; intimitatearen aurkako 1.010; sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako 1.860; eta hilketen 69. Bestalde, 2022an, lesioen eta tratu txarren 94.432 kasu instruitu ziren (Zigor Kodeko 153. art.); lesioen eta tratu txarren 29.240 kasu (Zigor Kodeko 173. art.); askatasunaren aurkako 11.146; lesioen eta tratu txarren 9.540 (148. art. eta hurrengoak); neurrien urratzeagatiko 24.039; osotasun moralaren aurkako 3.889; intimitatearen aurkako 1.000; sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako 2.141; eta hilketen 80.

## 5. ikerketa-aldagaiari dagokionez:

- Salaketaren jatorria genero-indarkeriako kasuetan.
- Salaketari uko egitea etxeko indarkeriako kasuetan.
- Delitu faltsuak genero-indarkeriako kasuetan.
- Aurretik salaketa egotea etxeko indarkeriako kasuetan.

2021ean, genero-indarkeriako kasuetan, 2.283 salaketa biktimek zuzenean aurkeztu zituzten epaitegian; 189, senideek; 141.423 polizia-atestatuen ondorio izan ziren; gainera, lesioen 13.651 parte aurkeztu ziren epaitegian. 2022an, 2.025 salaketa biktimek zuzenean aurkeztu zituzten epaitegian; 131, senideek; 158.162 polizia-atestatuen ondorio izan ziren; gainera, lesioen 14.154 parte aurkeztu ziren epaitegian.

Etxeko indarkeriako kasuetan kendutako salaketen kopuruari dagokionez, 2020an, kopurua 1.374 da; 2021ean, 1.575.

Genero-indarkeriako kasuetan egindako salaketa faltsuen kopuruari dagokionez, 2020an eta 2021ean, ez zen halakorik kalifikatu (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memorien arabera).

Etxeko indarkeriako kasuetan aurretik salaketa egoteari dagokionez, 2020an, hildako 47 biktimatatik, 7k salaketa egin zuten aurretik; eta, eraso oso larrien 46 biktimatatik, 19k. 2021ean, hildako 50 biktimatatik, 11k salatu zuten.

## 6. ikerketa-aldagaiari dagokionez:

- Babes-aginduak eta hartutako neurriak etxeko indarkeriako kasuetan.
- Hartutako neurriak genero-indarkeriako kasuetan.
- Prozeduren amaiera-motak etxeko indarkeriako kasuetan.

Babes-neurrien motari dagokionez, etxeko indarkeriako kasuetan, 2020an, askatasuna kentzeko 151 neurri hartu ziren; etxetik irtenarazteko 432; hurbiltzen ez uzteko 3.356; komunikazioa debekatzeko 2.982; gertaeraren tokira itzultzea debekatzeko 372; armak edukitzen eta erabiltzen ez uzteko 179 agindu; eta, beste batzuen kategorian, 132. 2021ean, bestalde, askatasuna kentzeko 145 neurri hartu ziren; etxetik irtenarazteko 399; hurbiltzen ez uzteko 3.307; komunikazioa debekatzeko 2.988; gertaeraren tokira itzultzea debekatzeko 347; armak edukitzen eta erabiltzen ez uzteko 232 agindu; eta, beste batzuen kategorian, 147.

Kautelazko neurri zibilei dagokionez, etxeko indarkeriako kasuetan, 2020an, etxebizitza esleitzeko 74 neurri hartu ziren; familia-etxebizitzaren erabilera aldatzeko 9; bisita-araubidea eteteko 56; guraso-ahala eteteko 28; zaintza eta babesa eteteko 77; mantenua emateko 78; adingabea babesteko 8 neurri; eta, beste batzuen kategorian, 34. 2021ean, etxebizitza esleitzeko 97 neurri hartu ziren; familia-etxebizitzaren erabilera aldatzeko 9; bisita-araubidea



eteteke 89; guraso-ahalorea eteteke 38; zaintza eta babesa eteteke 94; mantenua emateko 107; adingabea babesteko 7 neurri; eta, beste batzuen kategorian, 29.

Kautelazko neurri zibilei dagokienez, genero-indarkeriako kasuetan, 2021ean, etxebizitza esleitzeko 4.711 neurri hartu ziren; bisita-araubidea eteteke 2.008; guraso-ahala eteteke 194; zaintza eta babesa eteteke 1.470; mantenua emateko 5.539. 2022an, etxebizitza esleitzeko 4.523 neurri hartu ziren; bisita-araubidea eteteke 4.100; guraso-ahala eteteke 409; zaintza eta babesa eteteke 2.335; mantenua emateko 5.844.

Prozeduren amaiera-motei dagokienez, etxeko indarkeriako kasuetan, 2020an, 5.941ek kondena-epaia izan zuten; 2.438k absoluzio-epaia; 8.428 behin-behinean largetsi ziren; 623 behin betiko largetsi ziren; 58 behin betiko artxibatu ziren Zigor-arloko Epaitegian; eta 7.930 beste batzuen kategorian sartu ziren. 2021ean, 6.867k kondena-epaia izan zuten; 2.744k absoluzio-epaia izan zuten; 9.637 behin-behinean largetsi ziren; 557 behin betiko largetsi ziren; 86 behin betiko artxibatu ziren Zigor-arloko Epaitegian; 8.628 beste batzuen kategorian sartu ziren.

7a ikerketa-aldagaiari dagokionez:

- Altak.
- Bajak.

Alta-kopuruari dagokionez, 2021ean, 9.738 izan ziren; 2022an, 9.750; eta 2023an (maiatzaren 23ra bitarte), berriz, 2.836. Baja-kopuruari dagokionez, 2021ean, 7.950 izan ziren; 2022an, 9.404; eta 2023an, 2.426.

7b ikerketa-aldagaiari dagokionez:

- Kasu aktiboetan hautemandako arrisku-maila.
- Adingabeak ardurapean daudenean gertatzen den genero-indarkeria.

Kasu aktiboetan hautemandako arrisku-mailari dagokionez, 2021ean, 29.055 kasu kalifikatu ziren arrisku-maila baxukotzat; 8.353, arrisku-maila ertainekotzat; 578, arrisku-maila altukotzat; eta 11, arrisku-maila muturrekotzat. 2022an, 32.429 kasu arrisku-maila baxukotzat kalifikatu ziren; 10.497, arrisku-maila ertainekotzat; 726, arrisku-maila altukotzat; eta 18, arrisku-maila muturrekotzat. Aurten, orain arte, 33.119 kasu arrisku-maila baxukotzat kalifikatu dira; 11.253, arrisku-maila ertainekotzat; 1.147, arrisku-maila altukotzat; eta 21, arrisku-maila muturrekotzat.

Zehazki, ardurapean adingabeak edukitzeari dagokionez, 2021ean, 31.468 kasu erregistratu ziren; 2022an, 37.001.

## V. Etxeko indarkeriarekin erlazionatutako sare asoziatiboaren analisia.

(3) Inkestari erantzuteko aukeratu ziren entitateen heterogeneotasuna kontuan hartuta, galdetegi desberdinak prestatu dira. Hala ere, guztietan, galdera espezifiko batzuk ez ezik, galdera orokor batzuk ere badaude.

Hona hemen inkestari erantzun dioten entitate eta elkarteak (bosgarren itemetik hamalagarrenera sartutakoak ikerketa-taldeak proposatu ditu):

1. Toki-entitateak.
2. Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia.
3. Emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako koordinazio-unitateak eta emakumearen aurkako indarkeriaren unitateak.
4. Emakumeen Osasunaren Behatokia.
5. Unibertsitateetako berdintasunerako unitateak.
6. Zuzenbide Konstituzionaleko Sare Feminista.
7. Generoko Ikasketen Sarea (GENET).
8. Emakume Progresisten Estatuko Federazioa.
9. Familia Elkarteen Batasun Nazionala (UNAF).
10. Ikasketa Feministen eta Generoko Ikasketen Unibertsitate Plataformaren (EUFEM) bidez koordinatutako unibertsitateetako generoaren arloko zentro, institutu eta katedrak. Plataforma horren parte da Salamancako Unibertsitateko Emakumeari buruzko Ikasketen Zentroa (CEMUSA).
11. THEMIS Legelarien Elkarte.
12. Plaza Mayor elkarte (Salamanca).
13. Beatriz de Suabia elkarte (Salamanca).
14. Sexu eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Elkarte (ADAVAS) (Salamanca).

## **VI. Etxeko indarkeria jasateko aukera duten emakume, neska eta mutikoen kopuruaren gutxi gorabeherako proiektzioa**

IV. eranskin gisa jasotako taula batzuetan dagoen informazioa abiapuntutzat hartuta, aldagai hauen zenbatespenak egin dira, erregresio-sistema bati jarraikiz:

- Azken 20 urteetan genero-indarkeriagatik hildako emakumeen kopurua kontuan hartuta (2003tik 2022ra), urtez urte kopurua 1,7 murriztea uste da; hau da, gutxi gorabehera 2 emakume urtean.
- 2013tik 2019ra bitartean izandako bilakaera kontuan hartuta, genero-indarkeriagatik hildako adingabeen kopurua 0,07 murriztuko dela uste da.
- “Genero-indarkeriako kautelazko neurriak edo babes-aginduak dituzten biktimak”, “Etxeko indarkeriako babes-aginduak edo kautelazko neurriak dituzten biktimak”, “Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak (babes-agindua edo kautelazko neurriak dituztenak), adinaren arabera” eta “Etxeko indarkeriaren biktima diren adingabeak (babes-agindua edo kautelazko neurriak dituztenak), adinaren arabera” aldagaiei dagokienez, IV. eranskinean emandako datuetatik abiatuta ikus daiteke haien bilakaera.

## **2. txostena**

*Inkestaren emaitzak*

## I. Sarrera

Azterlan honetan, Espainiako etxeko indarkeriako arazoari buruzko inkesta baten emaitzak aztertzen dira, eta toki-administrazioaren esku-hartzean jartzen da arreta; hain zuzen ere, estrategia, plan, programa eta ekintza batzuk egituratzean eta martxan jartzean.


Azterlanak bi helburu ditu:

- Etxeko indarkeriako jokabideak identifikatzea eta aztertzea, baita elkarrizketatutako entitateen/erakundeen hurbilketa eta esku-hartzea ere, bereziki toki-administrazioena.
- Elkarrizketatutako entitateek/erakundeek etxeko indarkeria prebenitzeko/desagerrarazteko gainditu behar dituzten erronkak ezagutzea, bereziki toki-administrazioek.

Google Inprimakiak erabiliz bidalitako web-inprimaki bat diseinatuta egin da inkesta. Txosten honek parte hartu duten erakundeei/entitateei egindako galderen erantzunak aztertzen ditu, eta maiztasun- eta deskribapen-tauletan jaso dira.

## II. Lagin orokorra

30 parte-hartzailek osatzen dute lagina<sup>1</sup>: 13 (% 43,3) toki-entitateak dira; 5 (% 16,7), emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako koordinazio-unitateak edo emakumearen aurkako indarkeriaren unitateak; eta 3, (% 10) hainbat unibertsitatetako berdintasunerako unitateak. Beste entitate/erakunde batzuei ere egin zaie inkesta; besteak beste, elkarteak, mankomunitateak, zentroak, eta ikasketa-katedrak edo unibertsitate-institutuak (% 30) (ikus 1. irudia).



1. irudia. Parte hartu duten entitateen/erakundeen banaketa

<sup>1</sup> Nahiz eta ikerketa-taldea askotan saiatu den lagina handitzen (bide askotatik eta garai desberdinetan saiatu ziren harremanetan jartzen), saiakera horiek ez dute emaitzarik izan.

Etxeko indarkerian eragina duten faktoreei dagokienez, elkarrizketatutako entitateek/erakundeek uste dute nagusiki gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria (% 100), matxismoa (% 96,67), indarkeria-klima soziala (% 33,33), eta hezkuntza-falta (% 26,67) direla.

Beste gai batzuei helduz, entitate/erakunde horietatik hiruk esan dute ez dutela ezein motatako informaziorik prestatzen etxeko indarkeriako kasuei buruz, eta % 56k (n=17), ordea, nagusiki hauekin erlazionatutako informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa sortzen dute: biktimak, erasotzaileak, indarkeria (tipologia, iraupena, maiztasuna, afektibitate-harremana edo biktimaren eta erasotzailearen arteko elkarbizitza-egoera), adingabe biktimak edo umezurtzak, etxeko indarkeria prebenitzeko/desagerrarazteko dauden baliabideak, eta informazio judiziala eta prozesala (esaterako, salaketan, babes-neurrien edo kautelazko neurrien kopurua).

Azken alderdi horri dagokionez, haietatik 10ek soilik jartzen dute informazio hori erakundeentzat eskuragarri; 7k, barnekoentzat soilik; 5ek, txosten anonimizatuen bidez; eta 4k, hirugarrenentzat edo entitateentzat, hala eskatuz gero. Lortutako datuen arabera, inkestari erantzun diotenen % 96,7 (n=29) oso ados daude "garrantzitsua da etxeko indarkeriako kasuekin erlazionatutako informazio kuantitatiboa edo kualitatiboa erregistratzea" dioen baieztapenarekin.

1. taulak etxeko indarkeriarekin erlazionatutako baieztapen batzuei dagokienez dagoen adostasun-maila jasotzen du:

1. taula. Etxeko indarkeriarekin erlazionatutako alderdiei dagokienez jasotako erantzunen portzentajea.

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ez ados
Espainian erakunde-mailan prestatutako informazioa nahikoa da etxeko indarkeriari buruzko errealitatea ezagutzeko.	% 0,0	% 53,3	% 43,3	% 3,3
Argitaratutako estatistikek herrialdeko egoeraren errealitatea islatzen dute.	% 6,7	% 30,0	% 53,3	% 10,0
Badira argitaratutako datuetan agertzen ez diren kasu gehiago.	% 70,0	% 20,0	% 6,7	% 3,3

Informazioa gehiago bereizi behar litzateke.	% 46,7	% 43,3	% 10,0	% 0,0
Datuak funtsezkoak dira emakumeen aurkako indarkeriaren izaera, handitasuna, larritasuna eta maiztasuna hobeto ulertzeko.	% 70,0	% 20,0	% 3,0	% 0,0
Ikerketa eta estatistikak tresna baliagarriak dira datu enpirikoetan oinarritutako esku-hartzeak eta politikak garatu eta emakumeen aurkako indarkeriari amaiera emateko.	% 73,3	% 26,7	% 0,0	% 0,0
Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu osatu, fidagarri, konparagarri eta eguneratuen gabezia handia dago.	% 30,0	% 40,0	% 26,7	% 3,3

Beste alderdi batzuei helduz, elkarrizketatutako erakundeen/entitateen % 76,7k diote etxeko indarkeriaren kontrako sentsibilizazio-kanpainak jarri dituztela martxan biztanleentzat oro har. Haien artean, hauek dira aipagarriak: hiriko markesina eta autobusetako sentsibilizazio-kanpainak, Genero Indarkeriaren Aurkako Zuzendaritza Nagusiak sustatutako kanpainak (#nosqueremosvivas, #EntoncesQuien, #juntas, #ElSexoEsUnsi, #MachismoEsViolencia, #CeroDieciséis, etab.), ikastetxeetako edo oro har biztanleei zuzendutako sentsibilizazio- eta prebentzio-programak, emakumeen aurkako indarkeria oro desagerrarazteko nazioarteko eguna ospatzeko askotariko ekintzak ("La igualdad es un derecho", "Cambiemos la estadística, haciendo visible lo invisible", "Júzgate menos, abrázate más"), etab.

Are gehiago, elkarrizketatutako erakundeen/entitateen % 70ek etxeko indarkeriaren aurkako hezkuntza-kanpainak egin dituzte; adibidez, trebakuntza-ikastaroak, "Ni un paso atrás" eta "Sin medias naranjas" programak, hezkidetza-tailerrak, sexu-indarkeriaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak, etab.

Egiten duten zeregin-motari dagokionez, elkarrizketatutako erakundeen/entitateen % 6ok diote ez dietela lan-informaziorik ematen etxeko indarkeriako biktimei. Gainerako % 4ok egiten dute lan hori, batzuetan zuzenean, eta beste batzuetan erabiltzaileak enplegu-zerbitzu

publikoetara edo gizarte-zerbitzuetara bideratuta. Halaber, erakundeen/entitateen % 6ok esan dute ez dutela ematen orientazio psikosoziala, eta % 50ek aholkularitza juridikoa ere ez dutela ematen.

% 63,3k esan dute beste neurri edo estrategia batzuk jarri dituztela martxan etxeko indarkeria prebenitzeko edo hari aurre egiteko; esaterako, "Tendiendo puentes contra la violencia" programa; "Tanit" programa; Genero Indarkeriaren Biktimei eta Haien Inguruneari Osoko Arreta Emateko Programa; kasu-planak, baliabideak behar zehatzetara egokituz (Gaztela eta Leonen ezarritako "Modelo Violencia Cero" ereduaren arabera); indarkeria matxisten aurkako koordinazio-mahaia; gizonei zuzendutako trebakuntza-ikastaroak; hainbat talderentzako hezkidetzeta-tailerrak; lehen harrerako esku-hartzeak, konpainia, informazioa, orientazioa, aholkularitza, deribazioa eta hainbat erakunderekiko koordinazioa; egonaldi luze, ertain eta laburreko harrerarako tresnak; ahalduntze-ekintzak; indarkeriaren biktime diren emakumeen seme-alabei zuzendutako aisia terapeutikoko jarduerak ("Alzando la voz", "Espacio Propio"); amen eta seme-alaben arteko harremanak sustatzeko tailerrak; laguntza ekonomikoak; sexu-hezkuntzako ikastaroak; autodefentsako tailerrak, etab.

Bestalde, inkestari erantzun dioten erakundeek/entitateek etxeko indarkeriaren biktimei arreta emateko neurrien eraginkortasunari buruz duten iritzia ebaluatzeko, item batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko eskatu zitzaizkien; hau da, 10 emateko eraginkorragoak iruditzen zitzaizkienei, eta 1 hain eraginkorrak ez zirenei. 2. taulan daude emaitzak.

2. taula. Etxeko indarkeriako biktimei arreta emateko neurrien eraginkortasuna.

	Batezbestea koa±DS	Mediana (RI)
016.	7,6±1,9	8 (7-9)
ANAR fundazioaren telefonoa.	6,8±1,8	7 (5-8)
ATENPRO.	7,9±1,6	8 (7-9)
Indarkeriaren biktime diren emakumeentzako kontratu hobaridunak.	7,3±1,7	8 (5,8-9)
Gizarteratzeko errenta aktiboa.	8,0±1,3	8 (7-9)
Osoko Legearen 27. artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoa.	7,5±1,8	8 (6-9)
Emandako aldi baterako egoitza- eta lan-baimenak.	7,8±1,7	8 (6-9)
Gailu telematikoak.	7,0±2,1	7,5 (5,8-9,0)
VIOGÉN.	7,6±1,8	8 (6-9)

Laguntza- eta prebentzio-baliabideen webgunea.	7,4±1,9	7,5 (6-9)
--	---------	-----------

Biztanleak Espainiako etxeko indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzeko orduan erakundeek duten zereginarekin erlazionatutako alderdien inguruan duten iritzia ezagutzeko, item batzuk proposatu zitzaizkien 1etik 10era bitarteko eskalan balora ditzaten, non 10 balio handiena den eta 1 txikiena (ikus 3. taula).

3. taula. Biztanleak Espainiako etxeko indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzeko orduan erakundeek duten zeregina.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
Espainiako gizartea oro har etxeko indarkeriarekiko sentsibilizatuta dago.	5,4±1,9	6 (4-7)
Hedabideak etxeko indarkeriarekiko sentsibilizatuta daude.	5,2±2,1	5,5 (3,8-7,0)
Hezkuntza-sistemak etxeko indarkeria prebenitzen laguntzen du.	5,1±2,2	5 (3-7)
Erakundeak egoki ari zaizkio erantzuten etxeko indarkeriari.	5,5±1,9	6 (4,8-7,0)
Sistema judiziala egoki ari zaio erantzuten etxeko indarkeriari.	4,6±2,2	5 (2,8-6,3)

Etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko egungo erronkak ebaluatzeko, item batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko eskatu zitzaizen elkarrizketatutako entitateei/erakundeei, non 10 balorazio handiena den eta 1 txikiena. 4. taulan daude emaitzak.

4. taula. Etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko erronkak.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
Fenomenoaren garrantziaren neurketa.	7,4±1,8	7,5 (7-9)
Ezagutza-ekoizpena.	7,7±1,6	8 (6-9)
Esku-hartze psikosoziala.	7,9±1,7	8 (6,8-9)



Laneko esku-hartzea.	7,7±1,7	8 (7-9)
Esku-hartze juridikoa.	8,4±1,3	9 (8-9)
Hezkuntza.	8,7±1,3	9 (8-10)
Trebakuntza.	8,6±1,3	9 (8-10)
Komunikazioa.	8,4±1,4	9 (7-9)

Horren harira, hezkuntzak eta trebakuntzak oro har etxeko indarkeriaren askotariko moduak prebenitzeko eta desagerrarazteko erronka nagusiak irudikatzen dituzte.

Beste kontu batzuei helduz, inkestari erantzun dioten entitateen/erakundeen % goek (n=27) uste dute gai direla etxeko indarkeriako kasuak identifikatzeko eta haiei heltzeko. % 100ek uste dute etxeko indarkeriaren mota ohikoena indarkeria psikologikoa dela; % 86,67k, indarkeria fisikoa; % 73,33k, indarkeria sexuala; eta % 53,33k, indarkeria soziala.

Erakundeek/Entitateek genero-indarkeria detektatzeko eta hari heltzeko garrantzitsuenak iruditzen zaizkien oztopoei dagokienez duten iritzia ezagutzeko, item batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko proposatu zitzaizen, non 10ek zailtasun handiena irudikatzen duen, eta 1ek txikiena. 5. taulan daude emaitzak.

5. taula. Gizartean genero-indarkeria detektatzeko eta hari heltzeko oztopo nagusiak.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
Trebakuntza-falta.	4,0±2,6	3 (2-6,3)
Kontsultan/Bulegoan denborarik ez izatea.	4,0±2,8	3,5 (1-7)
Diziplinarteko talderik eza.	5,1±3,3	5,5 (2-8)
Genero-ikuspegirik eza.	4,3±3,1	3,0 (1,0-7,3)
Kontsultan/Bulegoan intimitaterik ez izatea.	3,2±2,4	2,0 (1-5)
Baliabiderik eza.	5,2±2,6	6 (2-7)
Errepresaliak izateko beldurra.	3,1±2,3	2 (1-4,3)
Oztopo kulturalak, hizkuntzakoak, etab.	3,8±2,3	3,5 (2,0-5,3)

Baliabiderik eza eta diziplinarteko talderik eza dira genero-indarkeria detektatzeko eta hari heltzeko inkestari erantzun diotenen erakundeek/entitateek gainditu behar dituzten oztopo nagusiak.

Etxeko indarkeriaren arazoari dagokionez biktimak informatzeko eta sensibilizatzeko egokienak iruditzen zaizkien baliabideak aztertzeko, haietako batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko eskatu zitzairen, non 10 balorazio handiena den, eta 1 txikiena. 6. taulan daude emaitzak.

6. taula. Etxeko indarkeriari buruz informatzeko eta sensibilizatzeko baliabideak.

	Batezbeste koa $\pm$ DS	Mediana (RI)
Informazio-kanpainak.	7,4 $\pm$ 1,4	8 (6-8,3)
Publizitatearen erregulazioa eta hedabideetarako gomendioak.	7,7 $\pm$ 1,7	8 (7-9)
Etxeko indarkeriako kasuetan laguntzeko eta halakoak prebenitzeko baliabideen webgunea (WRAP).	7,4 $\pm$ 1,8	8 (6-9)
016 telefono-zerbitzua, etxeko indarkeriaren arloko informazioa eta aholkularitza juridikoa ematekoa.	7,9 $\pm$ 1,6	8 (7-9)
Autonomia-erkidegoen berezko informazio-tresnak.	8,0 $\pm$ 1,5	8 (7,8-9)
Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzua (ATENPRO).	8,1 $\pm$ 1,6	8 (7-9,3)

Horren harira, baliabide baloratuenak Genero Indarkeriaren Biktimentzako Arreta eta Babeserako Telefono Zerbitzua (ATENPRO), eta autonomia-erkidegoen berezko informazio-tresnak.

Biktimei eta haien seme-alabei arreta emateko baliabideei dagokienez, 7. taulan dago haien balorazioa, aurreko tauletan aplikatutakoaren prozedura berari jarraikiz.

7. taula. Biktimei eta haien seme-alabei arreta emateko baliabideak.

	Batezbestekoa $\pm$ DS	Mediana (RI)
Berehalako aholkularitza juridikoa.	7,8 $\pm$ 2,2	8 (6,8-10)

Berehalako babesa.	8,2±2,0	9 (8-10)
Emakumearen aurkako indarkeriako epaitegiak.	8,1±1,9	8 (7-10)
Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako fiskala.	8,1±1,9	8 (7,5-10)
Osoko auzitegi-balorazioko unitateak.	8,0±2,1	8 (7-10)
Segurtasun-indar eta kidegoen unitate espezializatuak.	8,5±1,6	9 (8-10)
Lurralde batean segurtasun-indar eta -kidegoen arteko elkarlana.	8,2±1,8	8 (7-10)
Segurtasun-indar eta -kidegoen eta organo judizialen arteko koordinazioa.	8,1±2,1	8,5 (7,8-10)
Osoko segimendu-sistema: arriskuaren eta segimenduaren zenbatespena.	8,3±1,7	8 (8-10)
Etxeko indarkeriaren arloan hartutako urruntze-neurrien segimendua bitarteko telematikoen bidez egiteko sistema.	8,1±1,6	8 (7,8-9,3)
Espetxeetatik ateratzean erasotzaileak GPS bidez kontrolatzeko sistema.	8,0±1,7	8 (7,8-9)
Emakumeentzako laguntza eta konpainia psikosoziala.	8,5±1,6	8,5 (8-10)
Adingabeentzako laguntza eta konpainia psikosoziala.	8,2±2,2	8,5 (7,8-10)
Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzua (ATENPRO).	8,4±1,7	8 (8-10)

Halaber, 8. taulan dago jasota erakundeek/entitateek dauden informazio-baliabideei ematen dieten balorazioa.

8. taula. Etxeko indarkeriaren biktimei eta haien inguruneari informazioa emateko baliabideak.

	Batezbestekoa±DS	Mediana (RI)
016 telefono-zerbitzua, etxeko indarkeriaren arloko informazioa eta aholkularitza juridikoa ematekoa.	8,1±1,8	9 (7-9)

Autonomia-erkidegoen berezko informazio-tresnak.	7,9±1,9	9 (7-9)
--	---------	---------

Etxeko indarkeriaren fenomenoari aurre egiten modu eraginkorrean laguntzeko publizitate-zerbitzuek ezar ditzaketen neurriak aztertzeko, item batzuk proposatu zitzaizkien elkarrizketatutako erakundeei/entitateei, 1etik 10erako eskalan balora zitzaten, non 10 neurririk eraginkorrenentzat litzatekeen, eta 1 eraginkortasun txikiagokoentzat. 9. taulan daude emaitzak.

9. taula. Etxeko indarkeriari aurre egiten laguntzeko publizitate-zerbitzuek ezar ditzaketen neurriak.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
Publizitate-enpresekiko lankidetzaren profesionalen berdintasuneko trebakuntza bideratzeko eta publizitate-arloko jardunbide egokiei sariak emateko.	8,0±1,7	9 (7-9)
Publizitatearen arloko autorregulazio-akordioa zabaltzea, eztabaidak judizioz kanpo konpontzeko irizpideak jasotzeko.	7,4±2,3	8 (6-9)
Koordinazioa eta eraginkortasuna bermatzeko bukarazte-eta zuzentze-ekintza gauzatzeko legitimatuta daudenen arteko hitzarmena.	7,5±1,9	8 (6,8-9)
Adingabeak babestearen arloko telebista-operadoreen hitzarmena zabaltzea, etxeko indarkeria eta sexu-arrazoiengatik bereizkeria jasotzeko.	7,7±2,2	8,5 (6,8-9)
Ikus-entzunezkoak arautzen dituzten agintariekin egindako hitzarmenak, programaziotik eta publizitatetik etxeko indarkeria zuzenean edo zeharka sustatzen duten mezuak kentzeko lankidetzaprozedurak ezartzeko.	8,2±1,8	9 (7-9)
Albistearen edukiarekin eta tratamenduarekin erlacionatutako jardunbide egokiak bultzatzea eta zabaltzea.	8,4±1,9	9 (8-9,3)

Azkenik, ATENPRO zerbitzuari buruzko iritzia ezagutzeko, elkarrizketatutako erakundeentitateen % 63,3k (n=19) balorazio bikaina ematen dio; % 30ek (n=9), oso ona; eta 2k, eskasa.

Hurrengo atalean, toki-entitateei proposatutako kontu orokor eta espezifikoaren emaitzak aurkezten dira.

### III. Toki-entitateen lagina

Parte hartu duten erakunde guztietatik, 13 (% 43,3) toki-entitateak izan ziren (udalak, gizarte-erakundeak zentroak, berdintasunerako bulegoak, etab.).

Inkestari erantzun dioten entitateen % 92,3k uste dute funtsezko eginkizuna dutela etxeko indarkeria prebenitzen eta desagerrarazten; hala ere, % 53,8k soilik uste dute eskumen nahikoak dituztela berdintasunaren arloan eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko.

Ustez etxeko indarkerian eragina duten faktoreei dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeria (% 100), matxismoa (% 100), eta emakumeen rol-aldaketa (% 53,8) aipatu dituzte.

Entitate horietatik hamarrek (% 76,9) esan dute informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa prestatzen dutela etxeko indarkeriari buruz (hiruk —% 23,1— informazio kuantitatiboa soilik). Informazio hori hauekin erlazionatuta dago nagusiki: biktimak, erasotzaileak, indarkeria (tipologia, iraupena, maiztasuna, afektibitate-harremana edo elkarbizitza-egoera), adingabe biktimak edo umezurtzak, etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko baliabideak, informazio judiziala eta prozesala (salaketak, babes-neurriak edo kautelazko neurriak), eta ikerketarako iritzi-inkestak. Eskuragarritasunari dagokionez, haietatik 5ek erakundeekin partekatzen dute; 3k, txosten anonimizatuen bidez; eta 2k, hirugarrenekin edo entitateekin, hala eskatuz gero.

Gainerakoan, inkestari erantzun dioten entitateen % 100 ados daude "garrantzitsua da etxeko indarkeriako kasuekin erlazionatutako informazio kuantitatiboa edo kualitatiboa erregistratzea" dioen baieztapenarekin.

10. taulak etxeko indarkeriarekin erlazionatutako baieztapen batzuei dagokienez dagoen adostasun-maila jasotzen du:

10. taula. Etxeko indarkeriarekin erlazionatutako baieztapen batzuei dagokienez dagoen adostasun-mailari buruzko erantzunen portzentajea.

	Oso ados	Nahiko ados	Ez oso ados	Batere ez ados
--	----------	-------------	-------------	----------------

Espainian erakunde-mailan prestatutako informazioa nahikoa da etxeko indarkeriari buruzko errealitatea ezagutzeko.	% 0,0	% 69,2	% 23,1	% 7,7
Argitaratutako estatistikek herrialdeko egoeraren errealitatea islatzen dute.	% 7,7	% 30,8	% 53,8	% 7,7
Badira argitaratutako datuetan agertzen ez diren kasu gehiago.	% 69,2	% 30,8	% 0,0	% 0,0
Informazioa gehiago bereizi behar litzateke	% 53,8	% 38,5	% 7,7	% 0,0
Datuak funtsezkoak dira emakumeen aurkako indarkeriaren izaera, handitasuna, larritasuna eta maiztasuna hobeto ulertzeko.	% 53,8	% 38,5	% 7,7	% 0,0
Ikerketa eta estatistikak tresna baliagarriak dira datu enpirikoetan oinarritutako esku-hartzeak eta politikak garatu eta emakumeen aurkako indarkeriari amaiera emateko.	% 61,5	% 38,5	% 0,0	% 0,0
Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu osatu, fidagarri, konparagarri eta eguneratuen gabezia handia dago.	% 23,1	% 46,2	% 23,1	% 7,7

Toki-entitateen % 84,6k diote etxeko indarkeriaren kontrako sentsibilizazio-kanpainak jarri dituztela martxan biztanleentzat oro har. Haien artean, hauek aipa daitezke: aukera-berdintasunerako eta genero-indarkeriaren aurkako planen, edo berdintasun-planen testuinguruan ezarritako ekintza batzuk, baliabideei buruzko informazio-liburuxkak, Emakumearen Eguna edo Indarkeria Matxistaren aurkako Eguna ospatzeko ekitaldiak, hitzaldien antolaketa, profesionalentzako trebakuntza-ikastaroak, sexu-indarkeriaren aurka sentsibilizatzeko kanpainak, etab.

Gainera, % 76,9k hezkuntza-ekintzak jarri dituzte martxan etxeko indarkeria prebenitzeko; esaterako, tailerrak, genero- eta sexu-indarkeria prebenitzeko ikastaroak, azaroaren 25aren

inguruko sentsibilizazio-kanpainak, kartel-lehiaketak, kontzentrazio isilak, etab.

Inkestari erantzun dioten erakundeen % 61,5ek lan-informazioa ematen diete erabiltzaileei, nola modu pertsonalizatuan hala haiek erakundeetara bideratuta. Bestalde, % 100ek diote orientazio psikosoziala ematen dutela, eta % 84,6k, aholkularitza juridikoa. Erdiek baino gutxiagok (% 46,2) esan dute beste neurri edo estrategia batzuk jarri dituztela martxan; esaterako, kasu-planak, indarkeria matxisten aurkako koordinazio-mahaiak, gizonei zuzendutako trebakuntza-ikastaroak, hainbat talderentzako hezkidetzta-tailerrak, laguntza ekonomikoak, genero-rolak eta -estereotipoak deseraikitze tailerrak eta proiektuak, etab.

Bestalde, inkestari erantzun dioten entitateek etxeko indarkeriaren biktimei arreta emateko neurrien eraginkortasunari buruz duten iritzia ebaluatzeko, item batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko eskatu zitzaizkien; hau da, 10 emateko eraginkorrakoak iruditzen zitzaizkienei, eta 1 hain eraginkorrak ez zirenei. 11. taulan daude emaitzak.

11. taula. Etxeko indarkeriako biktimei arreta emateko neurrien eraginkortasuna.

	Batezbestea koa±DS	Mediana (RI)
016.	7,5±1,9	8 (6-9)
ANAR fundazioaren telefonoa.	6,1±1,9	6 (4,5-7,5)
ATENPRO.	8,2±1,5	9 (7-9)
Indarkeriaren biktime diren emakumeentzako kontratu hobaridunak.	7,7±1,8	8 (6,5-9)
Gizarteratzeko errenta aktiboa.	7,9±1,2	8 (7-9)
Osoko Legearen 27. artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoa.	7,3±2,1	8 (5,5-9)
Emandako aldi baterako egoitza- eta lan-baimenak.	7,9±1,5	8 (6,5-9)
Gailu telematikoak.	7,2±1,6	7 (6-8,5)
VIOGÉN.	7,7±1,4	8 (6,5-9)
Laguntza- eta prebentzio-baliabideen webgunea.	6,6±2,2	7 (5-8,5)

Biztanleak Espainiako etxeko indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzeko orduan erakundeek duten zereginarekin erlazioatutako alderdien inguruan duten iritzia ezagutzeko, item batzuk proposatu zitzaizkien 1etik 10era bitarteko eskalan balora ditzaten, non 10 balio handiena den eta 1 txikiena (ikus 12. taula).

12. taula. Biztanleak Espainiako etxeko indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzeko orduan erakundeek duten zeregina.

	Batezbeste koa $\pm$ DS	Mediana (RI)
Espainiako gizartea oro har etxeko indarkeriarekiko sentsibilizatuta dago.	5,8 $\pm$ 1,9	6 (4-7)
Hedabideak etxeko indarkeriarekiko sentsibilizatuta daude.	5,8 $\pm$ 2,0	6 (4,5-7)
Hezkuntza-sistemak etxeko indarkeria prebenitzen laguntzen du.	6,1 $\pm$ 2,1	6 (5-7)
Erakundeak egoki ari zaizkio erantzuten etxeko indarkeriari.	6,0 $\pm$ 1,8	6 (5-7)
Sistema judiziala egoki ari zaio erantzuten etxeko indarkeriari.	4,8 $\pm$ 2,1	5 (3-7)

Etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko egungo erronkak ebaluatzeko, item batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko eskatu zitzairen elkarrizketatutako entitateei, non 10 balorazio handiena den eta 1 txikiena. 13. taulan daude emaitzak.

13. taula. Etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko erronkak.

	Batezbeste koa $\pm$ DS	Mediana (RI)
Fenomenoaren garrantziaren neurketa.	7,4 $\pm$ 1,6	8 (6-9)
Ezagutza-ekoizpena.	7,5 $\pm$ 1,6	8 (6-9)
Esku-hartze psikosoziala.	7,6 $\pm$ 1,9	7 (6-9,5)
Laneko esku-hartzea.	7,4 $\pm$ 1,7	7 (6,5-9)
Esku-hartze juridikoa.	8,5 $\pm$ 1,1	9 (8-9)
Hezkuntza.	8,5 $\pm$ 1,2	9 (8-9,5)
Trebakuntza.	8,5 $\pm$ 1,2	9 (8-9,5)
Komunikazioa.	8,3 $\pm$ 1,3	8 (7-9,5)



Horren harira, hezkuntza, trebakuntza eta esku-hartze juridikoa dira Espainiako etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko erronka nagusiak.

Beste kontu batzuei helduz, entitateen % 100ek uste dute erakundea gai dela etxeko indarkeriako kasuak identifikatzeko eta haiei heltzeko. Toki-entitate guztien iritziz, etxeko indarkeria-mota guztietatik, ohikoena indarkeria psikologikoa da; % 84,6rentzat, indarkeria fisikoa; eta % 53,8rentzat, indarkeria soziala eta ezkontideak/bikotekideak dirurik ez ematea.

Entitateek genero-indarkeria detektatzeko eta hari heltzeko garrantzitsuenak iruditzen zaizkien oztopoei dagokienez duten iritzia ezagutzeko, item batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko proposatu zitzairen, non 10ek zailtasun handiena irudikatzen duen, eta 1ek txikiena. 14. taulan daude emaitzak.

14. taula. Gizartean genero-indarkeria detektatzeko eta hari heltzeko oztopo nagusiak.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
Trebakuntza-falta.	3,1±1,6	3 (2-3,5)
Kontsultan/Bulegoan denborarik ez izatea.	3,2±2,4	3 (1-4,5)
Diziplinarteko talderik eza.	4,2±3,1	3 (1,5-6,5)
Genero-ikuspegirik eza.	3,8±2,9	3 (1,5-7)
Kontsultan/Bulegoan intimitaterik ez izatea.	2,7±2,0	2 (1-3,5)
Baliabiderik eza.	4,8±2,8	6 (2-7,5)
Errepresaliak izateko beldurra.	3,4±2,4	3 (1,5-4)
Oztopo kulturalak, hizkuntzakoak, etab.	4,3±2,3	4 (2-6,5)

Horren harira, baliabiderik eza eta kultur oztopoak egotea dira genero-indarkeria detektatzeko eta hari heltzeko inkestari erantzun diotenen entitateek gairitu behar dituzten oztopo nagusiak.

Etxeko indarkeriaren arazoari dagokionez biktimak informatzeko eta sensibilizatzeko egokienak iruditzen zaizkien baliabideak aztertzeko, haietako batzuei 1etik 10era bitarteko balio bat emateko eskatu zitzairen, non 10 balorazio handiena den, eta 1 txikiena. 15. taulan daude emaitzak.

15. taula. Etxeko indarkeriari dagokionez informatzeko eta sentsibilizatzeko baliabideak.

	Batezbeste koa $\pm$ DS	Mediana (RI)
Informazio-kanpainak.	7,0 $\pm$ 1,2	7 (6-8)
Publizitatearen erregulazioa eta hedabideetarako gomendioak.	7,0 $\pm$ 1,9	8 (6-8)
Etxeko indarkeriako kasuetan laguntzeko eta halakoak prebenitzeko baliabideen webgunea (WRAP).	6,5 $\pm$ 1,9	7 (5,5-8)
016 telefono-zerbitzua, etxeko indarkeriaren arloko informazioa eta aholkularitza juridikoa ematekoa.	7,2 $\pm$ 1,4	8 (6-8)
Autonomia-erkidegoen berezko informazio-tresnak.	7,6 $\pm$ 1,7	8 (6-8,5)
Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzua (ATENPRO).	7,5 $\pm$ 1,9	8 (6-8,5)

Horren harira, baliabide baloratuenak autonomia-erkidegoen berezko informazio-iturriak eta Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzua (ATENPRO) izan ziren.

Biktimei eta haien seme-alabei arreta emateko baliabideei dagokienez, 16. taulan dago haien balorazioa, aurreko tauletan aplikatutakoaren prozedura berari jarraikiz.

16. taula. Biktimei eta haien seme-alabei arreta emateko baliabideak.

	Batezbesteko a $\pm$ DS	Mediana (RI)
Berehalako aholkularitza juridikoa.	7,3 $\pm$ 2,0	8 (6,5-8,5)
Berehalako babesa.	8,0 $\pm$ 1,4	8 (7,5-9)
Emakumearen aurkako indarkeriako epaitegiak.	7,4 $\pm$ 2,1	8 (5,5-9)
Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurkako fiskala.	7,4 $\pm$ 1,9	8 (5,5-9)
Osoko auzitegi-balorazioko unitateak.	7,4 $\pm$ 2,2	8 (6-9)
Segurtasun-indar eta kidegoen unitate espezializatuak.	8,0 $\pm$ 1,5	8 (7-9)

Lurralde batean segurtasun-indar eta -kidegoen arteko elkarlana.	8,0±1,4	8 (7-9)
Segurtasun-indar eta -kidegoen eta organo judizialen arteko koordinazioa.	7,5±2,3	8 (6-9)
Osoko segimendu-sistema: arriskuaren eta segimenduaren zenbatespena.	8,0±1,3	8 (8-9)
Etxeko indarkeriaren arloan hartutako urruntze-neurrien segimendua bitarteko telematikoen bidez egiteko sistema.	7,7±1,3	8 (7-8)
Espetxeetatik ateratzean erasotzaileak GPS bidez kontrolatzeko sistema.	7,8±1,4	8 (7,5-8,5)
Emakumeentzako laguntza eta konpainia psikosoziala.	8,1±1,3	8 (7,5-9)
Adingabeentzako laguntza eta konpainia psikosoziala.	7,6±2,1	8 (7-9)
Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzua (ATENPRO).	7,8±1,6	8 (7-9)

Beste gai batzuei helduz, 17. taulan dago jasota inkestari erantzun dioten erakundeek/entitateek dauden informazio-baliabideei ematen dieten balorazioa.

17. taula. Etxeko indarkeriaren biktimei eta haien inguruneari informazioa emateko baliabideak.

	Batezbestekoa±DS	Mediana (RI)
016 telefono-zerbitzua, etxeko indarkeriaren arloko informazioa eta aholkularitza juridikoa ematekoa.	7,8±1,6	8 (7-9)
Autonomia-erkidegoen berezko informazio-tresnak.	7,6±2,4	8 (7-9)

Etxeko indarkeriaren fenomenoari aurre egiten modu eraginkorrean laguntzeko publizitate-zerbitzuek ezar ditzaketen neurriak aztertzeko, item batzuk proposatu zitzaizkien elkarrizketatutako entitateei 1etik 10erako eskalan balora zitzaten, non 10 neurririk eraginkorrenentzat litzatekeen, eta 1 eraginkortasun txikiagokoentzat. 18. taulan daude emaitzak. Horren harrira, hauek dira baloratuenak: albistearen edukiarekin eta

tratamenduarekin erlazionatutako jardunbide egokiak bultzatzea eta zabaltzea; publizitate-enpresekiko lankidetzak haien profesionalen berdintasuneko trebakuntza bideratzeko; eta sariak emateko.

18. taula. Etxeko indarkeriari aurre egiten laguntzeko publizitate-zerbitzuek ezar ditzaketen neurriak.

	Batezbeste koa $\pm$ DS	Mediana (RI)
Publizitate-enpresekiko lankidetzak haien profesionalen berdintasuneko trebakuntza bideratzeko eta publizitate-arloko jardunbide egokiei sariak emateko.	7,8 $\pm$ 1,4	8 (6,5-9)
Publizitatearen arloko autorregulazio-akordioa zabaltzea, eztabaidak judizioz kanpo konpontzeko irizpideak, eztabaida estrajudizialak konpontzeko irizpideak jasotzeko.	6,9 $\pm$ 2,1	7 (5,5-9)
Koordinazioa eta eraginkortasuna bermatzeko bukarazte-eta zuzentze-ekintza gauzatzeko legitimatuta daudenen arteko hitzarmena.	7,2 $\pm$ 1,3	7 (6,5-8)
Adingabeak babestearen arloko telebista-operadoreen hitzarmena zabaltzea, etxeko indarkeria eta sexu-arrazoiengatik bereizkeria jasotzeko.	7,8 $\pm$ 1,3	8 (6,5-9)
Ikus-entzunezkoak arautzen dituzten agintariekin egindako hitzarmenak, programaziotik eta publizitatetik etxeko indarkeria zuzenean edo zeharka sustatzen duten mezuak kentzeko lankidetzak-prozedurak ezartzeko.	8,0 $\pm$ 1,5	9 (6,5-9)
Albistearen edukiarekin eta tratamenduarekin erlazionatutako jardunbide egokiak bultzatzea eta zabaltzea.	8,5 $\pm$ 0,9	9 (8-9)

Bereziki garrantzitsua da aipatzea hamar toki-entitateren ustez (% 76,9) genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunak sustatu duela udalerriek berdintasunaren arloko eskumenak berreskuratzea/finkatzea, etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko. Horren harira, eskatu zitzaizkien 1etik 10era bitarteko eskalan baloratzeko (non 10 balorazio handiena den eta 1 txikiena) zer neurritan uste duten, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituneari jasotako neurriei dagokienez, sustapen-/garapen- edo erantzukizun-funtzioak dituztela (ikus 19. taula).

19. taula. Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunean jasotako neurriei buruz toki-entitateek dituzten sustapen-/garapen- edo erantzukizun-funtzioen balorazioa.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
Prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpainen garapena.	8,4±1,4	8 (8-9,5)
Osoko gizarte-laguntza ematea.	7,9±2,1	9 (6,5-9,5)
Babes-unitateak sortzea.	7,8±1,9	8,0 (6,5-9,5)
Udaltzaingoak biktimak babestea.	7,2±2,7	8,0 (5,0-9,5)
Ostatuen edo harrera-etxeen sare bat ezartzea.	5,7±2,9	6,0 (3,0-8,5)
Landaguneetako biktimentzako harrera- eta informazio-zentroak ezartzea.	6,0±2,9	6,0 (3,0-9,0)
Berdintasunerako batzorde eta kontseilu lokalak eratzea.	6,5±2,9	6,0 (3,0-9,5)
Zerbitzu espezializatuetara joaten laguntzea.	7,2±2,8	8,0 (5,0-9,5)
Emakume ahulenen taldeei arreta emateko protokolo eta neurri bereziak ezartzea.	8,1±1,9	8,0 (7,5-9,5)
Desgaitasuna dutenei laguntzeko eta babesa emateko baliabideak egokitzea.	7,2±2,5	8,0 (5,5-9,0)

Halaber, iritzia eskatu zitzaien etxeko indarkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko dauden estatuko baliabideen erabilgarritasunari buruz (ikus 20. taula); balorazio altuena ATENPRO-k jaso zuen, eta, gero, VIOGÉN-ek.

20. taula. Etxeko indarkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko estatu-baliabideen erabilgarritasunaren balorazioa.

	Batezbeste koa±DS	Mediana (RI)
o16.	8,0±1,8	9 (7-9)
VIOGÉN.	8,5±1,2	9 (8-9,5)
Bitarteko telematikoen bidezko segurtasun- sistemak.	8,4±1,4	9 (7,5-9,5)
ATENPRO.	8,7±1,1	9 (8-9,5)

#### IV. ATENPRO-ri buruzko balorazioa

ATENPRO-ri buruz erakundeek/entitateek oro har egiten duten balorazioari dagokionez, hau ondoriozta daiteke:

- Etxeko indarkeriaren biktimei arreta emateko baliabide gisa duen eraginkortasunari dagokionez, ATENPRO-k 7,9ko batez besteko puntuazioa lortu du, eta proposatutako itemetatik ongien baloratutako bigarrena izan da.
- ATENPRO da ongien baloratutako baliabidea etxeko indarkeriari lotutako problematikaren berri emateko eta haren inguruan sentsibilizatzeko (8,1eko batez besteko puntuazioa lortu du).
- ATENPRO-k 8,4ko puntuazioa lortu du biktimei eta haien seme-alabei arreta emateko baliabide gisa (hirugarren onena da).
- ATENPRO-ri kalifikazio bikaina eman diote inkestari erantzun dioten entitateen/erakundeen % 63,3k (n=19); eta oso ona % 30ek (n=9).

Toki-entitateek ATENPRO-ri buruz egindako balorazioari dagokionez, hau ondoriozta daiteke:

- Etxeko indarkeriaren biktimei arreta emateko baliabide gisa duen eraginkortasunari dagokionez, ATENPRO-k 8,2ko batez besteko puntuazioa lortu du, eta proposatutako itemetatik ongien baloratuena izan da.
- ATENPRO da ongien baloratuenetik hirugarren baliabidea etxeko indarkeriari lotutako problematikaren berri emateko eta haren inguruan sentsibilizatzeko (7,5eko batez besteko puntuazioa lortu du).
- ATENPRO-k 7,8ko puntuazioa lortu du biktimei eta haien seme-alabei arreta emateko baliabide gisa.
- Etxeko indarkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko estatu-baliabideen artean duen erabilgarritasunari dagokionez, ATENPRO-k batez besteko puntuaziorik altuena lortu du: 8.7.
- ATENPRO-k kalifikazio bikaina jaso du, 9ko batez besteko puntuazioarekin.

#### V. Ohar orokorrak

- Inkestari erantzun dioten entitate/erakunde guztiek baieztatu dute "garrantzitsua dela etxeko indarkeriako kasuekin erlazionatutako informazio kuantitatiboa edo kualitatiboa erregistratzea". Baieztapen horretatik abiatuta, toki-entitateek besteek baino hein handiagoan betetzen dute baieztapen hori.
- Halaber, toki-entitateek ematen diete aholkularitza osatu samarra etxeko indarkeriaren biktimei, bereziki lan-arloan eta arlo juridiko eta psikosozialean.
- Toki-entitateek inkestari erantzun dioten gainerako erakundeek baino kanpaina eta ekintza gehiago jarri dituzte martxan biztanleei oro har zuzenduta etxeko indarkeriari buruz sentsibilizatzeko.
- ATENPRO zerbitzua toki-entitateen eskumenekoa da, eta baliabiderik eraginkorrenetako bat da etxeko indarkeriaren biktimei arreta emateko, lotutako problematikaren berri emateko eta hari buruz sentsibilizatzeko, eta hura prebenitzeko eta hari aurre egiteko.

- Aurreko puntuetan esandakoa gorabehera (ondoriozta daiteke toki-entitateek funtsezko zeregina dutela etxeko indarkeria prebenitzen eta desagerrarazten), erdiek baino gehiagok uste dute ez dutela eskumen nahikorik. Horren harira, oztopo nagusiak giza baliabiderik eta baliabide materialik eza eta genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunean jasotako neurri batzuen garapen eskasa (logelen edo harreraretxeen sare bat ezartzea, bai hiri-ingurunean, bai landagunean, eta informazio-zentroak ezartzea landagunean).

## VI. Galdetegia egiteko metodologia

Entitate, erakunde eta elkarte hauei bidali zitzaien galdetegia posta elektronikoz maiatzaren 17an:

- Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokia.
- Emakumeen Salerosketaren aurkako Foro Soziala.
- Emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako koordinazio-unitateak eta emakumearen aurkako indarkeriaren unitateak: Araba, Albacete, Alacant, Almería, Asturias, Ávila, Badajoz, Bartzelona, Burgos, Cáceres, Cádiz, Kantabria, Castelló, Ciudad Real, Kordoba, Coruña, Cuenca, Girona, Granada, Guadalajara, Gipuzkoa, Huelva, Huesca, Balearrak, Jaén, León, Lleida, Lugo, Madril, Málaga, Murtzia, Nafarroa, Ourense, Palentzia, Las Palmas, Pontevedra, Errioxa, Salamanca, Segovia, Sevilla, Soria, Tarragona, Santa Cruz Tenerifekoa, Teruel, Toledo, Valentzia, Valladolid, Bizkaia, Zamora eta Zaragoza.
- Emakumeen Osasunaren Behatokia.
- Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko, esku hartzeko eta babesteko zerbitzu propioak dituzten toki-entitateak:
  - Bilboko Udala.
  - Cádizeko Udala - Emakumearen Udal Fundazioa.
  - Madrilgo Udala – Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeria.
  - Santaderko Udala - Indarkeriari Osoko Arreta Emateko Puntua.
  - Donostiako Udala - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekiko esku hartzea
  - San Sebastián de los Reyesko Udala – Genero-indarkeriaren aurkako Eskualde Behatokiaren Udal Puntua.



- Murtziako Udala - Genero-indarkeriari arreta emateko taldea (EMAVI).
- Medina del Campoko Udala.
- Yeclako Udala - Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta Zentroa (CAVI).
- Salamancako Udala - Emakumearentzako Informazio eta Aholkularitza Zentroa (CIAM).
- Sevillako Udala - Emakumearen Zerbitzua.
- Mataróko Udala - Emakumeentzako Arreta Zerbitzua.
- Formenterako Kontseilua – Emakumearentzako Informazio eta Arreta Zerbitzua.
- Avilésko Udala - Emakumearen Aholkularitza Zentroa (CAM).
- Tenerife Kabildoa - Arreta Sozialeko eta Soziosanitarioko Uharteko Institutua (IASS) – Genero Indarkeriaren Unitate Organikoa.
- Cáceresko Udala – Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzua, eta genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzak.
- Toledoko Udala – Toledoko Emakumearen Zentroa.
- Valladolideko Udala – Etxeko Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Zerbitzua.
- La Línea de la Concepcióngo Udala – Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-zerbitzuak.
- Jerezeko Udala – Emakumearen Aholkularitza Zentroa (genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdi-baliabidea).
- Gandiako Udala – berdintasunaren, Aniztasunaren eta Politika Inklusiboen Sails (genero-indarkeriaren biktimentzako arreta psikosozialeko zerbitzuak).
- San Juan de Aznalfarache (Sevilla) Udala – Emakumearentzako Informaziorako Udal Zentroa.
- Fuerteventurako Uharteko Kabildoa – Genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeentzako arreta-zerbitzu espezializatua (S.A.M.).
- Almeríako Diputazioa – Emakumeen Probintzia Zerbitzua.

- Ricoteko (Murtzia) Udala – Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretarako telefono-zerbitzua.
  - Camargoko (Kantabria) Udala – Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta.
  - La Rodako (Albacete) Udala - Emakumearen Zentroa.
  - Agüimesko (Kanaria Handia) Udala – Genero-indarkerian espezializatutako zerbitzua.
  - Mislatako (Valentzia) Udala – Emakumearen Etxea.
  - Picassenteko Udala - Emakumearentzako arreta-zerbitzua.
  - Gijóngo (Asturias) Udala – Emakumearen Aholkularitza Zentroa.
  - Rivas Vaciamadrیدهko Udala – Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta.
  - Iruñeko Udala– Emakumeentzako arretarako udal-zerbitzua (SMAM).
  - Altsasuko (Nafarroa) Udala – Informazio orokorra eta aholkularitza juridikoa.
  - Arangurengo (Nafarroa) Udala - Emakumearentzako eta Familiarentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua.
  - Burlatako (Nafarroa) Udala – Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arretarako Udal Zerbitzua.
  - Lizarrako (Nafarroa) Udala – Arreta psikologikoko, juridikoko eta baliabideetako zerbitzuak.
  - Concello de Lugo – Casa da Muller.
  - Terrassako Udala - Emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzuak.
  - Alcobendasko Udala – Alcobendasko Emakumearen Etxea.
  - Jerte Ibarreko Mankomunitatea – Berdintasuneko eta Genero Indarkeriako Bulegoa.
- Unibertsitateetako berdintasunerako unitateak: Alcalá de Henaresko Unibertsitatea, Alacanteko Unibertsitatea, Almeriako Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Bartzelonako Unibertsitatea, Burgoseko Unibertsitatea, Cádizeko Unibertsitatea, Kantabriako Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Gaztela-Mantxako Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitate Zentrala, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Kordobako Unibertsitatea, Coruñako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Extremadurako Unibertsitatea, Gironako Unibertsitatea, Granadako Unibertsitatea, Huelvako Unibertsitatea, Balear Uharteetako

Unibertsitatea, Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatea, Bartzelonako Nazioarteko Unibertsitatea, Jaéngo Unibertsitatea, Jaume I.a Unibertsitatea, La Lagunako Unibertsitatea, Leóngo Unibertsitatea, Lleidako Unibertsitatea, Málagaako Unibertsitatea, Miguel Hernández Unibertsitatea, Murtziako Unibertsitatea, Universidad Oberta de Catalunya, Oviedoko Unibertsitatea, Pablo Olavide Unibertsitatea, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Las Palmaseko Unibertsitatea, Cartagenako Unibertsitate Politeknikoa, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Pompeu Fabra Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Ramon Llull Unibertsitatea, Juan Carlos Erregea Unibertsitatea, Errioxako Unibertsitatea, Rovira i Virgili Unibertsitatea, Salamancako Unibertsitatea, Santiago de Compostelako Unibertsitatea, Sevillako Unibertsitatea, UNED, Valentziako Unibertsitatea, Valladolideko Unibertsitatea, Vigoko Unibertsitatea eta Zaragozako Unibertsitatea

- Unibertsitateetako generoaren arloko zentroak, institutuak eta katedrak EUFEM plataformaren bidez. Plataforma horren parte da Salamancako Unibertsitateko Emakumeari buruzko Ikasketen Zentroa:
  - Institut Universitari d’Estudis de la dona – Valentziako Unibertsitatea.
  - Ikerketa Feministen Institutua – Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea Generoko Ikasketen Unibertsitate Institutua – Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea.
  - Emakumeari buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutua – Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
  - Emakumeei buruzko Ikasketen Unibertsitate Institutua – La Lagunako Unibertsitatea.
  - “Purificación Escibano” Ikasketa Feministen eta Generokoen Unibertsitate Institutua - Universitat Jaume I, Castelló.
  - Generoko Ikasketen Ikerketako Unibertsitate Institutua – Alacanteko Unibertsitatea.
  - Emakumeei buruzko eta Generoko Ikasketen Ikerketako Unibertsitate Institutua – Granadako Unibertsitatea.
  - Genero eta Berdintasuneko Ikerketako Unibertsitate Institutua (IGIUMA) - Málagaako Unibertsitatea.
  - Institut interuniversitari d’Estudis de Dones i Gènere (IIEDG) - Bartzelonako Unibertsitatea.
  - Ikasketa Feministen, Generokoen eta Berdintasuneko Diziplinarreko Zentroa (CINEF) - Sevillako Pablo de Olavide Unibertsitatea.

- Centre d'Estudis de Gènere (CEdG) – Universitat Pompeu Fabra.
  - Centre d'Estudis Interdisciplinaris de Gènere – Viceko Unibertsitatea.
  - Centre d'Igualtat i Promoció de les Dones Dolors Piera – Universitat de Lleida.
  - Ikasketa Juridikoen Zentroa – UNED.
  - Emakumeei buruzko eta Generoko Ikasketen Zentroa – Murtziako Unibertsitatea.
  - Ikasketa Feministen Zentroa – Deustuko Unibertsitatea.
  - Centro de Estudos de Xénero e Feministas (CEXEF) – Universidade da Coruña.
  - Generoko Ikasketen Ikerketa Zentroa – Elcheko Miguel Hernández Unibertsitatea.
  - Centro Interdisciplinario de Investigaciones Feministas e Estudos do Xénero CIFEX – Santiago de Compostelako Unibertsitatea.
  - Generoko Ikasketen Katedra – Valladolideko Unibertsitatea.
  - Leonor de Guzmán Emakumeei buruzko Ikasketen Katedra – Kordobako Unibertsitatea.
  - Genero Katedra – Universidade de Vigo.
  - Berdintasun eta Genero Katedra – Zaragozako Unibertsitatea.
  - Zientzian, Teknologian eta Berrikuntzan Genero Berdintasuneko Politikak Aplikatzeko UNESCO Katedra – Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa.
  - Kantabriako Unibertsitateko Berdintasunaren eta Generoko Ikasketen Katedra.
  - Genero Berdintasunaren Behatokia – Juan Karlos Erregea Unibertsitatea.
  - Atenea Plataforma – Universitat Politècnica de Valencia.
- Zuzenbide Konstituzionaleko Sare Feminista.
  - GENET elkarteak – Giza Zientzietan, Gizarte Zientzietan eta Zientzia Juridikoetan Generoko Ikasketak Aplikatzeko Zeharkako Sarea.
  - Emakume Progresisten Federazioa
  - Familia Elkarten Batasuna (UNAF).
  - Themis Emakume Legelarien Elkarteak.

- “Plaza Mayor” Emakumeari Laguntzeko Elkarteak.
- Beatriz de Suabia elkarteak.
- ADAVAS – Sexu Erasoan eta Etxeko Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Elkarteak.

Beste mezu bat bidali zen, oroigarri gisa, uztailaren 7an, erantzun-kopurua handitzeko eta ordura arte erantzun ez zuten entitateek ere erantzuteko.

Hurrengo asteetan, telefonoz deitu zitzaizkien toki-entitateei, galdetegia bidali zitzaizkien gogorarazteko eta hari erantzun ziezaioten eskatzeko. Zailtasun handiak zeuden, entitate gehienek oraindik ez baitzuten erantzun, batez ere hiru arrazoiengatik: lehenik, udal-zerbitzuetan dagoen lan-kargak zaildu egiten du inkesta horiei erantzutea; bigarrenik, era horretako azterlanei erantzuteko eskaera asko jasotzen direnez, zaila da batzuk onartzea eta besteak baztertzea; eta, hirugarrenik, profesionalek eta entitateek erreparatzea izan ohi dituzte ATENPRO zerbitzua kritika daitekeen azterlan batean identifikatuak izateko.

## VII. Elkarrizketen emaitzak

Aurretik azaldutako guztiak zaildu egin du elkarrizketak egitea, eta, ondorioz, ezinezkoa izan da hogeita bost entitateekin hitz egitea, nahiz eta berrogei toki-erakundekin baino gehiago jarri harremanetan, postaz edo telefonoz.

Egindako elkarrizketetatik hau ondorioztatzen da:

Lehenik, toki-entitateei ez zaie gustatzen halako elkarrizketei erantzutea, bereziki ATENPRO-ri buruz galdetzen zaienean, eta gehienek ez dute nahi azterlanean identifikatzea.

Bigarrenik, entitate askok diote postaz erantzungo dutela edo deia itzuliko dutela, baina ez dute ezer egiten, lehen adierazitako arrazoiengatik.

Hirugarrenik, uste dute Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren baliabide ekonomikoak oso erabilgarriak direla eta guztiz beharrezkoak izan direla zerbitzuak eta jarduerak hobetzeko eta handitzeko eta espezialistak partzialki kontratatuzko.

Hala ere, oraindik uste dute ez direla nahikoak eta partida ekonomikoak are gehiago handitu behar direla; bistakoa da genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arretak eta prebentzioak dirua behar duela, eta are diru gehiago.

Laugarrenik, ATENPRO-ri buruzko iritzia orokorra da zerbitzu oso baliotsua eta beharrezkoa dela, baina kudeaketa motela duela, eta horrek eragin negatiboa duela haren erabiltzaileengan, eta tresnen arteko koordinazio-faltak erantzun bizkorra zailtzen duela.

Espezialistetako batzuek esan dute beharrezkoa dela ATENPRO zerbitzuko langile-kopurua handitzea edo haiek udal-zerbitzuetan sartzea, toki-erakunde zehatzak biktimen zerbitzura jartzen dituen laguntza-tresna guztiekin hobeto koordinatzeko.

## 3. txostena

*Prebentzio- eta sentsibilizazio-politika publikoak garatzeko soluzioen eta hobekuntza-neurrien proposamena*

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak hobeto detektatzeko eta haiei laguntzeko, 2021eko uztailean, Espainiako Gobernuak Genero Indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko Neurrien Katalogoa onartu zuen. Katalogo horretan, "gizartea eta indarkeria matxistaren biktimen ingurunea sentsibilizatzea bideratutako hainbat neurri proposatzen dira; neurri horien helburua ere bada indarkeria goiz detektatzea hurbileko zerbitzu publikoetan, emakumeen autonomia babestea indarkeriarekin bukatzeko, umeak indarkeriatik babestea, eta, salaketa egon ala ez, arriskuan dauden biktimen babesa eta segurtasuna sendotzea".

Testuinguru horretan, eta taldearen ezagutza espezializatuan oinarrituta, ekimen edo proposamen hauek aurkezten dira:

Beharrezkoa da toki-entitateek etxeko indarkeriaren aurka borrokatzeko dituzten baliabideak ugaritzea, era horretako indarkeria prebenitzeko zerbitzu espezifikoak martxan jarrita, baita biktimetzako arreta hobetzeko tresnak ere. Toki-entitate guztiek ez dituzten baina hasiera batean biktimei arreta emateko beharrezkoak diren baliabideetako bat da aldi baterako harrera-etxe bat, baita tutoretzapeko etxebizitzak ere, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak hartzeko osatzen diren bitartean, normaltasuna iritsi arte. Xede horretarako, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik datozen funtsak bideratu ahal izan beharko dira, eta, nahiz eta egia izan administrazio autonomikoak ere kudeatzen dituela batzuetan, eraginkorragoa iruditzen zaigu 20.000 biztanletik gorako udalerrietan gutxienez kudeaketan hori udalen euren ardurapean geratzea, eta 20.000 biztanletik beherakoetan, berriz, probintzietako aldundiek kudeatu ahal izatea.

Emakumeen elkarteek egiten duten lana aitortu egin behar da, eta, ahal den heinean, areagotu, baina horrek ezin du berekin ekarri administrazio publikoak tresnen kudeaketari uko egitea etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko. Hori dela eta, gutxienez premiazko arreta, soziala, psikologikoa eta juridikoa, kasu honetan zuzenean toki-entitateen menpe dauden langileek eman behar dute. Era horretako arreta ezin zaie hirugarrenei azpikontratatu, nahiz eta haiekin lankidetzaz hitzarmen espezifikoak eduki.

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzea da biktimak erreparatzeko egoerari aurre egiten gehien lagun dezaketen neurrietako bat. Horretarako, beharrezkoa da etxeko indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzeko terapiak edo ekintzak sustatzen dituzten programak ugaritzea.

Urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan bermatu behar da premiazko arreta espezifikoa, nola toki-entitateen bidez (udaltzaingoko agenteak edo unitateak) hala osasun-larrialdietako zerbitzuen bidez. Indarkeria-egoera gertatu eta berehala arreta egokia emateak laguntza bide egokietatik bideratzen laguntzen du, tratamendu desegoki batek emakumearengan izan ditzakeen ondorioak larritu gabe, beharbada tratamendu hori ez delako emakumea jasaten ari den edo jasan duen indarkeria-motarako espezifikoa.



Etxeko indarkeriaren biktimentzako arreta soziolaboraleko zerbitzuak indartu behar dira, haien trebakuntza espezifikoa lehenetsi, eta mota horretako indarkeriaren biktima diren emakumeen kontratazioa sustatu. Independentzia ekonomikoak bizitza autonomia ziurtatzen du etorkizunean, eta emakumearen eta indarkeria-ingurunearen artean egon zitezkeen loturak hausten ditu.

Toki-entitateek baliabide gehiago bideratu behar dituzte emakumeen aurkako mota guztietako indarkeriari buruz sentsibilizatzeko kanpainak zabaltzera, bereziki gazteen artean ikastetxeetan, baina baita garrantzi bereziko ekitaldietan ere (esaterako, zaindariaren jaietan, kontzertuetan, etab.) eta sare sozialen bidez. Etxeko indarkeria prebenitu behar dela agerian jartzeak eta kontzientziatzeak hura desagerrarazten laguntzen du.

Iraganeko eta gaur egungo gizartean emakumeen eginkizunak duen garrantziari buruzko tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta antzeko jarduerak egitera bideratutako eremuen sorrera sustatzea. Ere horiek (adibidez, berdintasunaren etxeak edo emakumeen etxeak) berdintasuna sustatzen, emakumeek gizartean duten lidergo-gaitasuna indartzen, eta emakumeen aurkako portaera umiliagarriak eta bortitzak desagerrarazten laguntzen dute.

Berdintasunaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzearen arloko ekintza nagusiak ezin dira mugatu martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko data aipagarri horietara mugatu; jarraitutasuna eman behar zaie urteko edozein garaitan. Horretarako, ezinbestekoa da toki-entitateek aukera-berdintasuneko agentearen figura jasotzea beren organigraman. Plangintza egokia bada, agente horrek berdintasunaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokaren arloko ekintzak dinamizatuko ditu etengabe. Gainera, bai berdintasuneko agentearen figura, bai berdintasun-sustatzailearena legez arautu behar lirateke homogeneousotasuna emateko eta bat edo beste izateko baldintzak eta haien funtzioak modu uniformearen ziurtatzeko.

Teknologia berrien arloan trebakuntza-lanak egitea, genero-arrakala digitalarekin bukatzeko, etxeko indarkeriaren aurkako prebentzio-neurri gisa. Bereziki landagunean, batzuetan ahultasun nagusietako bat biztanlerik gabeko lurraldeetan etxeko indarkeriaren biktima potentzialak aurkitzea izaten baita. Helburua da mota horretako neurriak emakumeen onurarako izatea, herritartasun digital berriaren aurrean pertsona gisa aurrera egin dezaten eta biktima izanez gero beren burua defendatu ahal izan dezaten; bereziki ingurune digitalean gertatzen diren indarkeria-fenomeno berriak ere ezagutarazten zaizkie.

Emakumeen enplegua sustatzeko programetan eta handik aurrerakoetan toki-entitateen menpe dauden lan-eskaintza publikoak jasotzea, eta eskaintza horietan lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktima izateari lan bat lortzeko. Helburu nagusia da emakumeak ahalduz eta askatasun indibidual handiagoa ematea, askotan luzatu egin behar izaten baitute jasaten duten indarkeria-egoera, tratu txarren emaleekiko menpekotasun ekonomikoa dutelako. Ahal den heinean, biktimen intimitatea errespetatzeko, ez da esango baldintza hori kontuan izan dela baremoak aplikatzean.

Udaltzaingoko kidegoentzako osoko trebakuntza-programa bat ezartzea, baita landagunean diharduten Guardia Zibileko agenteentzako bat ere, genero-indarkeriako kasuak hobeto detektatzeko. Gauza bera talde medikoei eta lehen mailako arretako zentroei edo adinekoen egoitzei buruz. Horrekin, arduradun publikoak sentsibilizatuago egotea eta genero-indarkeriako kasuetan sintoma jakin batzuk hobeto detektatzeko gai izatea nahi da.

Etxeko indarkeriari buruzko inkestak eta galdetegiak diseinatzea eta ezartzea (eta beste analisi-metodologia batzuk), haren pertzepzio soziala kuantitatiboki eta kualitatiboki neurtu ahal izateko, bereziki gazteen artean (baina beste adin-talde batzuk ahaztu gabe) eta hiri-eta landa-eremuak bereiziz. Lortutako emaitzen arabera, hitzaldiak, tailerrak eta beste sentsibilizazio-neurri batzuk egitea. Helburua da etxeko indarkeriak dakarren arazo sozialaren pertzepzioa eta garrantzia neurtzea, adin-talde desberdinen arabera eta sexuen eta landa- eta hiri-eremuen artean bereiziz. Prebentziora eta sentsibilizaziora bideratutako neurri bat da.

Ekintzailetzari eta etxeko indarkeriaren biktimentzako negozio eta saltokiak martxan jartzeari buruzko trebakuntza-tailerrak egitea. Helburu nagusia da emakumeak ahalduntzea eta askatasun indibidual handiagoa ematea, askotan luzatu egin behar izaten baitute jasaten duten indarkeria-egoera, tratu txarren emaileekiko menpekotasun ekonomikoa dutelako.

Tokiko kooperatibak, tailer-eskolak, etab. antolatzea. Toki-entitateek ezartzen dituzten ahalduntze ekonomikoko beste neurri batzuk ezartzeaz gain. Helburu nagusia da, emakumeak ahalduntzea eta askatasun indibidual handiagoa ematea ez ezik, emakumeen arteko sororitatea ere sustatzea.

Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan politika publiko egokiak ezartzeko, ezinbestekoa da zehatz-mehatz ezagutzea arazoaren gaur egungo egoera.

Horretarako, eta nahiz eta iruditxo oso datu hotzak eta abstraktuak ematen dizkigutela, estatistikak funtsezkoak dira, aztertzen ari garen fenomenoaren alderdi aipagarrienak identifikatzeko eta politika eraginkorragoak proposatzeko aukera ematen baitigute.

Horren harira, hainbat azterlanen bidez, agerian jarri da hainbat erakunde publikok etxeko indarkeriaren arloan erabiltzen dituzten estatistikek hainbestearainoko gabeziak dituztela, ezen ez baitigute uzten arazoaren ikuspegi osoa izaten. Alde batetik, iter prozesaleko une desberdinetatik abiatzen dira, eta, bestetik, ez dituzte aldagai berak biltzen.

Aldagai guztien edo batzuen balorazio orokorra eginda ere ezin gara iritsi ondorio berberetara, eskaintzen dituzten datuak erabat desberdinak baitira.

Horrek eragotzi egiten du, ez bakarrik arazoak zehatz-mehatz identifikatzea, baita haiek prebenitzeko politika egokiak ezartzea ere.

Horren adibide dira Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urteko memorieta dauden estatistikak, Fiskaltzak funtsezko zeregina baitu etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan. Memoria horietan, urtez urte aitortzen da Fiskaltzak ez duela sistema informatizatu bat mota horretako indarkeriarekin erlazionatutako gaiak xehetasunez eta sistematikoki biltzeko. Are gehiago, dauzkaten datu ofizialak sartu ala ez Fiskaltzako kideen "borondate onaren" arabera da, eta haiek eskuz sartzea erabakitzen dute.

2023 betean, egoera hori onartezina da, batez ere kontuan izanda gabezia hori urte askoan jarri dela agerian, eta denbora nahikoa egon da hura konpontzeko.

Aurreko hori adibide bat baino ez da, eta agerian uzten du zein neurritan ez datozen bat arazoaren errealitatearekin eta tamainarekin genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari buruzko datu orokorrak.

Hori dela eta, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren erregistro eskusiboa sortzea proposatzen dugu. Erregistro hori operadore juridikoek erabiliko dute, baita Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek ere, eta Genero Indarkeriarako Gobernuko Ordezkaritzak zuzendu eta gainbegiratu luke. Erregistro horretan, estatistika sakabanatuetan eta gure ustez interesekoak diren beste batzuetan gaur egun kontuan hartzen diren aldagai guztiak bilduko lirateke.

Halaber, garrantzitsua da arlo honetan eragindako indarkeria-mota jakin batzuk banakatuta agertzea, delitu-tipologia zehatz batzuek dituzten arazoak zehatzago aztertu ahal izateko. Adibidez, etxeko indarkeriaren barruan, haurren eta gurasoen arteko indarkeria; eta, genero-indarkeriaren barruan, sexu-indarkeria edo adingabeen arteko genero-indarkeria.

Aurrekoarekin lotuta, deigarriak dira gizarteko sektore gazteenak (haurrak eta nerabeak) protagonista dituzten jokabide bortitzak.

Azkenaldian, inoiz ez bezala egin dute gora askotariko jokabide kezkarriek adingabeen artean, ez bakarrik adin penal nahikorik ez dutenen artean, baita 14 urtetik beherakoak izateagatik ezer leporatu ezin zaien adingabeen artean ere. Gurasoen aurkako era guztietako indarkeria (bereziki amen aurkakoa), beste adingabe batzuei taldean eragindako sexu-indarkeria, eta bikotekide adingabearen aurkako genero-indarkeria dira gainditu beharreko lagin kezkarria.

Administrazio publikoek ahaztu egiten dituzte adingabeak (nola biktimak hala biktimarioak), eta, nahiz eta azken urteetan aurrera egin dugun haiek eskubide osoko subjektutzat hartzen, oraindik bide luzea egin behar da.

Lehentasunezkoztat jotzen da aipatutako jokabideei arreta ematea, kontuan izanda adingabe horiek gure gizartearen etorkizuna direla.

Hori dela eta, genero-indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko kanpainak egin behar dira bereziki biztanle horiei zuzenduta, nagusiki teknologia berrien bidez, ezin baitugu ahaztu benetako "natibo digitalak" direla hartzaileak.

Bestalde, garatzen ari diren pertsonak dira; hori dela eta, lehenasunezkoa da genero-berdintasuna azpimarratzen duen hezkuntza-politika bat diseinatzea, ikuspegi bikoitzetik: trebakuntzari dagokionez, bai hezitzaileena, bai adingabeena; eta berariaz trebatutako langileak ikastetxeetan sartzeari dagokionez, estrategiak diseinatu ahal izan ditzaten, arazoei aurre egin ahal izan dieten eta arlo horretan konponbide zehatzak proposatu ahal izan ditzaten, jokabide bortitz horiek detektatzeko eta prebenitzeko neurri zehatzak aplikatuta.

Litekeena da oso nerabezaroan genero-indarkeria eragin duen adingabe batek gauza bera egitea helduaroan ere; hortaz, prebentzioari eta sentsibilizazioari esker soilik egin ahal izango diogu aurre adingabeek eta adingabeengan eragindako indarkeriaren arazoari.

Bitarteko pertsonal eta material gehiagoz hornitu behar da ATENPRO-ren arreta-zentroa, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko eta, aldi berean, bertako langileen trebakuntza handitzeko eta diziplinarteko talde gehiago sortzeko. Halaber, ATENPRO-k artatzen dituen kasuak berrikusi behar dira, zerbitzuarekiko gogobetetasun-maila eta, izan badira, zailtasunak ezagutzeko.

Salatu aurretik biktimei genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako ofiziozko lege-laguntza derrigor eman behar zaiela ezartzea, une honetan aukerakoa baita eta, batzuetan, polizia-funtzionarioaren borondate onaren araberakoa baita. Halaber, probintzietan genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren guardia egiten duten abokatuen kopurua handitu behar da, leku batzuetan bat edo bi baino ez baitaude lurralde zabalak estaltzeko; hobetu ere egin behar da operadore juridikoen trebakuntza: epaileak, polizia, abokatuak, fiskalak...

Biktimei babesa emateko eta erabakiak hartzen laguntzeko zerbitzuak hobetu behar dira; besteak beste, garraio segurua eta doakoa, itzulpen-zerbitzu integrala, kulturarteko bitartekoen esku-hartzea emakume migratzaileen edo legez kanpoko egoeran daudenen kasuan. Eta, biktimak bizilekua aldatzen badu, seme-alabak berehala eskolatzea.

Urte osoan zehar kanpainak prestatzea eta zabaltzea, etxeko indarkeria desagerrarazteko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-neurriei aldi batez eustearen esparruan. Komeni da kanpaina instituzional horiek urte osoan egitea eta, bereziki indartzea oporraldietan (Gabonetakoak eta udakoak), estatistiken arabera aldi horietan hiltzen baitira emakume gehiago genero-indarkeriagatik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan.

Horri dagokionez, talde guztietan jarri behar dute arreta kanpainak, bereziki talde ahulenetan; esaterako, adineko emakumeak, landaguneetan bizi direnak, desgaitasunen bat dutenak, haurdunak, migratzaileak, gutxiengo etnikoak (esaterako, emakume ijitoak, emagalduek, adikzioak dituztenak, GIB dutenak, etab.). Kanpaina horietan, argi eta garbi jaso

behar dira haien berezitasunak, biktimak identifikatuta senti daitezen.

Era berean, kanpainak agerian jarri behar dute emakume eta nesken aurkako indarkeria sinbolikoa, indarkeria horrek sendotu egiten baititu misoginia irauarazten duten aurreiritziak eta estereotipoak (adibidez, txistekin, abestekin, etab.).

Halaber, garrantzitsua iruditzen zaigu ohartaraztea emakume eta nesken aurka indarkeria erabiltzen duten gizonei zuzendutako kanpaina gehiago sustatu behar direla, genero-ikuspegidun "maskulinitate berriak" bultzatzeko asmoz.

Horrez gain, komenigarria litzateke demokrazia parte-hartzailea erabakitasunez sustatzen duten kanpainak ezartzearen alde egitea, eta etxeko indarkeriaren aurkako gizarte-konpromisoa eta ekintza kolektiboa indartzea.

Lankidetzeta-hitzarmenak sustatzea lineako zerbitzuen hornitzaile handiekin, emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria sustatzen duten profilak prebenitzeko eta haiei aurre egiteko. Hedabideek etxeko indarkeriari buruz eskaintzen dituzten albisteak eta informazioa egoki trata daitezen sustatzea, eta publizitateak "emakumea gauza ez bihurtzea".

Albisteei morbo guztia kendu nahi genieke, eta ahalik eta gehien ezagutarazi nahi genituzke emakume eta nesken aurka indarkeria erabili dutenei egokitu zaizkien epaiak.

Horri dagokionez, komenigarria litzateke Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioak pertsonak babesteko Itun Digitalarekin bat egitea. Ituna ekimen aitzindaria da, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak zuzentzen du, sareko indarkeria digitalari aurre egiteko asmoz. Halaber, #CanalPrioritario gure toki-administrazioetan zabaltzeko konpromisoa hartu behar dugu, herritarrengandik hurbilen dagoen elementu instituzionala baitira eta, ondorioz, haien behar eta eskaerak ongien ezagutzen dituztenak.

Era berean, komenigarria dirudi dokumentalak sortzea telebista-kanal generalistetan jartzeko. Dokumental horietan, genero-indarkeriatik bizirik atera direnek indarkeriarekin eta nork bere mugak gainditzearekin erlasionatutako beren "istorioa" konta dezakete, "indarkeriatik ere atera daitekeela" esateko modu eredugarri gisa.

Landaguneetan genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako protokolo espezifikoak egitea. Oso jakina denez, erronka demografikoak dituzten landaguneek hirialdeek baino zailtasun handiagoa dute botere publikoak genero-indarkeriaren biktimentzako babes integrala emateko antolatzen dituzten baliabide eta zerbitzuen sarea erabiltzeko. Udalerri txikietan, urruntze-aginduak nekez bete daitezke; hortaz, desiragarria litzateke, Landaguneetako Emakumeen Elkarten Federazioak (FADEMUR) proposatzen duen bezala, "erantzun berritzaileak ematea egoera bereziki konplexuei: emakume nekazariak eta abeltzainak, haien jarduera lurraldeari lotuta badago eta

eremu isolatuetan, arrisku-egoeran eta egun dauden bitartekoekin babesteko zailtasunekin lan egiten badute edo bizi badira; [halaber,] genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzua (ATENPRO) landaguneko emakumeentzat eskuragarriago egotea, eta ordezeko konponbideak bermatzea, halakorik behar izanez gero”.

Proposamen hori guztiz bat dator Genero Indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko Premiazko Neurrien Katalogoarekin. Izan ere, dokumentu horrek 8. atalean jasotzen du konpromiso hori, “Autonomia-erkidegoetako eta udaletako oinarritzko gizarte-zerbitzuak eta arreta espezializatuko zerbitzuak VIOGÉN sisteman sar daitezen sustatzea, biktimari eta haren funtsezko inguruneari buruzko informazio hurbila eta eguneratua eskaintzeko, arriskua eraginkortasunez baloratu eta eguneratze aldera” izenekoan. Era berean, 12. atalean (“ATENPRO zerbitzuaren hobekuntza”), nabarmentzen da beharrezkoa dela gaur egun aukera gehiago ematea zerbitzuan salaketarik gabe alta emateko eta askotariko eragile sozialei zerbitzuaren berri ematea; esaterako, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimantzako arreta-zerbitzuak, Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoak, polizia judiziala, epaitegiak, lehen mailako arretako zentroak, ospitaleak, biktimei arreta emateko bulegoak, baliabide espezializatuak, GKEak eta emakumeen elkarteak.

Aurrekoa kontuan hartuta, uste dugu bereziki garrantzitsua dela landaguneko emakumeen eta gutxiengo etnikoetako pertsonen elkarteen presentzia bermatzea (esaterako, emakume ijitoena), beren ingurune soziokulturala eta haren zailtasun bereziak ezagutzen dituztelako eta beren esperientzia erabil dezaketelako landaguneko emakumeek gainditu behar duten problematika berezia konpontzeko.

Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren forma desberdinen aurka jarduteko Protokolo Komuna eguneratzea. Kontziente izan behar dugu, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, emakumeen aurkako indarkeria, bere garrantziagatik eta bai biktimarengan, bai haren familian eta ingurunean oro har duen eraginagatik, “osasun publikoko arazo larria dela mundu osoan”, eta, askotan, osasun-arloko profesionalak ezagut dezakete ongien biktimen eta haien senideen egoera. Hori dela eta, oso garrantzitsua da etengabeko prestakuntza jasotzea, bai halako egoerak goiz detektatzeko (bereziki zaurgarritasun-arrisku handiagoko taldeei dagokienez, hala nola adineko emakumeak, landaguneetan bizi direnak, desgaitasunen bat dutenak —fisikoa, psikikoa edo sentsoriala—, haurdunak, migratzaileak, gutxiengo etnikoak, emagalduek, GIB dutenak...), bai osasunaren arreta integrala emateko (fisikoa, psikikoa eta soziala) eta kasuen segimendua egiteko. Hortaz, beharrezkoa da jarduteko protokolo espezifikoko eguneratuak izatea.

Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea 2007ko apirilean Genero Indarkeriaren Aurkako Osasun Jarduneko Protokolo Komuna argitaratu zela, batez ere emakumeen aurkako indarkeriako kasuetan jardun-ildo homogeneoak eskaintze aldera. Protokoloa 2012an eguneratu zen. Eta, nahiz eta aurrean (2023) Osasun Ministerioak “Sexu-indarkeriako kasuetan osasun-arloan nola jokatu finkatzeko SNS-ren Oinarritzko Jarraibide Komunen Gida” argitaratu duen eta haren I. eranskinak 2012ko protokolo horretako edukien zati handi bat

eguneratu duen, berrikusketa hori indarkeria sexualeko kasuetara mugatzen da, kontuan hartu gabe erasotutako salaketa jarri duen ala ez. Kontrara, ez da ezer eguneratu emakumeek jasan ditzaketen beste indarkeria-mota batzuetan (esaterako, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeria, aurrez aurrekoa edo onlinekoa).

Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar Espainiako Gobernuak genero-indarkeriaren arloko Estatu Ituna onartu zuela 2017an. Itun hartan, genero-indarkeriaren forma guztiak (sexu-indarkeria barne) desagerrarazteko egin behar diren erreforma nagusiak biltzen dira. Horrela, 3. ardatzean esaten da funtsezkoa dela biktimentzako laguntza eta babesa hobetzea, eta hau jasotzen du 185. neurrian:

“osasan-arloan halako egoerak goiz detektatzeko protokoloen prestaketa berrikustea eta sendotzea”.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu ospitale barruko eta ospitale arteko batzordeak edo lehen mailako arretako zentroak sortzea eta, behar izanez gero, sustatzea, laguntzaren koherentzia eta jarraitutasuna bermatzeko eta haien jardunen esparruan hauteman diren emakume eta nesken aurkako indarkeriako kasuen segimendua egiteko. Era berean, komenigarria litzateke ospitale barruko askotariko laguntza-mailek eta haren kanporakundeek elkarlan teknikoan aritzea, genero-indarkeria detektatzera eta artatzera bideratutako neurri espezifikoak eta jardunak garatzeko.

Nahiz eta osasun-zerbitzuek hainbat diziplinako profesionalak (erizaintza, gizarte-lana, psikologia, emaginak, fisioterapeutak) eta hainbat espezialitate medikotakoak (ginekologia, traumatologia, psikiatria, etab.) izan, haien guztiak ez daude osasun-zentro guztietan, eta, beraz, guztiak koordinatuta lan egin behar dute, 2007ko eta 2012ko genero-indarkeriaren aurka osasun-arloan nola jardun finkatzeko Protokolo Komunetan esaten den bezala. Halaber, bat dator Genero Indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko Premiazko Neurrien Katalogoko 4., 5., 14. eta 15. puntuekin.

Emakume eta neskei eragindako indarkeriaren aurkako borrokan diharduten eragile guztien jardunbide egokiak modu sistematizatuan biltzea eta jardunbide horiek eguneratuta agerian jartzea.

Genero-indarkeriaren arloan osasun-sistema nazionalean dauden jardunbide egokiak modu sistematizatuan biltzeko Osasun Ministerioaren webgune ofiziala kontsultatu ondoren, ondorioztatu da dauden datuak ez direla nahikoak eta zaharkituta daudela.

Ez da aurkitu tartean diren beste eragile batzuen jardunbide egokien katalogorik (esaterako, gizarte-zerbitzuenak).

Zehatz-mehatz aztertu behar dira genero-indarkeriagatik hildako emakume eta nesken aurrekariak, baita biktimak babesteko sistemaren indarguneak eta ahulguneak detektatzeko aurkeztutako salaketak ere. Horretarako, komenigarria litzateke

Estatuko erakunde eta botereei zuzenduta dauden Erakundearteko Koordinazio eta Jardun Protokoloak eguneratzeko eta hobetzeko gida bat prestatzea, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta haien kontra egiteko Europako Kontseiluaren hitzarmenean (2011) eta duela gutxi onartu den genero-indarkeriari buruzko araudian oinarrituta.

Biktimak berriro biktima ez izateko eta biktimei egoera horretatik ateratzen laguntzeko, premiazkoa da Genero Indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko Premiazko Neurrien Katalogoko 6. atala betetzea. Haren arabera, genero-indarkeriaren leihatila bakarra ezarriko da oinarritzko gizarte-zerbitzuen sarean eta administrazio publiko eskudunekin batera, hala nola delituen biktimentzako laguntza-bulegoak, irisgarritasuneko, moldagarritasuneko eta diskriminaziorik ezeko estandarren arabera, esku-hartzea eta laguntza soziala zentralizatzeko eta genero-indarkeriaren biktimen eta bizirauleen eskubideak bermatzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko. Besteak beste, hildako emakumeen senideei erreparazioa eta laguntza ematea, dauzkaten eskubideen berri emateko eta prozeduran laguntzeko: zurtasun-pentsioak eta -prestazioak, lehentasunezko laguntza psikologikoa, bekak, doluak, eta genero-indarkeriaren biktimek eta bizirauleek laguntza ekonomikoa, etxebizitza eta lan-eskubideekin lotuta egiten dituzten eskaerak bideratzeko lanak”.

Aurrekoaren arabera, eta kontuan hartuta ez dagoela genero-indarkeriaren biktimaren profil zehazturik eta biktimen beharrak desberdinak direla baldintza soziokulturalei, ekonomikoei, ahultasun berezikoei (esaterako, desgaitasuna, bizilekua, adinekoak...) edo haien guztien arteko interseksionalitateari erreparatuta, diagnostiko eta balorazio indibidualizatuak sustatu behar dira, jarraitu beharreko zerbitzuak/protokoloak kasu zehatzera egokitu daitezzen (eta ez alderantziz, gertatu ohi den bezala).

Gaspe eta nerabeen artean genero-indarkeria eta etxeko indarkeria saihesteko hezkuntza-programak egitea, bai hezkuntzako profesionalentzat, bai ikasleentzat, bereziki Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan, nola landagunean hala hirigunean, harreman-eredu sexistak baztertzen eta pertsonen arteko harreman osasuntsu eta positiboak ezartzen lagunduko dieten tresnak eskaintzeko. Hori guztia jasota geratzen da Genero Indarkeriaren aurkako Hobekuntza eta Modernizazio Planeko Premiazko Neurrien Katalogoan. Katalogoko 15. puntuak dio komenigarria dela “genero-indarkeria prebenitzeko eta detektatzeko, haren aurka jarduteko eta haren inguruan sentsibilizatzeko trebakuntza espezializatua indartzea, genero-indarkeriaren biktima eta bizirauleekin eta haien seme-alabekin harreman zuzena edo zeharkakoa duten talde profesionalei zuzenduta”.

Era berean, neurri hori bat dator arlo horretan ezarritako hainbat politika publiko estrategikorekin; besteak beste, hauek nabarmendu behar dira:



- a) Genero Indarkeriaren arloko Estatuko Itunean jardun-neurri hauek daude, besteak beste:
- Genero-indarkeria prebenitzera bideratutako ekintzak sustatzea: "isiltasuna urratzea: sentsibilizazioa eta prebentzioa".
  - Hezkuntzaren arloan, hau proposatzen da:
    1. 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurrienak (LOMPIVG), 3. artikuluan dioena zabaltzea, Genero Indarkeriaren inguruko Sentsibilizazio eta Prebentzio Plan Nazionala iraunkorra izan dadin.
    2. Azpibatzerdeari agintzea Hezkuntzaren aldeko Estatu Itun Sozial eta Politiko handi bat prestatzeko eta 1/2004 Lege Organikoaren 4. artikulua eraginkortasunez betetze aldera adostutako neurriak antolatzeko.
    3. Trebakuntza iraunkorrean ekintza positiboak sartzeko aukera baloratuko da, berdintasunezko balioak sustatzeko.
- b) Osasuneko, Kontsumoko eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren Osasun Publikoko, Kalitateko eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiaren Sexu eta Ugalketa Osasunaren Estrategia Nazionalak eta Sexu Osasuneko Estrategiaren Plan Operatiboak (2019-2020) jarduera hauek aipatzen ditu 1. arloan "sexu-osasuna sustatzeari" buruz: hezkuntza-sektorearekiko koordinazioa sendotzea, sexualitateari buruzko hezkuntza etapa guztietako curriculumean txertatzeko.
- c) 10/2022 Lege Organikoak, irailaren 6koak, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoak, hau dio: "babes integraleko eta prebentzioko neurrietan jarri beharko da arreta; neurri horiek herritarren sentsibilizatorako eta prebentziorako neurriak indartzera bideratuta egongo dira, eta sentsibilizazio- eta trebakuntza-politika eraginkorrak sustatuko dira hainbat arlotan, hala nola hezkuntzakoan eta lanekoan, digitalean, publizitatekoan eta hedabideetakoan".

Datuen estrategia bat prestatu behar da landaguneko emakumeak ikusgai jartzeko; gai hori bereziki premiazkoa da, biztanle gutxieneko udalerrietan genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari buruz dauden estatistikak eta datuak kontuan hartuta. Askotan, landagunearen kontuak errealitate ikusezina izaten jarraitzen du botere publikoentzat. Nahikoa da Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak landagunearen kontuari buruz egindako azken txostena xehetasun apur batez aztertzea premisa hori egiaztatzeko: "Dauden datu ofizialek ez dute uzten landaguneetako eskolatze-tasak zein diren jakiten uzten ere, (...) nahiz eta oso garrantzitsua izan landaguneetako menpeko biztanleentzako arreta, Autonomiarako eta Menpekotasunaren Arretarako Sistemako Informazio Sistemak ez du segmentu horren

bolumenari eta profilari buruzko daturik ematen aldizkako bere estatistiketan, ezta Menpekotasunaren Arretarako eta Laguntzarako Sistemak landaguneetan ematen duen arretaren helmenari buruzkorik ere. Horrek izugarri zailtzen du Estatuak arlo horretan ematen duen babesa baloratzea, eta oso oztopo handia da beharren ebaluazioan eta beharbada hirietakoa baino ugariagoa izan daitekeen biztanleriaren zati baten eskaerei erantzuteko baliabideen esleipenean.

Landaguneetako errealitateari sistematikoki ez ikusiarena egitea bereziki zaila da botere publiko nagusien eskuetan dauden genero-indarkeriari buruzko estatistiken eta datuen kasuan. Horrela, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak argitaratutako Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko azken Makroinkestan ez daude inola ere jasota 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei buruzko daturik, nahiz eta Espainian bikotekideek edo bikotekide ohiek hildako emakumeen % 73 baino gehiago dentsitate demografiko hori zuten udalerrietan bizi ziren.

Halaber, harrigarriak dira 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi diren eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei buruzko erreferentziak. Emakume horiek hein txikiagoan jotzen dute poliziarengana edo epaitegietara (% 29,4), 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi diren eta halako indarkeria jasan duten emakumeek baino (% 33,2), baina ez dira aipatzen portzentaje txikiago horren atzean dauden faktore erabakigarriak; esaterako, genero-indarkeriaren biktimenezako larrialdi- eta arreta-zerbitzuen sare nahikorik ez izatea, landaguneetako emakumeek biktimizazio eta estigmatizazio handiagoa jasatea, edo tipologia horretako egoerei erantzun integrala emateko sistemaren parte hartzen duten funtsezko eragileen trebakuntzarik eta gaikuntzarik ez izatea.

Informazioa aztertuz eta zabalduz azterketak eta ikerketak hobetzeko eta gizarte-kontzientziazio handiagoa izateko, jendearentzat oro har eskuragarri dauden datuek eguneratuta egon behar dute, eta udalerrien tamaina aipatu behar dute (adibidez, 250 biztanle baino gutxiagoko udalerririk txikiak, 251 eta 500 biztanle artekoak, 501 eta 1.000 biztanle artekoak; 1.001 eta 2.000 biztanle artekoak), biktimek dituzten zailtasunak desberdinak baitira lurraldean erroldatutako biztanle-kopuruaren arabera, nola indarkeria detektatzeko hala, esan den bezala, dauden baliabideak erabiltzeko eta, hala badagokio, babesa lortzeko aukera bermatzeko, landaguneko genero-indarkeriaren fenomenoaren ezagutze aldera.

Taldearen esperientzian eta ezagutzan oinarrituta, hauek dira gure ustez proposamen eta ekintza garrantzitsuenak etxeko indarkeriaren kudeaketarekin, prebentzioarekin eta esku-hartzearekin zerikusia duen guztian. Uste osoa dugu, haiek ezarriz gero, modu esanguratsuan hobetuko litzatekeela berdintasuna, baita genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimenezako arretarekin zerikusia duen guztia ere.

## 4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

Dagoen literaturaren arabera, arriskua baloratzea oso estrategia baliagarria da etxeko indarkeriako jokabideak prebenitzeko. Zehazki, halako jokabideak edo etorkizunean gorabeheraren bat gertatzeko probabilitatea kalkulatu, biktimizazioa murrizten edo desagerrarazten lagunduko duen esku-hartzea diseinatzeko adierazleak detektatu ahal izango da, besteak beste.

Txosten honen bidez, Espainian arriskua ebaluatzeko erabilgarri dauden tresna nagusietako batzuk aztertzen dira; besteak beste, VRAG -Violent Risk Appraisal Guide (Harris, Rice eta Quinsey, 1993); HCR-20 -Assessing Risk for Violence (Webster, Douglas, Eaves eta Hart, 1997); PCL-R - Psychopathy Checklist-Revised (Hare, 1991); SARA -Spousal Assault Risk Assessment Guide (Kropp, Hart, Webster eta Eaves, 1995); EPV - Escala de Predicción de Riesgo de Violencia Grave contra la Pareja (Echeburúa, Fernández-Montalvo, Corral eta López-Goñi, 2009); SVR-20

-Guide for Assessment of Sexual Risk Violence (Boert, Hart, Kropp eta Webster, 1997); SAVRY - Structured Assessment of Violence Risk in Youth (Borum, Bartel eta Forth, 2003). Tresna horiek aztertzeak bi helburu ditu: arriskua baloratzeko tresna bat diseinatzea ATENPRO zerbitzuarentzat, eta esku hartzeko neurriak antolatzeak aukera emango duten gomendioak edo adierazleak eskaintzea.

Horrenbestez, txosten honetan proposatzen den emakumeen aurkako indarkeriaren diagnostikoa egiteko galdetegi/tresna lokalarekin batera, etxeko indarkeriaren biktimen diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa eskaintzen du.

Pertsonen arteko eta etxeko indarkeriako arriskuaren ebaluazioa indarkeriaren prebentzioaren eta biktimen babesaren funtsezko alderdia da (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; Hart, 1998; Nicholls *et al.*, 2013; Singh *et al.*, 2011). Gaur egun, gizarteak gero eta gehiago eskatzen du indarkeria murriztea edo desagerraraztea, bereziki zenbait mota; esaterako, genero-indarkeria eta etxeko indarkeria. Hori dela eta, profesionalek prebentzio-estrategia berriak txertatu dituzte; besteak beste, arriskuaren ebaluazioa (Andrés-Pueyo, 2017). Lege- eta zigor-arloetan, arlo zibilean eta auzitegi-psikologiaren arloan, portaera bortitza gertatzeko arriskua edo probabilitatea kalkulatzeko oso baliagarria izan daiteke (Ballesteros *et al.*, 2006; Ogloff eta Davis, 2020), biktimizazioa murrizten edo desagerrarazten lagunduko duen esku-hartzea diseinatzeaz gain, neurri judizialak, zigor-neurriak edo neurri klinikoak hartzea ere ahalbidetuko baitu, kalkulatuak arriskuaren arabera (Nicholls *et al.*, 2013).

Nazio Batuek, Osasunaren Mundu Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek esandakoaren arabera, mundu osoko 640 milioi emakumek jasaten dute edo jasan dute indarkeria beren bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik (OME, 2021; NBE Emakumeak). Ondorioz, 158 herrialdek onartu dituzte etxeko indarkeriari buruzko legeak eta neurriak (NBE Emakumeak, 2023). Sanz-Barberoren eta haren lankideen lanak (2019) aurkitu zuen, 2010-2011 aldian, bikotekidearen (edo antzekoaren) eskuetan hildako 135 emakumetatik laurden batek erasotzailea salatu zuela eta kasuen % 54an babes-neurriren bat zuela. Kasuen % 11,5ean soilik pentsatu zen beste indarkeria-egoera bat gertatzeko arriskua handia edo oso handia zela. % 46,1en, arriskua txikia zela edo arriskurik ez zegoela baloratu

zen. Bestetik, eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak (DGCVG, 2023a) emandako datuen arabera, 2003tik (hots, erakundea hildakoen kopurua erregistratzen hasi zenetik) 2023ko uztailaren 10era bitartean, guztira 1.212 emakume hil zirela bikotekideen eta bikotekide ohien eskuetan. 2012tik, indarkeria-mota hori modu zehatzagoan erregistratzen hasi zirenean, guztira 604 hildako kontabilizatu dira guztira; haietatik 149k salaketa bat edo gehiago zituzten, 129 biktimek jarriak, eta 20 hirugarrenen jarriak, eta 97k babeste-neurriak zituzten. Era berean, 53 kasutan, urruntze-neurriak urratu ziren (DGCVG, 2023b).

Arreta-zerbitzuek ere informazioa ematen dute era horretako indarkeriaren biktima izan daitezkeen emakumeen kopuruari buruz. 2005etik 2023ko maiatzaren 31ra bitartean, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta eta Babesa Emateko Telefono Zerbitzuak (ATENPRO) 35.668 emakumeri eman die alta. Era berean, Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko Informazio eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak (016) guztira 1.180.282 dei jaso ditu 2007ko irailean martxan jarri zenetik 2023ko maiatzaren 31ra arte bitartean (DGCVG, 2023c).

Hala ere, etxeko indarkeriak ez die soilik emakumeei eragiten. Testuinguru horretan, Genero Indarkeriari buruzko Estatuko Legeak uste du emakumearen aurkako indarkeria-egoerak familia-ingurunean dauden adingabeei ere eragiten dietela, eta, beraz, biktima zuzentzat hartzen dira (1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriena, 2004). 2017ko irailean sinatu zen Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak adingabeak are gehiago artatzeko eta babesteko neurriak biltzen ditu berariaz 4. ardatzean, indarkeriaren biktima zuzenak baitira. Ondorioz, haiek artatzeko eta babesteko neurriak areagotu eta hobetu behar dira (Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna, 2019). 2013tik 2023ko maiatzaren 31ra bitartean, guztira 399 adingabe umezurtz kontabilizatu dira; haien ama bikotekideen edo bikotekide ohien eskuetan hil dira. 49 adingabe amaren bikotekideak edo bikotekide ohiak hil zituen (DGCVG, 2023d).

Oro har, indarkeria-egoerak biztanleriaren portzentaje txiki batean biltzen dira, baina gertaera bortitz batean baino gehiagotan egon ohi dira (Monahan *et al.*, 2001). Pertsonen arteko harremanetako eta bikote-harremanetako jokabide bortitzak berriro gertatu ohi dira, denboraren poderioz larriagotu eta maiztu egiten dira, eta bereziki mehatxatzaileak bihurtzen dira biktimak bikotekidea uzten duenean edo uzten saiatzen denean edo salaketa bat jartzen duenean (González *et al.*, 2018; Nicholls *et al.*, 2013). Bestalde, pertsonen arteko indarkeria selektiboa (alegia, biktima zehatz baten aurkakoa, ez ausazkoa) ulergarria izan daitekeen prozesu kognitibo eta konduktual baten emaitza da, eta ez da bat-batekoa; kasu askotan, planifikatu egiten da, eta, beraz, saihestu edo prebenitu daiteke (Borum *et al.*, 1999). Horrenbestez, etorkizunean gorabehera bortitz bat izateko arriskua edo probabilitatea kalkulatzeko gai izateak lege- eta gizarte-inplikazio nabarmenak ditu (Ogloff eta Davis, 2020).

Indarkeria-arriskua ebaluatzeko, teknika eta prozedura ugari daude, eta askotariko profesionalek erabil ditzakete indarkeria selektiboaren arriskuak identifikatzeko, ebaluatzeko eta kudeatzeko eta haien inguruan erabakiak hartzeko (Andrés-Pueyo, 2017; Fein *et al.*, 1995). Tresna horiek lagungarriak gerta dakizkiguke ez bakarrik beste abusu-egoera bat gertatzeko probabilitatea zehazteko, baita abusua egin den modua eta haren larritasuna zehazteko ere, hura prebenitzeko edo kaltea murrizteko (Nicholls *et al.*, 2013), eta baliagarriak izan daitezke testuinguru juridiko, penal edo asistentzialetan (Echeburúa eta Fernández-Montalvo, 2009; Echeburúa *et al.*, 2009). Arriskuaren ebaluazioaren gaur egungo ikuspegia 1990eko hamarkadan sortu zen (Borum *et al.*, 1999; Loinaz, 2017; Ogloff eta Davis, 2020). Azken bi hamarkadetan, aurrerapena izan da jokabide bortitzaren iragarpenean, indarkeriaren izaera eta prozesuak hobeto ezagutzen direlako, arriskugarritasunaren kontzeptuaren ordez (arreta ezaugarri indibidualetan eta estatikoetan jartzen duena) indarkeria-arriskuaren ikuspegia txertatu delako, eta balorazio-tresna eta -protokolo berriak agertu direlako (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; Echeburúa *et al.*, 2010; Horcajo-Gil *et al.*, 2019; Ogloff eta Davis, 2020); tresna eta protokolo horien bidez, kalkulu doiak egiteaz gain, esku hartzeko neurriak antolatzeke adierazleak eta gomendio zehatzak eman ere egiten dira.

Hala ere, hainbat egilek dioten bezala, ez da erraza pertsonen arteko indarkeria-arriskua ebaluatzea (Andrés-Pueyo, 2017; Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; Nicholls *et al.*, 2017; Quinsey *et al.*, 1998). Zailtasunetako batzuek hauekin dute zerikusia: a) indarkeria eta indarkeria-motak azal ditzaketen kausen eta arrisku-faktoreen ugaritasuna (hain zuzen ere, etxeko indarkeriak iragarle espezifikoak ditu); b) lan gehienak Ipar Amerikako eta Europako biztanleen lagin oso zehatzekin egin dira; eta c) profesionalek tresna behar bezala aukeratzea, eta gaitasunak eta esperientzia ere izan behar dituzte, behar bezala aplikatzeko (Andrés-Pueyo, 2017; Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; Nicholls *et al.*, 2017; Quinsey *et al.*, 1998). Loinazen (2017) arabera, indarkeria-arriskua behar bezala ebaluatzen duen eta iragartzeko ahalmena duen tresna batek bi ezaugarri izan behar ditu: sentikortasuna (ondo detektatzen ditu arriskua duten kasuak eta positiboak direnak) eta espezifikotasuna (berrerortzen direnak eta gainerakoak bereizten ditu). Halaber, esanguratsua da tresnak indarkeriaren izaera ulertzen eta arriskua formulatzeko informazioa antolatzen laguntzea.

Gure herrialdean, indarkeria-arriskua ebaluatzea zuzenduta dauden eta testuinguru polizialeetan, judizialeetan, zigorretakoan, auzitegikoak edo laguntzakoetan baliagarriak izan daitezkeen tresna batzuk egokitu edo garatu dira. Etxeko indarkeriako arriskua ebaluatzeko tresna bat sortzen laguntzeko, komenigarritzat jo dugu zehatz-mehatz aztertzea Espainian erabilgarri dauden arriskua baloratzeko tresna batzuk.

**HELBURUA:**

Lan honen helburua da gure herrialdean eskuragarri dauden indarkeria-arriskua ebaluatzeko tresna nagusietako batzuk aztertzea, ATENPRO zerbitzuari arriskua baloratzeko tresna bat emateko.

Hain zuzen ere, tresna horien gaztelaniazko bertsioak aztertu ziren:

- VRAG - *Violent Risk Appraisal Guide* (Harris et al., 1993).
- HCR-20 - *Assessing Risk for Violence* (Webster et al., 1997).
- PCL-R - *Psychopathy Checklist-Revised* (Hare, 1991).
- SARA - *Spousal Assault Risk Assessment Guide* (Kropp et al., 1995).
- EPV - *Escala de Predicción de Riesgo de Violencia Grave contra la Pareja* (Echeburúa et al., 2009).
- SVR-20 - *Guide for Assessment of Sexual Risk Violence* (Boer et al., 1997).
- SAVRY - *Structured Assessment of Violence Risk in Youth* (Borum et al., 2003)

Helburu orokor hori erdiesteko, zenbait helburu espezifiko proposatu ziren:

- Tresna bakoitza aurkeztea eta deskribatzea, eta hura sortzeko eta gaztelaniara egokitzekeo testuinguruari buruzko datuak ematea.
- Hautatutako tresnen tipologia berrikustea.
- Tresnen helburuak alderatzea.
- Itemak eta haietako edukia aztertzea.
- Tresnek ematen duten emaitza aztertzea.
- Haien aplikatzearekin erlazionatutako alderdiak aztertzea.
- Arriskuaren balorazio-eskala bat prestatu aurreko gomendioen zerrenda bat sortzea.

## METODOA

### Aztertutako tresnak:

Indarkeria-arriskua ebaluatzeko Espainian erabilgarri dauden tresna nagusietako batzuk aztertu dira. Hain zuzen ere, tresna hauen bertsio egokituak: VRAG (Harris *et al.*, 1993), HCR-20 (Webster *et al.*, 1997); PCL-R (Hare, 1991), SARA (Kropp *et al.*, 1995), EPV (Echeburúa, Fernández-Montalvo, Corral eta López Goñi, 2009), SVR-20 (Boer *et al.*, 1997); SAVRY (Borum *et al.*, 2003). Jarraian, tresna horietako bakoitza aurkezten da:

**PCL-R - Psychopathy Checklist Revised** (Hare, 1991, 2003). Tresna honek elkarrizketak bideratzeko gida-eredu bat du, baita 20 item ere hainbat testuingurutan (espetxeak, medikuntza, auzitegi-medikuntza eta ikerketa) psikopatiaren konstruktua ebaluatzeko. Item horiek psikopatiaren konstruktua osatzen duten nortasunaren ezaugarri nagusiei buruzko literaturaren berrikuspenetik sortzen dira (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; Hare, 2003). Elkarrizketa erdiegituratu bat erabiltzen du, baita beste informazio-iturri batzuk ere, hala nola txosten edo dokumentu ofizialak, psikopatiaren alderdi bereizgarriak ebaluatzeko asmoz (Hare, 2003). Tresna hau indarkeria-arriskua ebaluatzeko erabiltzeari dagokionez, hauxe aitortzen du tresnaren eskuliburuak berak (Hare, 2003):

PCL-R tresna ezin da izan banako bati buruzko erabakiak hartzeko edo buruko osasunaren edo justizia penalaren sistemetan xedapenak prestatzeko irizpide bakarra (...), beste iturri batzuetatik, beste neurketa-tresna batzuetatik eta behaketa zuzenetatik lortutako informazioa kontuan hartuta egin behar litzateke interpretazioa (38. or.).

Jatorrian ez denez indarkeria-arriskua ebaluatzeko tresna bat, aurretik egindako lanek aurkitu dute tresna horretako puntuazioak neurrian jartzen direla korrelazioan aurreko laginetako delituzko jokabideekin eta jokabide antisozialekin eta erabilgarria izan daitekeela tratu txarrak ematen dituzten gizonen laginekin, baldin eta kontuan hartzen badira beste neurri eta aldagai batzuk, tratu txarrak ematen dituzten guztiek ez baitituzte puntuazio handiak lortzen psikopatian (Hare, 2003; Nicholls *et al.*, 2013). Hain zuzen ere, PCL-R tresna indarkeria-arriskua ebaluatzeko beste tresna batzuetan erabiltzen da; esaterako, *Domestic Violence Risk Appraisal Guide* (Hilton *et al.*, 2008) eta *Historical-Clinical-Risk Management (HCR-20)-Assessing Risk for Violence* (Webster *et al.*, 1997).

Tresna honek Psychopathy Checklist-ean du jatorria (Hare, 1980; hemen aipatua: Hare, 2003); hark ikerketa-testuinguruan ebaluatu nahi zuen psikopatia. Gainera, aldaerak daude, hala nola *Hare Psychopathy Checklist: Screening Version* (PCL: SV; Hart *et al.*, 1995), ez-gaizkileekin erabiltzeko, eta *Hare Psychopathy Checklist: Youth Version* (PCL: YV; Forth *et al.*, 2003).

Eskala horren Espainiako egokitzapena 2003ko edizioan egin zen (PCL-R, 2nd edition). Egileak dioen bezala (ikus Hare, 2003), bigarren edizio hori ez da itemen berrikusketa sakon bat, baizik eta tresna hori erabiltzeari, aplikatzeari eta biztanle-talde zehatzetara (esaterako,



emakumeak edo gaizkile sexualak) orokortzeari buruzko informazioa zabaltzea du helburu.

Jatorrizko PCL-Ro tresnaren baliozkotasuna askotan ebaluatu da biztanle-lagin batzuetan (batez ere gizon gaizkileak, substantziak kontsumitzen dituzten emakumeak, gizonezko gaixo psikiatrikoak) eta badira itxuraz eskalaren baliozkotasuna eta bi faktoreko egitura egonkorra bermatzen duten frogak (ikus Hare, 2003). Espainiaki egokitzapenaren kasuan, baliozkotze-azterketa bat egin zen Castellóko eta Bartzelonako espetxeetan zeuden 117 gizonekin. Itemen eta puntuazio osoaren arteko korrelazioak, oro har, 0,30etik gorakoak izan ziren, eta faktore bakoitzaren puntuazioari eta puntuazio osoari dagozkion Cronbachen alfa-koefizienteeak 0,70eko balioa gainditu zuten. Horrela, egileek ondorioztatu zuten Espainiako egokitzapenak konstruktua koherente eta homogeenoa bat ebaluatzen zuela. Epailen arteko fidagarritasuna ere handia izan zen (Hare, 2003; Moltó *et al.*, 2000). Análisi faktorialak bi faktoreko ebazpena eman zuen; bi faktore horiek PCL-R tresnaren bariantzaren % 28,9 eta % 13 azaltzen du; horrek agerian uzten du eskalaren dimentsio bakarra. Faktoreen eta puntuazio osoaren arteko korrelazioak 0,75 eta 0,86 izan ziren. Faktore horiek modu esanguratsuan jarri zituzten korrelazioan beste pertsonalitate-eskala batzuk; besteak beste, PCL:SV, *Escala de Trastorno Antisocial de la Personalidad* (ETAPA) eta *Minnesota Multiphasic Personality Inventory* (MMPI) izenekoaren Desbideratze Psikopatikoaren eta Hipomaniaren eskalak. Baliozkotasun egokia erakusten dute (Hare, 2003).

**Historical-Clinical-Risk Management (HCR-20)-Assessing Risk for Violence** (Webster *et al.*, 1997). Delinkuentziako eta pertsonen arteko indarkeriako arriskua ebaluatzeko gida gisa sortu zen; munduan gehien erabiltzen den tresnetako bat da, eta 16 hizkuntzatarara baino gehiagotara itzuli da (Arbach-Lucioni eta Andrés-Pueyo, 2016; Douglas eta Reeves, 2010; Nicholls *et al.*, 2013; Wilson *et al.*, 2016). Hainbat testuingurutan erabil daiteke; besteak beste, psikiatrikoa, zibila, forentsea eta espetxeetako. 20 arrisku-faktore jasotzen ditu (iraganekoak, oraingoak eta etorkizunekoak), aurreko literaturatik eta adituei galdetuta ateratakoak (Arbach eta Andrés-Pueyo, 2007; Hilterman eta Andrés-Pueyo, 2005). Tresna honen helburua da ebaluazio egituratu bat ematea, kontuan hartuta kasu edo erasotzaile jakin batean agertzen diren arrisku-faktoreak, banako baten indarkeria-arriskuan faktore horiek duten presentzia eta garrantzia, eta arriskua murrizteko abian zer neurri jar daitezkeen (Douglas eta Reeves, 2010). Denboraren poderioz alda daitezkeen faktoreak jasotzen dituzenez, ebaluazio errepikatuak egin daitezke oraingo eta etorkizuneko faktoreetan gertatzen diren aldaketan arabera (Douglas eta Webster, 1999). Tresna hau berrikusi da, eta hirugarren edizioa du (HCR-20V3, Douglas *et al.*, 2013); fidagarritasun egokia du hainbat herrialdetako laginekin, hala nola Suedia, Kanada eta AEB (Prieto-Macías *et al.*, 2020). Singhen eta haren lankideen lanean (2011) aurkitutako batez besteko gaitasun iragarlea 0,70ekoa izan zen.

Gaztelaniarako itzulpena eta egokitzapena Hiltermanek eta Andrés-Pueyok (2005) egin zuten, "aurretik jokabide bortitzak izan dituzten eta gaixotasun mentala edo nortasunaren nahasmendua pairatzeko probabilitate handia duten" pertsonekin erabiltzeko (5. or.), nahiz eta beste testuinguru batzuetan ere aplikatu ahal izango lirartekeen. Geroagoko lanek erakusten dute eskalaren sailkapen-ahalmena ausaz

espero litekeena baino handiagoa dela eta % 75-77 ingurukoa dela gaixo psikiatrikoen laginetan (Arbach eta Andrés-Pueyo, 2007). Prieto-Macías *et al.*-ek (2020) metaanlisi bat egin zuten tresna hainbat hizkuntzatan (gaztelania barne) eta jatorrizko bertsioan eta ondorengoetan erabili duten 19 lanekin. Metaanlisi horretan esaten da tresna fidagarri bat dela espetxe-laginekin erabiltzeko.

**VRAG -Violent Risk Appraisal Guide** (Harris *et al.*, 1993): Tresna hau testuinguru forentsetan, espetxeetakoetan eta klinikoetan erasotzaileek berrerortzeko duten probabilitatea iragartzeko diseinatu zen, eta berrerori ziren gizon bortitzen taldeak (n=191) eta berrerori ez ziren gizonen taldeak (n=427) alderatu zituen aldagai iragarle desberdinetan, hala nola eskola-historia, alkohol-kontsumoa, jokabide-arazoak, aurreko erasoaren edo erasoen seriotasuna, etab. Azkenik, guztira 12 aldagai hautatu ziren zergatik berrerori ziren azaltzeko. Singhen eta haren lankideen lanean (2011) aurkitutako batez besteko gaitasun iragarlea 0,74koa izan zen.

Tresna hau eta Autobalorazioko Galdetegia (SAQ- *Self Appraisal Questionnaire*, Loza, 1996; hemen aipatua: Ballesteros *et al.*, 2006) Ballesteros *et al.*-ek (2006) egokitu zuten gaztelaniara, Espainiako espetxeratuaren artean "delituak iragartzeko tresna fidagarri eta baliozkoen kopurua" (106. or.) handitzeko. Horretarako, itzulpen- eta egokitzapen-prozesua egin zen; hasteko, azterketa pilotu bat egin zen, eta, gero, beste lan bat, tresnaren baliozkotasunaren eta fidagarritasunaren adierazlean lortzeko, Madrilgo Erkidegoko bi espetxetako 138 preso osatutako lagin batean oinarrituta. Akordioaren bidez lortutako preso-ebalutzaile arteko fidagarritasuna (kappa) 0,80koa izan zen, jatorrizko eskalakoaren antzekoa. Era berean, tresnak doitasun iragarle ona izan zuen (ROC arloa = 0,74) eta SAQ eskalarekiko korrelazioa 0,64koa izan zen.

**SARA -Spousal Assault Risk Assessment Guide** (Kropp *et al.*, 1995). Eraginkortasunaren balorazio egiaztatuko tresna gisa argitaratzen da (0,82ko AUC), bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurka indarkeriako larriko arriskua baloratzeko, funtsean indarkeria fisikoari eta sexualari dagokienez (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; Hilton eta Ennis, 2020), auzitegi-medikuntzan, espetxeetan eta arlo klinikoan erabiltzeko. Gida hau berez Kanadan diseinatu zen, eta nazioartean erabilienetako bat da bikote-harremanetako indarkeriako kasuetan (Hanson *et al.*, 2007), gutxienez 10 hizkuntzatarara itzulita baitago eta herrialde askotan ebaluazio-tresna gisa erabiltzen baita (Kropp eta Gibas, 2010). Haren itemak garatzeko, literatura klinikoa berrikusi zen, baita bereziki bikote-harremanetan indarkeria-arriskua aztertzeko ikerketa ere (Andrés-Pueyo *et al.*, 2008). Azken horretan, gizon erasotzaileak eta ez-erasotzaileak bereizten zituzten arrisku-faktoreak zehaztu nahi izan ziren (Hotaling eta Sugarman, 1986). Gero, tresnaren fidagarritasuna eta baliozkotasuna ebaluatu zen, gizon heldu gaizkileen lagin bat zerabilen azterketa baten bidez (n=2.309). Lagin horretako gizonetako batzuk baldintzapeko askatasunean zeuden (n=1.671), eta beste batzuk, berriz, espetxeratuak ziren (n=638). Tresnak baliozkotasun bateratu eta diskriminatzaile ona erakutsi zuen (Kropp *et al.*, 1993). SARA azken tresna 20 itemek osatzen dute, eta haren fidagarritasun estrukturala Testen Teoria Klasikoko indizeen arabera ebaluatu zuen. Hiru azterketa bereizi egin ziren SARA sailkapenaren irizpide-baliozkotasuna aztertzeko. Singhen eta haren lankideen lanean (2011) aurkitutako batez besteko gaitasun iragarlea 0,70koa izan zen.

Tresnaren bigarren bertsioaren 1995eko gaztelaniarako egokitzapena Lópezek eta Andrés-Pueyok egin zuen (2005; hemen aipatua: Andrés-Pueyo *et al.*, 2008), eta, gero, Espainiako testuinguru juridiko eta kriminologikora nola egokitzen den egiaztatzeko (Andrés-Pueyo *et al.*, 2008). Horretarako, 2004an eta 2005ean Bartzelonako zigor-arloko epaitegietan eta Probintzia Auzitegian bikotekideei edo bikotekide ohiei zabaldutako espediente judizialak eta jarritako salaketei buruzko adituen txostenak aztertu ziren. Bikotekideak (n=102) eta subjektuak (n=204) berezi ziren, eta 12 hilabeteko segimendua egin zen SARA tresnaren Espainiako egokitzapenaren ahalmen iragarlea baloratzeko. Hasierako 20 item berrikustez gain, datuak biltzeko protokolo bat sortu zen bikote-harremaneko indarkeria-arriskuarekin erlazionatuta azkenaldiko literatura zientifikoan identifikatu diren beste faktore batzuk kontuan hartuta (Stith *et al.*, 2004); horrela, berariaz SARA tresnan jasotako parametroak zabaldu ziren.

**EPV-R -Escala de Predicción de Riesgo de Violencia Grave contra la Pareja** (Echeburúa *et al.*, 2009). Tresna hau Espainiako testuinguruan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria larriko arriskua baloratzen duen tresna gisa diseinatu zen (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010), eta polizia-arloan, arlo judizialean, espetxe-arloan, auzitegi-medikuntzan eta laguntza-arloan erabiltzeko. 20 itemez osatuta dago, eta indarkeria-arriskua iragartzeko aukera ematen dien hainbat profesionali. Horrela, biktimei zuzendutako neurriak har daitezke lehenengo salaketa egiten denean. Eskala hori Euskal Herrian salatu diren bikote-harremanetako erasotzaileei aplikatu zaie; detektatu da item guztiek ez dutela ahalmen berezile bera eta agerian geratu da puntuazio osoa interpretatzeko zailtasuna eskala osagabeak daudenean (Echeburúa *et al.*, 2010). Ondorioz, azterketa bat egin zen, eta haren helburua izan zen EPV-ren bertsio berrikusia eskaintzea, eskalaren propietate psikometrikoak deskribatzeko eta berrikusteko. Horretarako, salatutako bikotekide-erasotzaileen 450 espediente aztertu ziren. Azterketa horren harira, eskala labur erabilerraz bat lortu zen. Jatorrizko eskalako 20 itemak mantentzen zituen, baina item bakoitzari puntuazio bereizia esleitzen zion, arriskua ebaluatzeko gaitasunaren arabera. Barne-koherentzia (Cronbachen alfa = 0,72) eta epaileen arteko fidagarritasuna (r=0,73) onargarrizatz jo ziren (Echeburúa *et al.*, 2010).

*Valoración Policial del Riesgo de Violencia contra la Mujer Pareja en España – Sistema VioGén* txostenean (González *et al.*, 2018) esaten denez, “eskala egokia da biktimekin lan egiten profesionalek erabiltzeko, eta erabilgarria da babes-neurriak planifikatzeko” (35. or.).

EPV-R tresna beste testuinguru batzuetara egokitu da (esaterako, Kolonbiakoa edo Mexikokoa), eta eskala egokitu horiek barne-koherentzia ona (Cronbachen alfa = 0,89 eta 0,79, hurrenez hurren) eta fidagarritasun-indize altua lortu dute; horrenbestez, tresna egokia bihurtu dira testuinguru horietan bikotekidearen aurkako indarkeria larriko egoera iragartzeko (Reveles *et al.*, 2020; Rudas *et al.*, 2016).

**SVR-20 -Guide for Assessment of Sexual Risk Violence** (Boer *et al.*, 1997). Iritzi klinikoan edo profesionalean oinarritutako gida egituratu bat da, eta mota horretako delituak egin dituzten helduengan sexu-indarkeriako arriskua ebaluatzen du. Iritzi profesional egituratuan oinarrituta sexu-indarkeriako arriskua ebaluatu zuen lehenengo tresna izan zen (Loinaz, 2017),

eta erabilienetako bat da (Hanson eta Morton-Bourgon, 2009) auzitegi-medikuntzan, espetxeetan, arlo klinikoan eta ikerketan. Hautatutako itemak sexu-indarkeriako profesional eta adituen ikerketa zientifikoaren eta praktika klinikoaren emaitza dira, baita aurreko tresnen berrikuspenarena ere, hala nola *Spousal Assault Risk Assessment Guide* (SARA) eta HCR-20. 20 arrisku-faktore estatiko eta dinamiko jaso dira, eta ebaluatzailearen iritzian oinarritzen den eta baxua, ertaina edo altua izan daitekeen ebaluazio globala da emaitza. Arrisku-faktore horietako bat psikopatia da, eta PCL-R tresnaren edo PCL-SV bertsio murriztuaren bidez ebaluatzen da. Tresna horren ahalmen iragarlea hainbat lanetan aztertu da. Adibidez, Hansonek eta Morton-Bourgonek egindako metaanaliak (2009) 0,68ko batez besteko AUC aurkitu zuen. Bestalde, Singhen eta haren lankideen lanean (2011) lortutako ahalmen iragarlea 0,78koa izan zen, beste eskala batzuen atzetik; esaterako, SORAG edo Static-99. Eskala horiekin, haren baliozkotasuna berretsi da (Hart eta Boer, 2010). Beste lan berriago batzuek, hala nola Kantersek eta haren lankideek egindakoak (2017), adierazi dute SVR-20 tresnaren propietate psikometrikoak apalak edo eskasak izan daitekeela, eta, beraz, ez litzateke erabili behar banako bati buruzko erabakiak hartzeko.

Gaztelaniara egokitutako bertsioa Martínezek, Hiltermanek eta Andrés-Pueyok (2005) garatu dute. Tresna honek baliozkotasun iragarle on bat lortu du (AUC = 0,83) 163 gizon erasotzaile sexuarekin lagin batean (emakume helduen 95 erasotzaile eta adingabeen 58 erasotzaile), eta egoki sailkatu ditu kasuen % 78,5; zehatzago, berrerorle ez direnen kasuen % 79,9 eta berrerorle direnen kasuen % 70,8 (Pérez *et al.*, 2008). Nguyenek eta Andrés-Pueyok (2014) erasotzaile sexual batzuekin (adinekoenak, adingabeenak eta bienak) SVR-20 eta Static-99 tresnen arrisku kualitatiboaren ahalmen iragarlea ebaluatzeko eta alderatzeko egin zuten azterketak SVR-20 tresnaren puntuazio osoaren ahalmen iragarle egokia aurkitu zuen berrerortze orokorrari dagokionez, baina ez berrerortze bortitzari eta sexualari dagokienez. Gaur egun, SVR-20 tresnaren bertsio berrikusi bat (2. Bertsioa) dago argitaratuta (Boer *et al.*, 2022), eta Nguyenek eta Andrés-Pueyok itzuli dute gaztelaniara.

**SAVRY -Structured Assessment of Violence Risk in Youth** (Borum *et al.*, 2003). Iritzi profesionalean oinarritutako gida egituratu gisa aurkezten da, delituzko jokabidea izateko arriskua eta delitu egin duten emakume eta gizon adingabeekin (12-18 urte) esku hartzean zer erabaki hartzen diren baloratzeko (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010; García-García *et al.*, 2016; Hilterman eta Vallés, 2007). Testuinguru zibiletan, auzitegi-medikuntzan, espetxeetan eta ikerketan erabil daiteke. Gainera, eskala erabilienetako bat da nerabe/gazte batek beste delitu bat gertatzeko probabilitatea ebaluatzeko, eta HCR-20 tresnaren homologotzat har liteke (Loinaz *et al.*, 2017; Penney *et al.*, 2010). Tresna horrek gazteen egoera pertsonala, soziala eta familiakoa aztertzen du 30 itemen bidez, 24 arrisku-faktorerekin eta 6 babes-faktorerekin, kategoria hauetan taldekatuta: arrisku-faktore historikoak, sozialak, indibidualak, eta askotariko babes-faktoreak. Ez da zenbakizko edo ebaketako puntuazioak dituen test formal bat, baizik eta informazioa bildu nahi du, arriskuaren inguruko balorazio profesionalak egituratzeko eta aske jartzean tratamendua eta gainbegiratzea diseinatzeko eta ebaluatzeko (Vallés eta Hilterman, 2007). Arriskua sailkatzeko ebaluatzaileen arteko fidagarritasuna altua izan zen (ICC = .85). Tresnaren baliozkotasun iragarlea aintzat hartzen duten hainbat azterketak baliozkotasun handia

ematen diote iragarle on gisa 1-3 urteko aldietan, 0,77ko eta 0,66ko AUC ematen baititu, hurrenez hurren (Meyers eta Schmidt, 2008), edo 0,70eko AUC 3 urteko segimendua egin ondoren indarkerian berrerortzeari dagokionez (McEachran, 2001). Era berean, dirudenez baliozkotasun iragarlea egokia da, eta antzekoa emakumeentzat (AUC = 0,85) eta gizonentzat (AUC = 0,82); hala ere, emakumeen artean probableagoa da positibo faltsuak egotea (Penney *et al.*, 2010). Horrekin guztiarekin, Singh *et al.*-ek (2011) eta beste egile batzuek esan dute, baliozkotasun iragarle handia duenez, eskala hau beti erabili behar litzatekeela gazteen arteko indarkeria-arriskua ebaluatzeko orduan.

Hiltermanek eta Vallése (2007) egokitu dute tresna gaztelaniara eta katalanera, eta, Katalunian aplikatzen hasi ondoren, haren funtzionamenduak oso egokia dirudi (Andrés-Pueyo eta Echeburúa, 2010). Eskalaren hasierako baliozkotzerako, azterketa bat egin zen Kataluniako Gazteentzako Justiziako profesionalak ebaluatzaile gisa hartuta, eta parte-hartzaileen segimendua egin zen. Fidagarritasuna egokia izan zen: klase barneko korrelazioko koefizientea (ICC) 0,78koa izan zen arrisku osoaren eskalan, eta 0,79koa, berriz, balorazio profesional egituratuan (Hilterman *et al.*, 2014). Espainiako nerabeez osatutako lagin bati buruz egindako azterketa batean, SAVRY tresnaren eta arriskuari buruzko beste eskala eta balorazio batzuen (esaterako, PCL:YV) baliozkotasun iragarlea alderatu zen, eta 0,89 eta 0,60 bitarteko ICC balioak lortu ziren. Barne-koherentzia oso egokia izan zen (0,90). Baliozkotasun bateratua ere egokia izan zen, eta arrisku osoa baloratzeko ahalmen iragarlea (AUC) 0,75koa izan zen. Azterketaren egileentzat, emaitza horiek agerian jartzen dituzte baliozkotasun iragarlea, epaileen arteko fidagarritasuna eta SAVRY tresnaren Espainiako bertsioaren barne-koherentzia (Hilterman *et al.*, 2014). Beste egile batzuek Espainiako adingabe arau-hausleekin tresnak erakutsi duen ahalmen bereizle ona berretsi dute (García-García *et al.*, 2016).

#### **Prozedura:**

Hasiera batean, indarkeria-arriskua ebaluatzeko literatura berrikusi zen. Gero, arriskua ebaluatzeko galdetegiak bilatu ziren, eta, haiek irakurri ondoren, indarkerian bi adituak analisisan sar daitezkeen aldagaien matrize bat prestatu zuten. Matrize hori metodologian aditu baten berrikusi zuen, zeinak esperientzia baitzuen ebaluazio-eskaletan eta -tresnetan egokitzen eta baliozkotzen. Aditu hark zenbait ekarpen egin zizkion matrizeari. Azkenik, gainerako ikerketa-taldeari aurkeztu zitzaion matrizeari, eta taldeak aldagaiak berrikusi zituen, eta zenbait iradokizun egin. Azterketako aldagaiekin azken matrizea prestatu ondoren, galdetegiak aztertu ziren.

#### **Analisiaren aldagaiak:**

- *Tresna-mota.* Arriskua ebaluatzeko erabiltzen den metodoa da, eta, zehatzago, tresna aktuariala den edo iritzi kliniko egituratuan oinarritutako tresna den.

- *Hartzaileak.* Hemen, arriskuaren ebaluazioa zer pertsonari egingo zaion zehazten da. Adibidez, gizon bortitzak, edo nahasmendu mental larriak dituzten gizonak.
- *Tresnaren helburu orokorra.* Tresnaren azken helburua da; adibidez, arrisku-portzentaje bat ematea, berrerortzeko arriskuaren prebentzioari buruzko erabakiak hartzea, etab.
- *Item-kopurua.* Hemen, ebaluatuko diren elementu edo aldagaien kopurua zehazten da.
- *Itemetako edukia.* Ebaluazioan jasotzen diren aldagai zehatzak aztertzen dira, duten balio iragarleagatik. Adibidez, aurretik indarkeria egin izatea, substantziak kontsumitzea, etab.
- *Erantzun-formatua.* Tresnak eskaintzen dituen erantzun-aukerak dira; adibidez, presentzia-arriskuaren eskala, erantzun dikotomikoa, etab.
- *Emaitza:* Arriskua nola baloratzen duen eta ondoriozko arriskuaren iritzia nola aurkezten den. Adibidez, probabilitate-maila gisa, pertzentiletan, balorazio profesional gisa, etab.
- *Aplikazioa.* Arriskua ebaluatzeko erabil daitezkeen informazio-iturriak zehazten dira: elkarrizketa erdiegituratu, dokumentazio medikoa eta legala, etab.; baita informazioa ematen duten pertsonen bete behar dituzten baldintzak ere.

#### **EMAITZAK AURKEZTEA ETA EZTABAIDATZEA**

1. eta 2. tauletan, aztertutako tresnen ezaugarriak aurkezten dira, hautatutako analisi-aldagaien arabera. Hurrengo orrietan, lortutako emaitzak aurkezten eta eztabaidatzen dira.

#### **Tresna-mota**

Berrikusitako literaturan, arriskua ebaluatzeko hainbat metodo bereizten dira: iritzi kliniko ez-egituratua, metodo aktuarialak eta iritzi profesional egituratuan oinarritutako metodoak (Douglas eta Skeem, 2005; Loinaz, 2017; Nicholls *et al.*, 2013; Scurich, 2016). Aztertutako tresnetako lautan (HCR-20, SARA, SVR-20 eta SAVRY), arriskuaren ebaluazioa profesional baten iritzi egituratuan oinarritzen da, eta beste hirutan, berriz (VRAG, EPV-R eta PCL-R), metodologia aktuarial bat erabiltzen da.

Iritzi kliniko ez-egituratuaren metodoa profesionalaren balorazioan eta iritzian soilik soilik oinarritzen du indarkeria-arriskuaren ebaluazioa, aurretik duen esperientzia abiapuntutzat hartuta (Canales *et al.*, 2013; Nicholls *et al.*, 2013). Profesionalaren ustez kasu jakin batean esanguratsua den horren inguruko iritzi subjektibotik abiatuta kalkulatu da arriskua, eta ez literaturaren eta ikerketaren arabera garrantzitsuak diren faktoreetatik abiatuta (Canales *et al.*, 2013; Scurich, 2016). Arriskuaren ebaluazio-metodo horiek gogor kritikatu dira, balorazio subjektiboak direlako; ondorioz, akatsak edo alborapenak izan ditzakete (Loinaz, 2017; Scurich, 2016), oso desegituratuta egon daitezke, eta gardentasun eta epaileen arteko

fidagarritasun txikia izan dezakete (González *et al.*, 2018). Ildo horretan, egile batzuen arabera (adib., Canales *et al.*, 2013; Scurich, 2016), aurreko lanen emaitzek erakusten dute metodo hori erabiltzean sortzen diren arriskuari buruzko erabakiak ez direla ausaz lortuko lirakekeenak baino hobek. Ildo berean, Wertz *et al.*-ek (2023) defendatzen dute metodo ez-egituratuena doikuntza iragarlea metodo egituratuena baino txikiagoa dela (aktuarialena eta iritzi profesional egituratuena). Espainiako testuinguruan, maiz erabili da metodo hau, eta, aditu batzuek dioten bezala (adib., Andrés-Pueyo, 2017), neurri egituratuagoek, balizkotuek eta erreplikagarriek ordeztu behar lukete (Nicholls *et al.*, 2013). Iritzi kliniko ez-egituratuaren ordeztu aukera gisa, metodo aktuarialak eta iritzi profesional egituratuan oinarritutakoak sortu dira (González *et al.*, 2018; Nicholls *et al.*, 2013).

Tresna aktuarialek (PCL-R, VRAG, EPV-R) arau estatistikoari edo matematikoari jarraikiz konbinatzen dituzte aldagaiak edo arrisku-faktoreak, etorkizuneko indarkeriaren probabilitatearen (edo, PCL-R tresnan bezala, konstruktura egokitzeko profilaren) zenbakizko kalkulua egiteko (Loinaz, 2017; Scurich, 2016). Zenbait kasutan (adib., PCL-R), erreferentziako lagin batekin alderatzen da subjektua, aurreko ikerketaren emaitza diren baremoen taula bati jarraikiz (Loinaz, 2017). Teknika horien indarguneen artean, hauek nabarmendu ohi dira: a) datu enpirikoetako enfasia arrisku-emaitza bat emateko; b) arrisku-faktoreen kodifikazio operazionala; eta c) erabakiak hartzeko fidagarritasun eta gardentasun handiagoa. Ahultasun gisa, batetik, zenbakizko datu eta emaitzetan konfiantza handia izatea aipatu ohi da, emaitza zehaztu edo zuzen dezaketen adituen iritzian dagoena baino handiagoa, eta, bestetik, arreta edo protagonismo handiegia ematea aldatu ezin diren faktore estatikoei (PCL-R tresnarekin gertatzen den bezala), arriskuaren faktore dinamikoei baino handiagoa (Douglas eta Reeves, 2010). Tresna horiek ez dira hain gomendagarriak erasotzailearekiko esku-hartzea planifikatu nahi denean, baina, beste metodo batzuekin alderatuta (esaterako, iritzi egituratukoak), komenigarriagoak izan daitezke ebaluazio goiztiarra behar duten eta biktima babestu beharra dakarten kasuetan (González *et al.*, 2018).

Bestalde, iritzi profesional egituratuan oinarritutako tresnek (HCR-20, SARA, SVR-20, SAVRY) metodologia hibrido bat erabiltzen dute, ikuspegi aktuarialen eta iritzi ez-egituratuaren indarguneak konbinatuz eta ahultasunak gaindituz (Scurich, 2016). Tresna horiek argibide edo orientazio batzuei jarraitzen diete arrisku-faktore batzuen presentzia aztertzeko (baita babes-faktore batzuen ere, SAVRY tresnaren kasuan bezala). Faktore horiek lan enpirikoak eta literatura garrantzitsua berrikusi ondoren ezarri dira (Canales *et al.*, 2013). Haiei esker, profesional trebatuek indarkeria-arriskuko maila zehatz bat ezar dezakete, eta maila horrek justifikatuta egon behar du, baina arriskua esku hartzeari eta kudeatzeari buruzko erabakiak hartzerantz bideratuta ere egon ohi dira (adib., SAVRY) (González *et al.*, 2018; Loinaz, 2017). Oro har, tresna horiek arreta handiagoa ematen diete arrisku-faktore dinamikoei, denboraren poderioz alda daitezkeenei, eta esku hartzeko aukeraren bat eskaintzen dutenei (Douglas eta Skeem, 2005). Horrek aukera handiagoa ematen du erasotzailearekin esku hartzeko plan bat diseinatzeko. Mota horretako tresnen ahultasunen artean, bi aipa daitezke: a) ebaluatzaileen arteko inkoherezia; hau da, bi ebaluatzailek arriskuaren balorazio desberdinak egitea; eta b) subjektibotasun handiagoa, ebaluatzaileak aukera baitu beste arrisku-faktore batzuk kontuan hartzeko edo haien garrantzia kasu zehatzaren arabera haztatzeke.



Gaur egun, tresna berriak agertu dira, ikuspegi aktuarial doitu izenekoak. Ikuspegi horiek haztapan- eta zuzenketa-prozedura matematikoak dituzte, eta, haietan, adibidez, profesionalak amaierako arrisku-maila zuzendu eta justifika dezakete (Loinaz, 2017). Azkenik, *Erabakien edo sailkapenaren zuhaitza* izeneko teknika aipatu behar da, oraindik gutxi zabaldua eta ikertua (González *et al.*, 2018; Loinaz, 2017). Teknika horri esker, hainbat erataria konbina daitezke arrisku-faktoreak kasu zehatzaren arabera.

Horrenbestez, indarkeria-arriskua ebaluatzeko zer motatako tresna den egokiena pentsatu behar da. Ez da galdera berria, ikertzaile asko saiatu baitira hari erantzuten, baina ez dira ados jarri. Adibidez, Singhen eta haren lankideen lanak (2013) egilearen alborapenaren pisu garrantzitsua nabarmendu zuen tresnen egileek informatutako ahalmen iragarlea kalkulatzeko orduan. Berrikuseta sistematikoen azterketa batzuek (adib., Singh *et al.*, 2011) erakutsi dute bi motatako tresnek, oro har, antzeko baliozkotasun-balioak dituztela, nahiz eta baliozkotasuna aztertzen ari garen tresna zehatzaren eta ebaluatzen ari garen kasu edo banako zehatzera egokitze moduaren arabera izango den.

Gatazka horri irtenbidea aurkitzeko asmoz, Loinazek (2017) hiru irizpide biltzen dituen ordeko aukera bat proposatzen du: a) biztanleriara eta testuinguru espezifidora egokitutako ikuspegi aktuarialeko tresnak moldatzea; b) arrisku-mailak gomendio zehatzekin lotzea; eta c) arrisku-mailen (baremoa, ebaketa-puntua, etab.) eta arrisku-maila bakoitzerako kudeaketa-neurrien balorazioen eraginkortasunari buruzko analisi enpirikoa egitea. Bestalde, Wertzek eta haren lankideek (2023) esaten dute tresna aktuarialen eta iritzi profesional egituratuko tresnen arteko dikotomia desagertu egingo litzatekeela, zein metodo den hobea galdetu ordez, iragarpena hobetzeko bi metodoak nola elkartu galdetuko bagenu. Egile horiek defendatzen dute irtenbidea bi metodo egituratuak konbinatzean emaitzak azken iritzian datzala. Metodo konbinatu hori malguagoa izango litzateke, eta, hari esker, lehendik dauden metodoen mugak gaindituko lirateke.

## Helburua

Lortutako emaitzek adierazten dute aztertutako tresnetako seik (HCR-20, EPV-R, VRAG, SAVRY, SVR eta SARA) indarkeria-arriskua ebaluatzea dutela helburu. PCL-R tresnak soilik du helburutzat beste konstruktua bat ebaluatzea: psikopatia. Indarkeria-arriskua ebaluatzen duten galdetegietatik, hiruk (HCR-20, SAVY eta VRAG) pertsonen arteko indarkerian jartzen dute arreta, zentzu zabalean. Beste hiruek (SARA, EPV-R eta SVR-20) indarkeria-mota zehatzagoak ebaluatu nahi dituzte: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkakoa, EPV-R tresnaren arabera; bikotekidearekiko, seme-alabekiko edo familiako beste kide batekiko indarkeria, SARA tresnaren arabera, eta sexu-indarkeria eta haren izaera, SVR-20 tresnaren arabera.

PCL-R tresnari dagokionez, logikoa dirudi pentsatzea, nahiz eta baliozko tresna izan daitekeen sortu zenean zuen helburua betetzeko, ez litzatekeela izango tresnarik egokiena arrisku-maila baloratzeko. Ildo horretan, Singh *et al.*-ek (2011) eta beste egile batzuek diote



berariaz indarkeria-arriskua neurtzeko diseinatu ez diren eskalek baliozkotasun iragarleko tasa txikiagoak sortzen dituztela. Hainbat egilek aitortzen dute, nahiz eta psikopatia indarkeriarekin lotu presoen eta gaixo psikiatrikoen artean, PCL-R tresnak ez lukeela irizpide bakarra izan behar arrisku-maila zehazteko edo banako zehatz bati buruzko erabakiak hartzeko (Hare, 2003; Yoon *et al.*, 2022). Eskalaren egileak berak esan duenez (Hare, 2003), tresna horren interpretazioak eta haien ondoriozko inplikazioak emaitzak eta beste iturri eta ebaluazio-tresna batzuetatik eta banakoaren behaketa zuzenetatik lortutako informazioa kontuan hartuta egin behar dira. Argudio horietan oinarrituta, egile batzuek (adib., Harris *et al.*, 1993; Hilterman eta Andrés-Pueyo, 2005; Hilterman *et al.*, 2014) pertsonen arteko indarkeriaren arrisku-faktore gisa sartu dute psikopatia, eta PCL- R (edo haren beste bertsioen bat) erabiltzea gomendatu dute garatutako eskaletan arrisku-faktore hori ebaluatzeko (adib., VRAG, HCR-20).

Aztertutako tresnek ebaluatzen duten indarkeria-motari dagokionez, Singhek eta haren lankideek (2011) eta beste egile batzuek diote arriskua ebaluatzeko tresnak indarkeria-modu espezifikoak ebaluatzeko diseinatu behar liratekeela. Loinazek (2017) esaten duen bezala, biztanleria eta indarkeria-mota zehatzak ebaluatzeraz zuzendutako tresnak diseinatu ohi dira gero eta gehiago. Kasu honetan, sexu-indarkeria, edo etxeko indarkeria aipa ditzakegu, indarkeria-modu ez-espezifikoak baino zehatzagoak baitira, eta arrisku- eta babes-faktore espezifikoak ebaluazioa har dezakete barnean. Era berean, etxeko indarkeriaren edo bikote-indarkeriaren kasuan, indarkeriaren hartzaileak ezagutzen direnean, biktima potentzialen ahultasun- edo arrisku-faktoreak sar daitezke ebaluazioan (González *et al.*, 2018), baita testuinguruarena ere (adib., banantzea, dibortzioa); faktore horien ondorioz, gertagarriagoa da beste indarkeria-une bat. Horren harira, EPV-R tresnak biktimaren ahultasunarekin erlazionatutako zenbait item hartzen ditu barnean (arriskuaren pertzepzioa, salaketaren ondoren atzera egitea edo bikotekidea uzteko nahiari uko egitea, gaixotasuna, bakardadea edo menpekotasuna). Etxeko indarkeriako arriskua ebaluatzeraz zuzendutako beste eskala batzuek, hala nola *Ontario Domestic Assault Risk Assessment* -ODARA- (Hilton *et al.*, 2004) eta *Domestic Violence Risk Appraisal* -DVRAG- (Hilton *et al.*, 2008), item espezifiko batzuk ere hartzen dituzte barnean, biktimaren zaurgarritasuna eta indarkeria-mota espezifikoak arrisku-faktoreak ebaluatzeko (adib., elkarrekin seme-alabak izatea, edo aurreko bikotekide batekin seme-alabak izatea). *Spousal Assault Risk Assessment guide, Version 3* -SARA V3- (Kropp eta Hart., 2016) tresnak eta bertsio murriztuak, *Brief Spousal Assault Form for the Evaluation of Risk, Second edition* -B-SAFER- (Kropp *et al.*, 2010), bikoteko indarkeria-arriskua ebaluatzen dute. Biktimaren zaurgarritasunarekin erlazionatutako itemak hartzen dituzte barnean, eta, hari esker, haiek babesteko plan bat ezar daiteke. Horren harira, Belfrageren eta Stranden lanak (2008) adierazten du biktimaren zaurgarritasun-faktoreak aintzat hartzeak arriskua doitasun handiagoz ebaluatzen lagun dezakeela eta, horrenbestez, zeregin garrantzitsua dutela polizia-testuinguruetan erabiltzen diren ebaluazio-tresnetan. Era berean, funtsezkoa da biktimizazioaren arrisku-aldagaiak sartzeari, biktimak babesteko ikuspegiari haien beharrak ere kontuan hartuta eta haiek babestera bideratutako neurriak hartuta (González *et al.*, 2018).

## Hartzaileak

Arriskua ebaluatzeko tresnen hartzaileei dagokienez, edo, bestela esanda, arrisku-ebaluazioa zer pertsonari egingo zaion, ikusi dugu hiru tresnak (HCR-20, VRAG eta PCL-R) nahasmendu mentala duten gaixo helduak, gaixo psikiatrikoak edo indarkeria- edo delitu-historia dutenak dituztela hartzaile gisa. SVR tresna espezifikoa da, eta sexu-gaizkile helduak ditu hartzaile gisa. SAVRY tresnak 12 eta 18 urte bitarteko nerabeak ditu hartzaile gisa. Azkenik, bai SARA tresnak, bai EPV-R tresnak, gizon erasotzailea edo haren bikotekidea/bikotekide ohia dute ebaluazioaren hartzaile gisa.

Pertsonen arteko indarkeria orokorrari heltzen dioten eskaletan (askotan, ez dago biktimarik identifikatuta), beharbada egokiagoa litzateke erasotzaileak izatea hartzaileak. Hala ere, etxeko indarkeria ebaluatzera zuzenduta dauden tresnen kasuan (biktimak ezagunak dira eta zehaztuta daude), egokia litzateke biktimaren esperientziari eta balorazioari heltzea, arrisku-faktore zehatz batzuei buruzko informazioa eman baitezake. Horren harira, erasotzaileak bere arrisku-faktoreei buruz egin dezakeen balorazioa eta aurretiko indarkeria-egoerak alboratuta egongo dira, eta baliteke beren irudi positiboa erakutsi nahi izatea, baita etorkizuneko indarkeria-aldiak saihesteko/kontrolatzeko duten gaitasuna ere. Halaber, baliteke une jakin batean erasotzaileak ebaluazioan lagundu nahi ez izatea.

Bestalde, etxeko indarkeriaren kasu zehatzean, biktima potentzialak hartzailetzat hartzen badira, erasotzailearen arriskugarritasunean ardaztutako ikuspegi batetik arriskua kudeatzeko ikuspegi batera pasatzen da. Gainera, ikuspegi-aldaketa horren ondorioz, balorazioaren azken emaitzak informazio gehiago emango luke arriskua kudeatzekoari buruz eta biktimak beste indarkeria-une batetik babesteko moduari buruz (González *et al.*, 2018). Horren harira, López-Osorio *et al.*-en lanak (2017) dio biktimak arriskuari buruz duen autopertzepzioa berrerortzearen adierazle ona dela (biktimaren zaugarritasun-adierazle batzuk baino hobea), eta, ebaluazio-tresnetan sartzen badira, informazioa eman diezaguketela biktimen beharrei eta behar dituzten baliabideei buruz. Ezin dugu ahaztu azken helburua arriskua murriztea dela, eta indarkeria saihesteko estrategiak planifikatu eta ezarri. Horrenbestez, erasotzaileak gainbegiratzeaz, kontrolatzeaz eta tratatzeaz gain, biktimak babesteko plan bat ere prestatu behar du (Hart *et al.*, 2016; González *et al.*, 2018; Viljoen *et al.*, 2018). Hala ere, kontuz heldu behar zaio gai horri, biktimek ere arriskua gutxietsi baitezakete. Hori dela eta, adibidez, *Protocolo de Valoración Policial del Riesgo* protokoloak (González *et al.*, 2018), biktimaren arriskuarekiko pertzepzioa ez ezik, profesionalak biktimaren balorazioarekin duen adostasun-maila neurtzeko kontrol-galdera bat ere badakar.

Etxeko indarkeriaren arriskua ebaluatzeko tresnek egokiak eta baliagarriak izan behar lukete, eta askotariko biztanleekin erabiltzeko diseinatuta egon (adib., etnia edo jatorri desberdinetakoekin) (Nicholls *et al.*, 2013), edozein talde sozialetan agertzen den indarkeria-mota baita. Hala ere, tresnen baliozkotasun iragarlea desberdina izan daiteke pertsonaren

kulturaren edo jatorriaren arabera (Ogloff eta Davis, 2020), eta, Singh *et al.*-ek (2011) dioten bezala, iragarpenak zehatzagoak izan ahalko lirateke hogeita hamar urte inguruko gizon zurien kasuan, halakoek osatu ohi baitituzte tresnak baliozkotzeko erabiltzen diren laginak. Horren harira, adibidez, EPV-R tresnak barnean hartzen duen arrisku-faktore bat erasotzailearen edo biktimaren jatorri atzerritarra da. Espainian, feminizidio-arriskua, gainera, emakume migratzailea izatearekin erlazionatuta dago, eta bikotekideengandik indarkeria jasaten duten emakume migratzaileek hiltzeko arrisku handiagoa dute, ez-migratzaileek baino (Sanz-Barbero *et al.*, 2016). Aurretik egindako lan batzuen arabera, hala nola Aizpurua *et al.*-ek egindakoaren arabera (2021), harremana dago emakume migratzailea izatearen eta bikote-harremanean portaera bortitz batzuk (besteak beste, jokabide-kontrola eta indarkeria fisikoa) jasatearen artean. Ildo horretan, Lilak eta haren lankideek (2019) azterketa bat egin zuten beren bikotekideak/bikotekide ohiak erasotzeagatik preso zeuden eta segimendu eta guzti esku hartzeko programa batean parte hartu zuten 393 gizonen lagin batekin. Azterketa haren arabera, berrerortzearen iragarle bat migratzaile izatea zen. Kontu handiz heldu behar zaio gai honi, eta beti datu enpirikoetan bermatuta, maiz samar arriskuaren ebaluazioak alboratuta egon baitaitezke eta gutxiengo batzuegan arrisku handiagoaren pertzepzioa sor baitezakete (Viljoen *et al.*, 2018).

Hori dela eta, etxeko indarkeriaren arriskua baloratzeko tresnek ebaluatuko diren hartzaileekin bateragarriak izan behar lukete, eta alde kulturaletik sentikor agertu. Horretarako, askotariko biztanleekin aztertu eta frogatu behar dira, askotariko biztanle-taldeetan duten ahalmen iragarlea ebaluatzeko.

#### **Itemak: Erantzunaren edukia eta formatua**

2. taulan jasota dagoen bezala, aztertutako eskaletako bostek 20 item dituzte guztira (HCR-20, EPV-R, SARA, SVR-20 eta PCL-R). VRAG eta SAVRY tresnek 12 eta 30 item dituzte, hurrenez hurren. Aipatzekoa da bikote-indarkeriako arriskua ebaluatzeko beste tresna batzuek ere 20 item edo arrisku-faktore dituztela guztira; esaterako, *Danger Assessment* - DA-tresnak (Campbell *et al.*, 2009) edo SARA tresnaren lehenengo bertsioak (Kropp *et al.*, 1995).

Hala ere, aldagai hau aztertzean garrantzitsuena ez da kopurua, baizik eta beste alderdi batzuk; esaterako, zer item-mota dauden, zer ebaluatzen duten eta nola ebaluatzen duten. Horren harira, arriskua ebaluatzeko, banako batengan dauden eta haren etorkizuneko portaera iragar dezaketen faktoreak identifikatu behar dira, eta, askotan, faktore horiek aurreko ikerketatik eta portaera bortitza azaltzea helburu duten eredu teorikoetatik sortzen dira. Faktore horiei arrisku-faktore edo babes-faktore esaten zaie (Connors eta Large, 2023). Aztertutako tresnetan, SAVRY tresnak bakarrik jasotzen du berariaz babes-faktoreak daudela. Gainerakoek arrisku-faktoreak ebaluatzean soilik jartzen dute arreta, nahiz eta lan batzuek adierazi, arrisku-faktoreak txikitzen direnean ez ezik, babes-faktoreak daudenean ere murrizten dela arriskua (López-Osorio *et al.*, 2017). Aurretik esan dugu faktore horiek erasotzaileari edo biktimari lotuta egon daitezkeela, baina baita duten harremanari lotuta ere, hala nola HCR-20 tresnan (bikote-harreman ez-egonkorak) eta EPV-R tresnan (banantzea eta jazarpen-jokabideak edo urruntze-agindua urratzea); edo pertsonen arteko beste harreman

batzuei lotuta, hala nola HCR-20 edo SAVRY tresnetan, zeinetan beste pertsona esanguratsu batzuen babes soziala jasotzen baitute.

Bai arrisku-faktoreak, bai babes-faktoreak faktore estatikoetan edo dinamikoetan ere multzoka daitezke (Connors eta Large, 2023; González *et al.*, 2018; Loinaz, 2017; Nicholls *et al.*, 2013; Schurich, 2016). Faktore estatikoak nekez alda daitezke, dagoeneko gertatu direlako (adib., haurtzaroko biktimizazio-historia) edo banakoaren beraren aldagaiak direlako, hala nola sexua (Loinaz, 2017). Faktore dinamikoak denboraren poderioz edo esku-hartzearen edo esperientzia eta testuinguru berrien ondorioz alda daitezke; adibidez, tratamendu edo terapia batean parte hartzea (González *et al.*, 2016; Loinaz, 2017). Aztertutako eskaletan dauden arrisku-faktore estatikoen adibide bat HCR-20 tresnako edo SAVRY tresnako item historikoak dira; hala ere, aztertutako eskala guztiek dituzte arrisku-faktore estatikoak. Bestalde, badirudi EPV-R eta SARA tresnek arreta berezia eskaintzen dietela arrisku-faktore dinamikoiei, eta, zenbait kasutan, denbora-leiho nolabait zehatza esleitzen dietela (adib., berriki, azken hilabetean). Adibidez, EPV-R tresnak biktimaren azken hilabeteko arrisku-pertzepzioa baloratzen du, ea banantzeko/dibortziazeko izapideei hasiera eman dien, edo erasotzaileak urruntze-agindua urratzeko aukera dagoen. SARA tresnak faktore bakoitza kudeatzeko edo gainbegiratzeko modu bat ere proposatzen du, dinamikoa edo estatikoa den. Oro har, uste da faktore dinamikoak baliatzen dituzten eta arreta arriskuaren kudeaketan jartzen duten tresnak egokiagoak lirakeela arriskua baloratzeko, halako faktoreak baliatzen ez dituztenak baino, baina, dakigunez, kontu hori oraindik ez da ebaluatu (ikus Viljoen eta Vincent, 2020).

Hein handiagoan edo txikiagoan arrisku-faktore estatikoak edo dinamikoak jasotzea ez da kontu txikia, nolabait agerian jartzen baitu arriskua ebaluatzean hartzen ari diren ikuspegia. Duela urte batzuetara arte, arriskuaren ebaluazioari buruzko lan gehienek *arrisku-estatuaren* ikuspegia hartu zuten (Douglas eta Skeem, 2005; Skeem eta Mulvey, 2002), beste pertsona batzuekin bortizki jokatzeko probabilitate handia duten banakoak identifikatzera zuzendua. Ikuspegi horretatik, portaera bortitza ezaugarri indibidualen arabera da, eta ez neurketa-erroreen edo kanpoko faktoreen arabera (Quinsey *et al.*, 1998), eta toki gutxi dago denboraren poderioz edo kanpo-baldintzak aldatu ondoren arrisku-mailan aldaketarik gertatzeko. Hala ere, azken hamarkadetan aurrera egin da *arrisku-estatusetik arrisku-egoera dinamikora*; azken horren definizioa izango litzateke pertsona batek une jakin batean portaera bortitza izan dezakeen joera (Skeem eta Mulvey, 2002), eta denboraren poderioz arriskua handitzen edo murrizten duten faktoreak edo baldintzak zehaztea eskatzen du (Douglas eta Skeem, 2005). Horrenbestez, arrisku-estatusa arrisku-faktore estatikoetatik ondorioztatzen da, eta arrisku-egoera arrisku-estatusetik eta faktore dinamikoetatik abiatuta lortzen da (Skeem eta Mulvey, 2002). Horrela, arriskuaren ebaluazioa indarkeria iragartzeko eredu batetik arriskua baloratzeko eta kudeatzeko eredu kliniko batera pasatu da. Azken eredu horrek dio arriskua dinamikoa dela —eta aldatu egiten dela denboraren poderioz—, eta hein handi batean testuinguru- eta egoera-faktoreen arabera da, eta, horrenbestez, alda daitekeela (Douglas eta Skeem, 2005; Hilterman eta Vallés, 2007; Nicholls *et al.*, 2013). SARA tresnaren 3. bertsioak, SAVRY tresnak eta beste tresna batzuek arriskua kudeatzeko ikuspegi

hori jasotzen dute beren helburuetan eta erabilitako arrisku-faktoreetan. Loinazentzat (2017), arreta prebentzioan jartzen duen ikuspegi-aldaketa horrek abantailak ditu, bereziki biktimentzat, eta iritzi profesional egituratuan oinarritutako tresnei itzultzen die protagonismoa; ondorioz, beharrezkoa da ebaluatzaileak behar bezala trebatuta egotea. Arrisku-egoeraren balorazioak faktore estatikoak eta dinamikoak ebaluatzen ditu; hortaz, aldakorra da, eta, etorkizunean berrikusi behar litzateke. Kontu hori *Emaizta* atalean garatzen da.

Itemetako erantzun-formatuari dagokionez, ebaluatutako tresna gehienek (HCR-20, SARA, SVR-20, SAVRY eta PCL-R) hiru puntuko erantzun-eskala bat erabiltzen dute. HCR-20, PCL-R eta SAVRY tresnek 3 puntuko eskala arrunt bat erabiltzen dute. Balioak baxua, ertaina eta altua izan daitezke (SAVRY); edo 0, 1 eta 2, arrisku-faktorea zer neurritan ageri den (HCR-20) edo subjektuaren jokabidea zer neurritan doitzen den arrisku-faktorearen deskribapenera (PCL-R). Bai SARA tresnak, bai SVR-20 tresnak hiru puntuko eskala bat erabiltzen dute; eskala horrek faktorea badagoen ala ez dagoen baloratzen du, baina aukeretako batek horren inguruko frogarik eza biltzen du. Halaber, aurretik esan dugun bezala, SVR-20 tresnak aukera ematen du item bakoitzari dagokionez adierazteko ea duela gutxi faktorea aldatu den (murriztu edo areagotu egin den). Bestalde, EPV-R tresnak bi balio erabiltzen ditu item bakoitzerako. 0 balioa esleitzen da arrisku-faktorea ez badago; eta faktorea baldin badago, 1, 2 edo 3ko balio lehenetsia esleitzen da, faktorearen eta indarkeriaren arteko harreman-mailaren arabera. Adibidez, erasotzailea atzerriko izateari 0 jar dakiok (faktorerik eza), edo 1 (faktorea egotea); aldiz, biktimaren arrisku-pertzepzioari 0 jar dakiok (faktorerik eza), edo 3 (faktorea egotea). VRAG tresnak hiru puntuko eskalaren ordeko balorazioa erabiltzen du, eta puntuazio desberdina ematen zaio item bakoitzari. Puntuazioa positiboa edo negatiboa izan daiteke (adib., eskizofrenia-irizpideak betetzea = +1; jokabide-askatasuneko aurreko baimen batean porrot egitea = +5).

Arrisku-faktoreei emandako erantzunak puntuatzeko modua erabiltzen den tresna-motaren arabera da hein handi batean. Tresna aktuarietan, zenbakizko puntuazio bat eman behar zaio item bakoitzari (omisioak onartzen direnean izan ezik); aldiz, iritzi profesional egituratuko tresnetan, balorazioa kualitatiboa eta irekiagoa edo malguagoa izan daiteke, eta, adibidez, item batzuk kritikotzat har daitezke (esaterako, SARA), edo, faktorearen presentzia ez ezik, azkenaldian aldaketa izan den ere adierazi (SVR-20). Informazio-mota hori baliagarria izan daiteke arriskua kudeatzeko erabakiak hartzean, eta lagungarria gerta liteke zenbait alderdi ulertzeko; esaterako, nola erlazionatzen diren arrisku-faktoreak elkarren artean, ea faktore bat beste baten aurretik joan daitekeen, faktoreen artean harreman kausalik dagoen, etab.(ikus Douglas eta Skeem, 2005).

### **Emaizta**

Arriskua ebaluatzeko tresnek eskaintzen duten emaitzari dagokionez, ikusten da, oro har, tresna aktuarialek (VRAG, EPV-R eta PCL-R) indarkeria-arriskua moduren batera kuantifikatzen saiatzen den azken puntuazioa ematen dutela. VRAG eta EPV-R tresnen emaitza puntuazio-tarte batean dago (-28tik 33ra, eta otik 48ra, hurrenez hurren); aldiz,

PCL-R tresnak hainbat emaitza eskaintzen ditu (osoa, faktoreen arabera eta alderdien arabera) eta puntuazioen profil bat sortzen du baremo batetik abiatuta. Iritzi profesional egituratuan oinarritutako tresnek (HCR-20, SARA, SVR-20 eta SAVRY), bestalde, ebaketa-punturik gabeko kategoria nominaletan oinarritutako emaitza eskaintzen dute, normalean hiru puntuko eskala bati jarraikiz (baxua, ertaina eta altua) (HCR-20, SVR-20 eta SAVRY). SARA tresnak lau puntuko eskala bat erabiltzen du (baxua, ertaina, altua eta berehalakoa), eta arriskua bikotekidearentzat soilik den edo familia-sistemako beste kide batzuei ere eragiten dien baloratzen du (adib., seme-alabak).

Egile batzuen ustez (adib., Loinaz, 2017; Singh *et al.*, 2011), iritzi profesional egituratuan oinarritutako tresnek eskaintzen dituzten emaitzak egokiagoak izan ahalko lirerateke, tresna horietan arriskuaren amaierako balorazioa justifikatu egin behar baita eta ez baita mugatzen zenbakizko datu bat ematera. Hala ere, arrisku-kategoriei esleitutako etiketak ez dira batere zehatzak, edo ez dute informaziorik ematen txosten edo gomendio zehatzik ez badakarte (Loinaz, 2017). Eskala aktuarial batzuek (esaterako, EPV-R) ondorioen atal bat dute, eta, atal horretan, ebaluatzen duen pertsonak kasu zehatza kudeatzeko informazio garrantzitsua gehi dezake. Eskala honetan, gainera, arriskuaren ebaketa-puntuak bat datoz babes-neurri espezifikoekin.

Ebaluazio-tresnek eskaintzen duten emaitzarekin zerikusia duen alderdi garrantzitsu bat da arriskua noiz ebaluatu behar den berritoki, edo zer maiztasunekin, eta denborak (Scurich, 2016) eta egoera- edo testuinguru-faktoreek (Borum *et al.*, 1999) arrisku-mailari nola eragiten dioten. Lehen esan dugun bezala, badira arrisku-faktore dinamikoak, zeinak aldatu egiten baitira denboraren poderioz; hori dela eta, aldi-aldi berrikusi behar da arriskuaren ebaluazioa, edo balorazioari eragin diezaioketen egoerak edo agertokiak sortzen direnean; esaterako, banantzea, dibortzioa, biktimaren bikote-harreman berria, etab. Era berean, Loinazek (2017) dioen bezala, arrisku-faktore estatikoak ere berrikusi eta egunera daitezke, informazio berria dakarten dokumentu edo datu berriak ager baitaitezke. Zenbait eskalak (esaterako, VRAG) 7 eta 10 urte bitarteko aldia proposatzen dute arriskuaren balorazioa; oso aldi zabala da arrisku-faktore dinamikoetan aldaketak baldin badaude. Era berean, SVR-20 tresnak erantzun-eskala bat du (-, 0, +), eta eskala horrek baloratzen du ea aldaketa positiborik edo negatiborik izan den, edo aldaketarik izan ez den. Bestalde, EPV-R tresnaren egileek dioten bezala (Echeburúa *et al.*, 2009), arriskuaren balorazioaren emaitza une zehatzaren irudia da, eta osatu eta berritoki aplikatu behar da informazio berria edo salaketa berriak daudenean, denboraldi bat igaro denean edo egoera aldatzen bada. Arriskuaren polizia-baloraziorako tresnak, adibidez, Arriskuaren Bilakaeraren Polizia Balorazioari buruzko gida gehigarri bat du. Haren bidez, hasieran baloratutako arrisku-maila ebaluatzen eta kontrolatzen du (Arbach-Lucioni eta Andrés-Pueyo, 2016; González *et al.*, 2018). Horrenbestez, desiragarria litzateke garatutako tresna berriek argibide espezifikoak izatea jakiteko noiz den beharrezkoa edo gomendagarria beste balorazio bat egitea arrisku-faktore dinamikoaren arabera, halaber jakinik berrerortzea eta arriskua ez direla linealak eta handiagoak izan litezkeela lehenengo hilabeteetan eta gizon batek bikotekidearen edo

bikotekide ohiaren aurka berriro indarkeriaz jokatzeari probableago egiten duten zenbait gertaeraren aurrean (López-Osorio *et al.*, 2017).

Azken batean, espero da arriskua ebaluatzeko neurriek informazioa ematea, ez bakarrik arriskuaren probabilitate-mailari buruz, baizik eta baita beste alderdi garrantzitsu batzuei buruz ere. Horren harira, 1974an, Brooksek (hemen aipatua: Ogloff eta Davis, 2020) arriskugarritasunaren lau osagai aipatu zituen: a) arriskuaren tamaina; b) gertakari bortitza agertzeko probabilitatea; c) hura gertatzearen maiztasuna; eta d) gertaera bortitzaren hurbiltasuna. Singh *et al.*-ek (2011) adierazten dute, nahiz eta garrantzitsua den indarkeriaren probabilitatea iragartzea, beharrezkoa ere badela, besteak beste, haren larritasunari edo izaerari buruzko informazioa lortzea. Horrela, arriskuaren formulazioaren kontzeptua sortzen da; Ogloff eta Davisen arabera (2020), arriskuaren datuei buruzko informazioa laburbiltzeko eta antolatzeko, arrisku-faktoreak identifikatzeko eta arriskua kudeatzeko informazioa emateko prozesua da. Bestalde, Lewis eta Doylek (1999) arriskua ebaluatzeko bost urratseko ereduan diote arriskuaren formulazioak hauei buruzko informazioa jaso behar duela: a) aurretik horretara daramaten faktoreak edo faktore historikoak (indarkeriaren maiztasuna, larritasuna eta izaera); b) azkartzen duten faktoreak edo oraingo faktoreak (arrisku-zeinuak, probabilitatea eta berehalakotasuna); c) arriskua murriztu (babesleak) edo areagotu (mantentzaileak) dezaketen etorkizuneko faktoreak.

Horrela, arriskuaren formulazioak lehen aipatutako faktore eta osagai guztiei buruzko informazioa eman behar luke, eta, gainera, baloraziotik ondorioztatzen diren beharrak, biktimak babesteko hartu behar den neurri-mota eta arriskua berrikustearen maiztasuna adierazi behar lituzke (González *et al.*, 2018; Scurich, 2016). Esku-hartzea kalkulaturako arrisku-mailara lotzeko eta doitzeko beharra ez da zerbait berria, eta ebaluazioan eragin nabarmena duten ereduetan dago; esaterako, Arriskua-Beharra-Erantzuteko ahalmena (Bonta eta Andrews, 2016; ikus, halaber, Hilton eta Ennis, 2020).

Hori dela eta, garrantzitsua da ebaluaziotik harantz joatea eta arriskua kudeatzeko ikuspegia hartzea; bestela esanda, indarkeria prebenitzeko (Viljoen eta Vincent, 2020) edo blokeatzeko (González *et al.*, 2016) estrategiak planifikatzeko eta ezartzeko prozesua. Prozesu horretan, gutxienez lau motatako esku-hartzeak egongo lirarteke: arriskua kontrolatzea edo berriro ebaluatzea, erasotzailearen tratamendua, erasotzaile potentzialaren gainbegiratzea eta kontrola (urruntze-aginduak eta antzeko neurriak), eta biktimak babesteko plan baten diseinua (Hart *et al.*, 2016). Hala ere, oro har eskuragarri dauden tresnek lehenengo fasean jartzen dute arreta, ebaluazioan (Loinaz, 2017), eta normalean ez dira sartzen ebaluazioa eta esku-hartzea integratzen dituen kudeaketa-protokolo edo -sistema zabalago batean (Viljoen eta Vincent, 2020).

#### **Aplikazioa:**

Atal honetan, arriskua ebaluatzeko kontsultatzen diren informazio-iturriak eta tresnak aplikatzen dituzten profesionalen ezaugarriak aztertuko dira.



Aztertutako eskala guztiek aukera ematen dute eta gomendatzen dute askotariko informazio-iturriak erabiltzea (ikus 1. taula), hala nola espediente akademikoak, segurtasun-indar eta -kidegoen atestatuak, mediku- edo ospitale-txostenak, polizia-txostenak, nortasun-inbentarioak (adib., HCR-20), eta erasotzaileari, lekukoei eta biktimei egindako elkarrizketak. Bestalde, PCL-R tresnaren eskuliburuak item espezifiko bakoitzerako iturriak proposatzen ditu. Oro har, tresna guztiek tresna bat baino gehiago erabiltzea gomendatzen dute, informazio gehiago edukitzeko eta jasotako datuen egiazkotasuna egiaztatzeko. Horrek esan nahi du, ikuspegi formaletik behintzat, tresna batzuk benetan garestiak direla iturriak bildu eta aztertzeari dagokionez (Singh *et al.*, 2011); horrek baditu abantailak, zalantzarik gabe, baina dinamismoa eta funtzionalitatea kenduko lioke tresnari. Horrenbestez, beharrezkoa dirudi informazioa biltzean funtzionalitatea eta sistematikotasuna konbinatzea, bereziki arriskua kudeatzeko neurriak nolabaiteko presaz hartu behar direnean eta zergatia azaldu behar denean. Hori dela eta, beharbada komeni da ebaluazioan erabilitako iturriak modu arrazoituan hautatzea, eta, Loinazek dioen bezala (2017), kontsultatutako iturrien zerrenda bat sartzea azken txostenean edo emaitzan, helburu hauekin: a) arriskuaren azken balorazioaren justifikazioa hobetzea; b) balorazioaren mugak aipatzea; c) etorkizuneko ebaluazioetarako informazioa zabaltzeko zerrenda bat izatea; d) ebaluazio-prozesuari eta haren zehaztasunari buruzko informazioa ematea beste profesional batzuei.

Ebaluatutako tresnak eskaintzen dituzten langileen ezaugarriari eta trebakuntzari dagokienez, kasu guztietan nolabait trebatuta egon behar da indarkeriaren arloan eta tresna erabiltzearen arloan, SAVRY tresnaren kasuan izan ezik, ez baitu trebakuntzarik behar (Borum *et al.*, 2010). Hala ere, tresna batzuk zorrotzagoak dira (adib., PCL-R), eta graduondoko bat gomendatzen dute (masterra edo doktoregoa) ebaluazioa egiteko. Bestalde, EPV-R tresnak generoan eta metodologian trebatutako diziplinarteko lantalde bat aipatzen du. Azken batean, nolabait bat datoz esatean arriskuaren ebaluazioa egiten duenak profesionala izan behar duela eta ebaluatuko duen indarkerian trebatuta egon behar duela, ebaluazioan esperientzia izan behar duela eta komunikatzeko gaitasuna izan behar duela. Izan ere, arriskuaren ebaluazioa argia izatea nahi da, egoki justifikatuta egotea, eta beste profesional batzuentzat baliagarria izatea; esaterako, erabakiak hartu behar dituztenentzat (adib., epaileak), zerbitzuak, tratamenduak eta baliabideak antolatzen dituztenentzat (adib., psikologoak eta gizartel-langileak) eta zerbitzuak ematen dituztenentzat (adib., hezitzaileak, segurtasun-kidegoak).

Puntu honetan aipatutako bi alderdiak (informazio-iturriak eta arriskua ebaluatzen duen profesionala) tresnen bideragarritasunaz edo erakunde jakin batean tresna arrakastaz erabili edo gauzatzeko aukeraz ari dira (Proctor *et al.*, 2011). Eta bideragarritasunean, haren konplexutasunarekin erlazionatutako alderdiak jasotzen dira, tresna kudeatzeko trebakuntza espezializatua behar den ala ez, edo iritzia aplikatzeko eta prestatzeko denbora egokia den ala ez (Viljoen eta Vincent, 2020). Kasu honetan, arrazoizkoa dirudi oreka mantentzearen alde egitea informazioa zehatz-mehatz jasotzearen eta tresnaren bideragarritasunaren artean.



4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

1. taula. Indarkeria-arriskua ebaluatzeko tresnaren analisisa hautatutako aldagaien arabera.

Tresna	Egileak / Gaztelaniazko bertsioa	Mota	Helburua	Hartzaileak	Emaitza	Aplikazioa	
						Informazio-iturriak	Profesionalak
HCR-20	Hilterman eta Andrés-Pueyo (2005)	Iritzi profesional egituratuaren gida.	Indarkeria-arriskua baloratzea eta iragartzea.	Gaixo mental eta preso bortitzak.	3 puntuko eskala (arrisku baxua, ertaina, altua), adituaren iritziaren arabera.	Askotariko iturriak (txostenak, artxiboak, oharra, elkarrizketak, etab.), inkoherentziak ebaluatzeko. Nortasunari buruzko inbentarioak kudeatzea gomendatzen da.	Trebakuntza espezifiko, iritzia eta psikodiagnostikoko gaikuntza profesionala behar dira, eta indarkeriari buruzko bibliografia ezagutzea (izaera eta iragarpena).
VRAG	Ballesteros <i>et al.</i> (2006)	Eskala aktuariala	Buruko nahasmenduak dituzten edo delitu-historia duten helduen	Buruko nahasmendu larriak dituzten edo delitu-historia duten helduak.	Puntuazio-tartea: -28 eta +33. 7 eta 10 urte bitarteko aldian berriro delitu bortitz bat egiteko probabilitatearen emaitza	Askotariko iturriak (espediente akademikoa, polizia-, ospitale- eta	Aplikazioan trebatzea eta tresna zuzentzea eskatzen du. Indarkeriaz eta arriskuaz

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

			portaera bortitz larria iragartzea.		eskaintzea (0-100).	espetxe-txostenak, gizarte-agentziak, senideei egindako elkarrizketak, etab.)	jakitea.
EPV-R	Echeburúa <i>et al.</i> (2009)	Eskala aktuariala	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria-arrisku larria edo hilketa baloratzea eta iragartzea.	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeriaz akusatua	Eskalaren puntuazio osoa 0 eta 20 artekoa da; hari esker, indarkeria-arriskua hiru motatakoa izan daiteke: baxua (0-9), ertaina (10-23) edo altua (24-48)	Askotariko iturriak (segurtasun-indar eta -kidegoen atestatua eta eginbide judizialak, lekukoaren adierazpena, erasotzailearen aurrekariak, erasotzailearen dokumentazio medikoa eta psikiatrikoa, erasotzaileari, biktimari, lekukoei edo bestelakoei egindako	Lege eta Auzitegi Medikuntzako Institutuetako genero-indarkeriaren balorazio integraleko unitateetako diziplinarteko taldea (medikua, psikologoa eta gizarte-langile forentsea), berariaz generoan eta metodologian

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

						elkarrizketa)	trebatuak.
SARA	Andrés-Pueyo <i>et al.</i> (2008)	Iritzi profesional egituratuaren gida	Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren, seme-alaben, familiako beste kideren baten edo tartean den beste edozein pertsonaren aurkako indarkeria-arrisku larria baloratzea (bereziki indarkeria fisikoa eta sexuala)	Bikotekidearen eta biktimen aurkako indarkeriaz akusatua	Arriskuaren kalifikazioen bi emaitza 4 puntutan (baxua, ertaina, altua edo berehalakoa), adituaren iritzia araberak: a) bikotekidearen aurka b) familiako beste kide batzuen aurka.	Askotariko iturriak (polizia-txostena, akusatua, erregistroen egiaztapena, biktima edo defendatzailea, erregistroa edo beste batzuk)	Test eta neurketako graduondoko ikastaroak egin behar dira, edo trebakuntza baliokide dokumentatua. Hezkuntzako, kontsultako edo ikerketako testuinguruetarako, kualifikazio handiagoa behar da.
SVR-20	Martínez, Hilterman eta Andrés-Pueyo (2005)	Iritzi profesional egituratuaren gida	Sexu-indarkeriako arriskua eta haren izaera baloratzea.	Sexu-gaizkile helduak	Arriskua baloratzeko eskala (baxua, ertaina, altua), adituaren iritzia araberak.  Ikerketan, puntuazio osoa esleitzen da (0-40 tartea).	Askotariko iturriak: elkarrizketak, beste profesional batzuen txosten teknikoak, espedienteak (judizialak, espetxeetakoak, historia klinikoak, etab.)	Auzitegi-medikuntzako adituak (esperientzia praktikoa eta ezagutzak)

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

SAVRY	Hilterman eta Vallés (2007)	Iritzi profesional egituratuaren gida	Indarkeria-arriskuaren maila zehaztea eta eskuhartzea doitasun handiagoz planifikatzea.	12 eta 18 urte bitarteko nerabeak.	Arriskua baloratzeko eskala, ebaluatzailearen iritziaren arabera (baxua, ertaina, altua). Arrisku espezifikoen izaeraren eta mailaren alderdiei heldzea gomendatzen da (larritasuna, biktimak, maiztasuna, etab.)	Askotariko iturriak (banakoaren beraren txostenak, buruko osasuneko txostenak, espediente akademikoak, justiziakoak, etab.). Iturriaren sinesgarritasuna eta fidagarritasuna baloratzea.  Beste tresna batzuekin osatzea (indarkeriaren inguruko jokabideak, iritziak eta portaerak).	Gazteekin lanean aditu diren eta balorazio indibidualak eta haur eta nerabeen prozesu ebolutiboan esperientzia teorikoa eta praktikoa duten psikologoak, psikiatrak, hezitzaileak eta gizarte-langileak. Ez da trebakuntza espezifikorik behar.
PCL-R	Hare (2003)  Moltó <i>et al.</i> (2000)	Eskala aktuariala	Psikopatia ebaluatzea (nortasun-ezaugarriak eta erlazionatutako	Gaizkile kriminalak eta gaixo psikiatriko	Profil bat sortzen da 4 alderdirekin (pertsonek artekoa, afektiboa, bizimodua, antisoziala), eta bi faktorekin: pertsona artekoa / afektiboa eta	Elkarrizketa erdiegituratuak, espedienteetako datuak eta bestelako albo-informazioa. Item	Kualifikazio handia behar da, eta akreditazio profesionala (masterra, doktoregoa eta

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

			jokabideak)	forentse helduak.	gizarte-desbideratzea. Halaber, puntuazio osoa lortzen da (0-40). Zenbat eta handiago izan puntuazio globala, orduan eta gehiago egokitzen da banakoa psikopataren prototipora.	bakoitzerako, hainbat informazio-iturri iradokitzen dira.	graduondokoa), psikopatiari buruzko literatura klinikoa eta ikerketakoa ezagutu, ebaluazio psikologikoak egiteko akreditazioa lortu, eta biztanleria forentseekiko eta tresna erabiltzearekiko esperientzia izan.
--	--	--	-------------	-------------------	---	---	---

2. taula. Indarkeria-arriskua ebaluatzeko tresnaren analisia sartutako itemen arabera.

Tresna	Item-kopurua	Item-multzoak	Itemak	Erantzun-formatua
HCR-20	20.	3 item-multzo:  Historikoak (n=10) Klinikoak (n=5)  Arriskuaren kudeaketa (n=5)	Item historikoak:  1. Aurreko indarkeria.  2. Lehenengo gertakari bortitzaren adina.  3. Bikote-harreman ez-egonkorrak.  4. Enpleguarekin erlazionatutako arazoak.  5. Substantzia adiktiboak kontsumitzearekin erlazionatutako arazoak.  6. Buruko nahasmendu larria.  7. Psikopatia.  8. Gazteen orekarik eza.  9. Nortasunaren nahasmendua.  10. Gainbegiratze-lanak ez betetzea.  Item klinikoak:  11. Introspekziarik eza  12. Jokabide negatiboak  13. Gaur egun buruko nahasmendu larriaren sintomak izatea.  14. Oldarkortasuna.  15. Ez dio tratamenduari erantzuten.	3 puntuko eskala, arrisku-faktoreak zer neurritan dauden (0,1, 2)

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

			<p>Arriskua kudeatzeko itemak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>16. Etorkizuneko plan bideragarririk eza.</li> <li>17. Faktore ezegonkortzaileak erakustea.</li> <li>18. Laguntza sozialik eza.</li> <li>19. Agindutako tratamenduak ez betetzea.</li> <li>20. Estres-maila handia.</li> </ul>	
VRAG	12.	Multzorik gabe, askotariko edukikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>1. Hareren Psikopatia Zerrenda Berrikusian (1991) lortutako puntuazioa.</li> <li>2. Orekarik ezeko maila Lehen Hezkuntzan.</li> <li>3. 16 urterekin gurasoekin bizitzea.</li> <li>4. Delitu ez-bortitzei buruzko Cormier-Langen indizea</li> <li>5. Egoera zibila oraingo delitua egitean</li> <li>6. Adina delitua egitean</li> <li>7. Baldintzapeko askatasuna urratzea</li> <li>8. Oraingo delituaren biktimari eragindako lesioen larritasuna</li> <li>9. Nortasunaren nahasmendua egotea</li> <li>10. Eskizofrenia-diagnostikoa</li> <li>11. Emakumezko biktima</li> <li>12. Alkohol-abusuko historia</li> </ul>	Item bakoitzak balorazio propioa du, eta positiboa edo negatiboa izan daiteke (hauen artean: -8 eta +5).

EPV-R	20.	<p>5 item-multzo:</p> <p>Datu pertsonalak (n=1)</p> <p>Bikote-harremanaren azken 6 hilabeteetako egoera (n=2)</p> <p>Indarkeria-mota azken 6 hilabeteetan (n=7)</p> <p>Erasotzailearen profila (n=7)</p> <p>Biktimaren zaurgarritasuna (n=3)</p>	<p>Datu pertsonalak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Erasotzailea edo biktima atzerritarra izatea</li> </ol> <p>Bikote-harremanaren egoera:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>2. Duela gutxi banandu izatea edo banantzeko izapideak egiten aritzea</li> <li>3. Berriki biktima jazartzea edo urruntze-agindua urratzea</li> </ol> <p>Indarkeria-mota:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. Lesioak eragin ditzakeen indarkeria fisikoa egotea</li> <li>5. Seme-alaben edo beste senide batzuen aurrean indarkeria fisikoa eragitea</li> <li>6. Azken hilabeteen gertaeren maiztasuna eta larritasuna areagotzea</li> <li>7. Azken hilabeteen mehatxu larriak edo heriotza-mehatxuak egitea</li> <li>8. Objektu arriskutsuekin edo edozein motatako armekin mehatxatzea</li> <li>9. Lesio larriak edo oso larriak eragiteko asmo garbia izatea</li> <li>10. Bikote-harremanetan sexu-erasoak egotea</li> </ol> <p>Erasotzailearen profila:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>11. Bikotekidearekiko jelskortasun handia edo jokabide kontrolatzaileak</li> </ol>	<p>Item bakoitzak bi balio posible ditu:</p> <p>0 = arrisku-faktorerik eza.</p> <p>1, 2 edo 3 = arrisku-faktorearen presentzia (faktorearen eta indarkeriaren arteko loturaren arabera)</p>
-------	-----	--	--	---



			<p>12. Aurreko bikotekide batekin jokabide bortitzak eduki izatea</p> <p>13. Beste pertsona batzuekin jokabide bortitzak eduki izatea (lagunak, lankideak, etab.)</p> <p>14. Alkohol edo droga gehiegi kontsumitzea</p> <p>15. Aurretik gaixotasun mentala eduki izatea eta tratamendu psikiatrikoak edo psikologikoak bertan behera utzi izatea</p> <p>16. Biktima krudelkeriaz edo erdeinuz tratatzea, eta egindakoaz ez damutzea</p> <p>17. Beren egoeragatik (alkohola, drogak, estresa) edo biktimak berotuta jokabide bortitzak izatea</p> <p>Biktimaren zaurgarritasuna:</p> <p>18. Azken hilabetean biktimak heriotza-pertzepzioa eduki izatea</p> <p>19. Aurreko salaketak kentzen saiatzea, edo erasotzailea uzteko edo salatzeko erabakian atzera egiten saiatzea</p> <p>20. Biktimaren zaurgarritasuna gaixotasunagatik, bakardadeagatik edo menpekotasunagatik</p>	
SARA	20.	4 item-multzo:  Delitu-historia (n=3)	<p>Delitu-historia:</p> <p>1. Familiako kideen aurka aurretik indarkeria erabili izatea</p> <p>2. Ezezagunen edo familiakoak ez diren ezagunen aurka aurretik indarkeria erabili izatea</p>	3 puntuko eskala, arrisku-faktorea egotearen arabera (Bai/Badago / Agian badago / Frogarik ez) eta item bakoitzaren balorazioaren arabera

	<p>Doikuntza psikosoziala (n=7)</p> <p>Bikote barruko indarkeriaren historia (n=7)</p> <p>Oraingo delitua/erasoa (n=3)</p> <p>Beste alderdi batzuk (ez dago itemik)</p>	<p>3. Baldintzapeko askatasuna edo antzeko beste neurri judizial batzuk urratzea</p> <p>Doikuntza psikosoziala:</p> <p>4. Bikote-harremanetan duela gutxi arazoak egon izatea</p> <p>5. Duela gutxi lan-arazoak eduki izatea</p> <p>6. Haurtzaroan edo nerabezaroan familia-indarkeriaren biktima edo lekuko izatea</p> <p>7. Duela gutxi droga (gehiegi) kontsumitu izatea</p> <p>8. Duela gutxi bere buruz beste egiteko edo norbait hiltzeko ideia/asmoa eduki izatea</p> <p>9. Duela gutxi sintoma psikotikoak edo sintoma maniakoak eduki izatea</p> <p>10. Nortasunaren nahasmendua, amorruekin, oldarkortasunarekin edo jokabide-ezegonkortasunarekin</p> <p>Bikotekidearen aurkako indarkeria-historia:</p> <p>11. Aurretik indarkeria fisikoa erabili izatea</p> <p>12. Iraganean sexu-indarkeria edo sexu-jeloskortasuneko erasoak eduki izatea</p> <p>13. Iraganean armak erabili izatea edo heriotza-mehatxu sinesgarriak egin izatea</p> <p>14. Duela gutxi erasoen maiztasuna edo larritasuna areagotu izatea</p> <p>15. Aurretik urrutze-aginduak urratu edo ez bete izatea</p> <p>16. Aurretik bikotekidearen aurka erabilitako indarkeria muturrera minimizatzea edo hari uko egitea</p>	<p>kritikoa den ala ez kontuan hartuta, erantzun dikotomikoaren bidez (Bai/Ez)</p>
--	---	---	--

			<p>17. Bikotekidearen aurkako indarkeria babesten edo onartzen duten jarrerak</p> <p>Oraingo delitua/erasoa (balorazioa eragiten duena):</p> <p>18. Indarkeria fisiko edo sexu-indarkeria larria</p> <p>19. Armak erabiltzea edo heriotza-mehatxu sinesgarriak egitea</p> <p>20. Urruntze-aginduak urratzea edo ez betetzea</p> <p>Beste alderdi batzuk:</p> <p>*</p>	
SVR-20	20.	<p>3 item-multzo:</p> <p>Doikuntza psikosoziala (n=11)</p> <p>Sexu-delituak (n=7)</p> <p>Etorkizuneko planak (n=2)</p>	<p>Doikuntza psikosoziala:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Sexu-desbideratzea</li> <li>2. Haurtzaroan abusuak jasan izatea</li> <li>3. Psikopatia</li> <li>4. Buruko nahasmendu larria</li> <li>5. Substantzia toxikoak kontsumitzearekin erlazionatutako arazoak</li> <li>6. Suizidio-/Hilketa-ideiak</li> <li>7. Pertsona arteko arazoak</li> <li>8. Lan-arazoak</li> <li>9. Delitu bortitz ez-sexualen aurrekariak</li> <li>10. Delitu ez-bortitzen aurrekariak</li> <li>11. Aurretik hartutako gainbegiratze-neurrietan porrot egitea</li> </ol>	<p>3 puntuko eskala, arrisku-faktorea egotearen arabera (Ez, Bai, ?).</p> <p>Duela gutxi aldaketarik izan den adierazi behar da (-, o, +). Ikerketan, puntuazio bat esleitzen zaio item bakoitzari (0, 1, 2)</p>

			<p>Sexu-delituak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>12. Sexu-delituen maiztasun handia</li> <li>13. Sexu-delituen askotariko tipologia</li> <li>14. Sexu-delituen biktimari kalte fisikoa eragitea</li> <li>15. Sexu-delituetan armak erabili izatea edo heriotza-mehatxu sinesgarriak egin izatea</li> <li>16. Sexu-delituen maiztasunaren eta larritasunaren bilakaera</li> <li>17. Sexu-delituak muturreraino minimizatzea edo ukatzea</li> <li>18. Sexu-delituak babesten edo onartzen dituzten jokabideak</li> </ol> <p>Etorkizuneko planak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>19. Plan errealistik/bideragarriak ez izatea</li> <li>20. Esku-hartzearen kontrako jokabide negatiboa</li> </ol>	
SAVRY	30.	<p>4 item-multzo:</p> <p>Arrisku-faktoreak (n=24)</p> <p>10 item historiko, 6 item sozial/kultural, 8 item indibidual)</p>	<p><u>Arrisku-faktoreak</u></p> <p>Item historikoak:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aurreko indarkeria</li> <li>2. Delitu-ekintza ez-bortitzen historia</li> <li>3. Indarkeria goiz hasia</li> <li>4. Iraganeko segimendua / esku-hartzeen porrota</li> <li>5. Aurretik nork bere burua lesionatzen edo bere buruaz beste egiten saiatzea</li> <li>6. Etxean indarkeriaren eraginpean egotea</li> <li>7. Haurren aurkako tratu txarren historia</li> </ol>	<p>3 puntuko eskala, faktorea zer neurritan dagoen: baxua, ertaina, altua. Ikerketetan, zenbakizko eskala erabil daiteke (0, 1, 2).</p>

		<p>Babes-faktoreak</p> <p>(n=6).</p> <p>Arrisku-faktore gehigarriak eta indarkeriaren inguruko galderak sartzen dira.</p>	<p>8. Gurasoen edo zaintzaileen delinkuentzia</p> <p>9. Gurasoak edo zaintzaileak goiz banantzea</p> <p>10. Eskolan errendimendu txikia izatea</p> <p>Item sozialak/kulturalak:</p> <p>11. Berdinkideen arteko delinkuentzia</p> <p>12. Berdinkideek baztertzea</p> <p>13. Estresa eta zailtasunei aurre egiteko ezintasuna</p> <p>14. Gurasoek hezteko gaitasun txikia izatea</p> <p>15. Beste heldu baten babes pertsonala/soziala ez izatea</p> <p>16. Ingurune marjinala</p> <p>Item indibidualak:</p> <p>17. Jokabide negatiboak</p> <p>18. Arriskuak hartzea / Oldarkortasuna</p> <p>19. Substantziak kontsumitzearekin erlazionatutako arazoak</p> <p>20. Haserrea kudeatzeko arazoak</p> <p>21. Enpatia-/Ausiki-maila txikia</p> <p>22. Kontzentrazio-/ Hiperaktibitate-arazoak</p> <p>23. Esku-hartzeetan gutxi laguntzea</p> <p>24. Eskolarekiko edo lanarekiko interes/konpromiso txikia</p> <p><u>Babes-faktoreak:</u></p>	
--	--	---	--	--

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

			<p>25. Inplikazio prosoziala</p> <p>26. Gizarte-babes handia</p> <p>27. Gutxienez heldu prosozial batekin lotura handiak izatea</p> <p>28. Esku-hartzeekiko eta agintariekiko jarrera positiboa</p> <p>29. Eskolarekiko edo lanarekiko konpromisoa sendoa</p> <p>30. Pertseberantzia nortasunaren ezaugarri gisa</p> <p>Kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk:</p> <p>*</p>	
PCL-R	20.	Multzorik gabe, askotariko edukikoa	<p>1. Hitz egiteko erraztasuna / Azaleko xarma</p> <p>2. Norberaren balioaren zentzu ikaragarria</p> <p>3. Estimulazio-beharra / Asperdurarako joera</p> <p>4. Gezurti patologikoa</p> <p>5. Iruzurgilea/Manipulatzaila</p> <p>6. Ausikirik edo erru-sentimendurik eza</p> <p>7. Azaleko afektua</p> <p>8. Sentikortasun afektiborik eza / Enpatiarik eza</p> <p>9. Parasito-bizimodua</p> <p>10. Jokabidearen autokontrol eskasa</p> <p>11. Sexu-jokabide promiskua</p> <p>12. Hautzaroan jokabide-arazoak eduki izatea</p>	Hiru puntuko eskala arrunta (0, 1, 2); jokabidea itemaren deskribapenarekin zer neurritan bat datorren ebaluatzen du. Item batzuek irizpide espezifikoak dituzte (17-20 itemak).

4. txostena

*Etxeko indarkeriaren biktima diren erabiltzaileak ATENPRO zerbitzuan sartzeko prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko behar diren adierazleen definizioa*

			<ol style="list-style-type: none"><li>13. Epe luzerako xede errealistik ez izatea</li><li>14. Oldarkortasuna</li><li>15. Erantzukizunik eza</li><li>16. Norberaren ekintzekiko erantzukizunak onartu ezin izatea</li><li>17. Iraupen laburreko ezkon-harreman ohikoak</li><li>18. Gazteen delinkuentzia</li><li>19. Baldintzapeko askatasuna baliogabetzea</li><li>20. Aldakortasun kriminala</li></ol>	
--	--	--	---	--

## ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Analisian lortutako emaitzetatik abiatuta, zenbait ohar eta gomendio egiten dira etxeko indarkeria baloratzeko tresna diseinatzeko orduan.

1. Oro har, aztertutako eskalak ez daude etxeko indarkeriaren arriskua ebaluatzerantz bideratuta, baizik eta beste indarkeria-mota batzuk (pertsonei aurkako, bikotekidearen aurkako, sexuala). Eskala batzuek (adib., EPV-R eta SARA) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eta seme-alaben aurkako indarkeria egiteko aukera baloratzen dute, baina haur eta nerabeen biktimizazioarekin erlazionatutako faktoreak sartu gabe. Horrenbestez, etxeko indarkeria zehazki eta esklusiboki ebaluatzea helburu duen tresna bat diseinatu behar da, eta, horri esker, eskalak baliozkotasun eta erabilgarritasun handiagoa izango luke nahi den testuinguruan. Tresna honek etxeko indarkeriaren definizio operatiboa izan behar du, eta hor sartzeko diren indarkeria-mota guztiak kontuan hartu; besteak beste, fisikoa, psikologikoa edo emozionala, sexuala, etab.
2. Tresna berriak ikuspegi aktuariala, iritsi profesional egituraturakoa edo bien konbinazioa izan dezake, baina, edonola ere, azken balorazioan atal bat izango du, ebaluazioa egin duen profesionalak txosten bat gehitu ahal izan dezan, baloraziotik ateratako ondorioak biltzeko, arriskua kudeatzeko gomendio espezifikoak emateko eta biktimak babestearren hartu behar diren neurriak proposatzeko. Tresna aktuarial bat aukeratuz gero, baremo zehatz bat izan behar litzateke, indarkeria-motara eta biztanleria espezifikora egokitua.
3. Tresnan jasotako item espezifikoek eredu teoriko eskuragarriak eta arrisku- eta babes-faktoreak berrikustearren emaitza izan behar lukete, bai biktimizazioari eta indarkeria-mota hori eragiteari dagokienez, bai tartean diren pertsonen dagokienez (bikotekidea/bikotekide ohi, haurrak eta nerabeak). Era berean, arriskuaren faktore estatistikoak eta arriskuaren faktore dinamikoak jaso behar dira ebaluazioan; horrenbestez, segimendua, gainbegiratzea eta esku-hartzea ahalbidetzen dituen arrisku-egoeraren ikuspegia hartu da.
4. Itemen erantzun-formatuan, gomendagarria litzateke, faktorea badagoen ala ez dagoen ez ezik, gaur egun arrisku-mailan edo indarkeria gertatzeko probabilitatean eta haren larritasunean nola eragiten duen ere adierazi ahal izatea. Aukeretako bat da arriskuaren balorazioan item kritiko bat edo pisu handiagokoa dela adieraztea eta azken atalean edo balorazio-txostenean justifikatzea.
5. Tresnaren hartzaileen artean biktimak sartzeko. Funtsezko alderdia izan daiteke hori zaurgarritasuna areagotu dezaketen eta haiek babesteko erabakiak hartzen lagun dezaketen faktoreak identifikatzea.



6. Ebaluazioan biktimek duten arriskuaren eta zaurgarritasunaren pertzepzioa sartzea. Hala ere, gomendagarria litzateke adierazle edo kontrol-itemen bat sartzea, ebaluazioa egingo duen profesionalari adierazteko biktima arriskua gutxiesten ari dela.
7. Biktimen eta erasotzaileen espezifikotasuna kontuan hartzea, kontuan izanda haien adina (gazteak, helduak, adinekoak), ezaugarri soziodemografikoak (diru-sarrerak, jatorria, egoera administratiboa, etab.) eta arrisku-faktore gisa joka dezaketen edo beste arrisku-faktore batzuen efektua areagotu dezaketen beste ezaugarri esanguratsu batzuk (desgaitasuna, aurreko biktimizazioa). Halaber, tresna biztanletalde espezifikoekin erabilgarria den baloratu behar da; esaterako, trans emakumeekin.
8. Ateratzen den tresnak erraz aplikatzeko modukoa izan behar luke indarkeriaren arloan ezagutzak eta esperientzia dituzten profesionalentzat, baita bideragarria ere denborari eta baliabide erabilgarriei dagokienez.
9. Erabilgarria litzateke item bakoitza baloratu ahal izateko informazio-iturrien zerrenda bat sartzea. Era berean, arriskuari buruzko azken emaitzan, kontsultatutako iturriak aipatzen dituen atal bat jarri behar litzateke.
10. Argibide espezifikoak biltzea, jakiteko oro har noiz izan daitekeen beharrezkoa arriskuaren ebaluazioa berrikustea (adib., hasiera batean hiru edo sei hilabetez behin; gero, urtean behin), baita arrisku-faktore - edo -agertoki batean aldaketaren bat gertatzen denean ere (adib., banantzea/dibortzioa). Arriskua ebaluatzen bada, arriskua kudeatzeko neurriak ere ebaluatu behar dira.
11. Gomendagarria litzateke garatutako tresnak, indarkeria-egoera bat gertatzeko probabilitatea ez ezik, arriskuaren beste adierazle edo osagai batzuk ere baloratzeko aukera ematea; esaterako, indarkeriaren larritasuna, berehalakotasuna eta hilketa-arriskua.
12. Ikuspegi zabalagoa eta antolatuagoa eskaintzen duen arriskua kudeatzeko protokolo edo sistema baten parte den ebaluazio-baliabide gisa jasotzea tresna. Horrela, ebaluaziotik abiatuta, esku hartzeko estrategia bat diseinatu eta ezarri ahal izango da; estrategia horrek profesional koordinatuen eta baliabide erabilgarri, baliagarri, eskuragarri eta eraginkorren sare bat izango du.

## 5. txostena

*Estatistikaren definizioarako datu eta gakoen analisiaren definizioa*

## I. Aurrekariak eta testuingurua

Adimen artifizialaren (AA) sustapena 2020ko uztailean aurkeztu zen 2025erako España Digital Agendako elementu nagusietako bat da. Zehazki, 9. ekintza-ildoan (Datuen ekonomia eta adimen artifiziala), funtsezko elementu gisa definitzen du adimen artifiziala ekoizpen-eredua eraldatzeko, Espainiako ekonomiaren hazkundera sustatzeko, eta, hemen dagokigunez, gizartea eraldatzeko (hala nola zerbitzu publikoen funtzionamendua eta administrazioen gardentasuna), baita gizarte-erronka handiei heltzeko ere (hala nola genero-arrakala).

Testuinguru honetan, Europar Batasuneko politikarekin argi eta garbi lerrokatuta, Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala (ENIA) prestatu da: <https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2020/ENIA2B.pdf>

Jardun-ardatz estrategikoen barruan, administrazio publikoan eta misio estrategiko nazionaletan AA gehiago erabiltzea dago 5.ean. AAren eta administrazioaren arteko harremana elkarrentzat onuragarria izan daitekeelako auresuposiziotik abiatuta, nabarmentzen da AAri esker zehatzago ezagut daitekeela gizartea, jarduteko lehentasunak zehaztuz eta lehia-abantailak dituzten arloak eta arlo kaltetuenak identifikatuz, eta, administrazioaren jarduerak, berriz, AAri onura ekar diezaiokela, hura finantzatzeko eta sustatzeko eta bere prozesuetan integratzeko tresna guztiak zabalduz.

Ardatz estrategikoetako bakoitzaren definizioarekin batera, Estrategiak zenbait neurri biltzen ditu. Hain zuzen ere, 5. zenbakiko ardatzerako, hauek ezartzen dira: AA administrazio publikoan txertatzea, administrazio publiko guztietan AA zerbitzu eta aplikazio berrietarako berrikuntza-laborategi bat martxan jartzea (*GobTechLab*), administrazioan AA eskumenak sustatzea, "Datuetan oinarritutako kudeaketa publikorako AA" programa ezartzea, eta administrazio publikoaren arloan misio estrategiko nazionalak sustatzea, AAk eragina izan badezake (osasuna, justizia, enplegua, etab.).

## II. Diagnostikoa

AAren Espainiako politika formulazio-fasean egon arren, guztiz bat dator Europar Batasunak herrialde kideetan AA diseinatzeko eta ezartzeko ezarritako erreferentzia-esparruarekin. Horren harira, nabarmendu behar da EB eredu propioa garatzen ari dela, txinatarraren eta estatubatuarren kontrara, eta bi oinarri hauetan bermatuko dela: giza eskubideak aintzat hartzeko beharra, eta datu pertsonalen babes zorrotza.

Antolaketari dagokionez, Espainiak Digitalizazioaren eta Adimen Artifizialaren Estatu Idazkaritza du, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren menpe, eta AA garatzeko eskumen zuzena du. Digitalizazioaren eta Adimen Artifizialaren Estatu Idazkaritzaren menpe, Datuaren Bulegoa sortu da, eta hura da erakunde eskuduna

gobernantzaren eta Datuaren Ekonomia zeharka garatzeko datuak partekatzearen arloan: <https://portal.mineco.gob.es/es-es/digitalizacionIA/oficina-del-dato/Paginas/oficina-del-dato-se-digitalizacion-ia.aspx>

Bulego horrekin batera, Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala argitaratu da, Eskubide Digitalen Gutuna prestatu da, eta AAren Aholku Batzordea sortu da, eta, haiei guztiei esker, gure herrialdea norabide egokian doala esan dezakegu.

Gaur egun, badira zenbait froga AA sistemak erakundeetan eta haientzat lan egiten duten pertsonengan zer efektu izaten ari diren ebaluatzeko. COVID-19aren krisialdian hartutako neurrietako batzuekin batera (horren harira, ikus ENIAren 2. eranskina), bereziki etxeko indarkeriari lotutako problematikari dagokionez, Aporta izeneko ekimenak informazio publikoa zabaltzea eta datuetan oinarritutako zerbitzu aurreratuak garatzea du helburu, abian diren datu-proiektuen arteko sinergiak eraginkortasunez harmonizatuta eta aprobetxatuta. Ekimen horrek Justizia datutan izeneko atari bat sortu du Justizia Ministerioan, eta, haren barruan, Emakumea Justiziaren bidez izeneko atal bat. Atal horretan, haren eskumeneko arloetan (esaterako, genero-indarkeria) emakumeak duen egoerari buruzko informazio kuantitatiboa eskaintzen da (<https://datos.justicia.es/la-mujer-desde-la-justicia-violencia-de-genero>).

### III. Gomendioak

1. Aporta ekimenaren testuinguruan genero-indarkeriarako eta etxeko indarkeriarako aurkitutako datu guztietan, ATENPRO-rekin erlazionatutakoak jasotzea.
2. Etxeko indarkeriaren arazoari buruz kontzientziaztea eta hura agerian jartzea helburu duten ekimenean laguntzea, informazio kuantitatiboa emanez.
3. Etxeko indarkeriaren biktimei laguntzeko tresnak prestatzen dituzten eta irtenbideak bilatzen dituzten ekimenean laguntzea, informazio kuantitatiboa emanez.
4. *The Official Portal for European Data* atariaren testuinguruan genero-indarkeriarako eta etxeko indarkeriarako aurkitutako datu guztietan, ATENPRO-rekin erlazionatutakoak jasotzea.

Gure ikerketan, datuen fluxu, aniztasun eta bolumen mugatua ikusita, ezin izan da Big Data estrategia bat sortu, baina uste dugu testuinguru honetan, erakundeek/entitateek gehiago parte hartuz gero, oso erabilgarria litzateke erabakiak hartzeko.

## 6. txostena

*Esku hartzeko zerbitzu  
lokalen analisia*

Analisi hau egiteko, hogeita bost toki-entitate hautatu dira, bilaketa zabalagoa eta orokorragoa egin ondoren esku hartzeko ereduari, ematen dituzten zerbitzuei edo genero-indarkeriarako edo etxeko indarkeriarako dituzten tresnei dagokienez gure ustez interesgarrienak zirenak.

## I. Bilboko Udala

- Udalerria: Bilbo (Bizkaia)
- Biztanleak: 345.821 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Bilboko Udaleko Berdintasun, Bizikidetzeta, Lankidetzeta eta Jaien Sailak arreta osoa ematen die genero-indarkeriaren biktima diren emakumei eta haien ardurapean dauden pertsoneri
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [berdintasuna@bilbao.eus](mailto:berdintasuna@bilbao.eus)
  - Tel.: 944 204 200

Bilboko Udalak genero-berdintasuna sustatzearen eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatzearen alde hartu duen konpromisoa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako hainbat planen garapenean eta gauzatzean oinarritzen da (gaur egun, Berdintasunerako V. Plana gauzatzen ari dira), baita Bilboko Udalak 2018ko martxoaren 22ko ohiko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lehenengo Udal Ordenantzan ere.

Tresna arau-emaila horren helburu nagusia da diskriminazio eta desberdintasun sozial eta generokoak sortzen eta birsortzen dituzten egiturak ezabatzea eta udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren kausak eta efektuak desagerraraztea. Xede horretarako, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan Bilboko Udalaren eta haren menpeko gainerako entitateen jarduna bideratu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu; Bilboko Udalaren jardun-esparru guztietan aniztasuna eta desberdintasuna errespetatuz emakume guztiek beren eskubideak erabili ahal izateko beharrezko baldintzak sustatzera eta bermatzera bideratutako neurrien multzoa arautzen du; eta emakume guztien ahalduntzea sustatzen du, haien posizio soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala indartzeko asmoz, haien aurkako diskriminazio-modu guztiak desagerraraziz, beren eskubideak eraginkortasunez eta benetan erabiltzen dituztela bermatzeko.

Xede horiek lortuko direla bermatzeko, udal-ordenantza horretako 7. artikulua dioenaren arabera, "Jardute-eremu transbertsala du Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Sailak, eta bere helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal politikak bultzatzea — genero-indarkeria prebenitzea, eta indarkeria hori jasaten duten emakumei arreta ematea barne—".

Horretarako, Genero Indarkeria Artatzeko eta Prebenitzeko Udal Gizarte Zerbitzua egotea aurreikusten da.

Zerbitzu horrek genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeentzako prebentzio eta arretarako udal-programa bat du, zeinaren helburua baita Bilbon bizi diren eta egoera hauetako batean dauden emakumeei arreta pertsonala, integrala, jarraitua, espezializatua, koordinatua eta premiazkoa ematea:

- a) Bikote-harremanetan gatazkak badituzte (bikote ezkonduak edo izatezko bikoteak, orain edo iraganean).
- b) Tratu txar fisikoen, sexualen, psikologikoen... biktima badira. Hauek ere sartzen dira: zerbait egitera behartzeko mehatxuak edo hertsapenak; mugitzeko, beste pertsona batzuekin elkartzeko edo jarduerak egiteko askatasun-falta; kontrol ekonomikoa; etab.

Zerbitzu horrek berdintasuneko, prebentzioko, dibertsitatearekiko errespetuko, partaidetzako eta eraginkortasuneko printzipioei jarraitzen die. Arlo hauek koordinatzen dituzte zerbitzua ematen duten sailek:

- a) polizia-babesa eta -arreta,
- b) gizarte-arreta espezializatua eta premiazkoa,
- c) laguntza juridikoa eta psikologikoa,
- d) babes- eta laguntza-baliabideak, eta
- e) prestazio ekonomikoak.

Jardun-ildo nagusiak bi ekintza-ardatz nagusiri dagozkie:

**(i) Informazioa eta orientazioa ematea.** Herritarrek oro har eta emakumeek bereziki genero-indarkeriari, dauzkaten eskubideei eta baliabide erabilgarriei buruzko informazioa izatea da helburua. Horretarako, hauen berri ematen zaie genero-indarkeriako egoeran dauden herritarrei eta emakumeei:

- mota horretako indarkeriaren kausak, zikloa eta ondorioak.
- legeak biktimei aitortzen dizkien eskubideak.
- salaketa eta "babes-agindua".
- Emakumeak beharrei eta egoerari erantzuteko egokienak diren zerbitzu eta baliabideetara bideratzea, eta haietara nola iritsi eta haietara iristeko zer behar den jakinaraztea.

**(ii) Premia-egoeretan gizarte-arreta espezializatua eskaintzea.** Eskuduntzen artean, hauek daude:

- Genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeei eta ardurapean dituzten pertsoneri (seme-alabak, edo menpeko helduak) informazioa, argibideak eta aholkua ematea.
- Emakumeei osasun-zentrora laguntzea eta, behar izanez gero, premiazko ostatu-zentrora.
- Emakumeei eta baimenduei polizia-etxean doako laguntza juridikoa lortzen eta larrialdietako gizarte-zerbitzuetara jotzen laguntzea.
- Salaketa eta "babes-aginduaren" eskaera izapidetzea.
- "Kautelazko babes-neurriak" abian jartzea, ikusiz gero emakumea aldi batez babestu behar dela.
- Ohiko etxebizitzatik irten behar duten eta bizitzeko beste leku segururik ez duten emakumeei larrialdiko ostatua eskaintzea, 24 orduetan eta urteko egun guztietan.

**(iii) Egoera ez-premiazkoetan gizarte-arreta espezializatua ematea.** Emakumeei berriz ere bizitza autonomoa eta indarkeriarik gabea eman nahi zaie, jardun hauek ezarrita:

- Zerbitzuak emakumeak artatzea eta haiei entzutea, eta eremu konfidentzial bat eskaintzea.
- Emakumeei beren eskubideak eta betebeharrak jakinaraztea.
- Beharren eta egoeraren hasierako balorazioa egitea.
- Emakumearekin batera, haren beharretara egokitutako "Arreta pertsonalizatuko plana" prestatzea, bizitza autonomoa eta indarkeriarik gabea berreskuratzeko.
- Emakumeari eskubidez dagozkion zerbitzu eta prestazio ekonomikoak izapidetzea.
- Lana beste zerbitzu eta profesional batzuekin koordinatzea.
- Arreta psikologikoa: zerbitzu espezializatueta bideratzea, hasierako arreta emateko, eta esku-hartzea, ebaluazioa eta segimendu terapeutikoa egiteko.
- Emakumeei prozesu osoan zehar laguntzea, baita, behar denean, segimenduan eta ebaluazioan ere.
- Gizarteratzea sustatzea: legeak bermatzen dizkien enplegua eta etxebizitza bilatzeko programetara bideratzea.



- Emakumeek elkarteetan eta komunitatearen baliabideetan parte har dezaten sustatzea.

**(iv) Udal-etxebizitzetan artatzea.** Emakumeak eta ardurapean dituzten pertsonak (seme-alabak, menpeko helduak) sendatzea eta indarkeria-egoera gainditzea nahi da, seguru sentiaraziko dituen aldi baterako ostatu batean. Horretarako, zera aurreikusten da:

- Udal-etxebizitza batean aldi batez arreta ematea sendatzeko eta indarkeria-egoera gainditzeko aukera emango dien ostatu bat behar duten emakumeei eta haien ardurapeko pertsonari, baldin eta sartzeko baldintzak betetzen badituzte.
- Emakumea eta haien seme-alabak gizarte- eta hezkuntza-gaietan babestea.
- Beste zerbitzu eta erakunde batzuekin (epaitegiak, osasun-zentroak, etab.) egin beharreko izapideak egiten laguntzea emakumei, prozesu osoan zehar.
- Bizitoki-aldaketaren ondorioz egin beharreko administrazio-izapideak kudeatzea eta koordinatzea (seme-alabak eskolatzea, osasun-txartela, etab.).
- Beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko eta taldean ikasteko eremuak eskaintzea emakumei.
- Harrera-etxebizitzatik irteten laguntzea eta irten ondoren segimendua egiteko eskaintzea.

## II. Almeríako Udala

- Udalerria: Almería (Almería)
- Biztanleak: 196.851 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Almeríako Udaleko Emakumearen Zentroak
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [mrey-externo@aytoalmeria.es](mailto:mrey-externo@aytoalmeria.es)
  - Tel.: 950 21 00 00 Luz.: 7720.

Almeríako Udalak Almeríako Udaleko Emakumearen Zentroak izeneko bidez bideratzen du berdintasun-arloan eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan egiten duen lana. Zentro horiek emakumea artatzeko eta zaintzeko udal-espazio gisa ikusten dira, baina gizonak ere

har dezake parte Emakumeek erabiltzeko sortu ziren, berdintasunaren, genero-indarkeriaren, emakumeak ahalduz, eta osasun fisikoa, burukoa eta emozionala zaintzearen arloan aurrera egiteko asmoz, hauen bidez: aholkularitzak, trebakuntza-hitzaldiak, trebakuntza- eta aisialdi-jardueretako programak, kontziliazio-neurriak, zerbitzuak trukatzeko programak, bitartekotza, etab.

Espazio horietan, emakumeentzako zerbitzu hauek ematen dira:

**(i) Genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeentzako esku-hartzeko psikologikoa (banakakoa eta taldekoa).** Zerbitzu honekin, helburu hauek erdietsi nahi ditugu:

- Emakumeei jarraibideak eta segurtasun-neurriak ematea.
- Autoestimua berreskuratzea eta ahalduz sendotzea.
- Lotura pertsonal esanguratsuak berrezartzea.
- Gizarte-gaitasunak eta erabakimena indartzea.
- Eragindako kaltea konpontzea.

**(ii) Aholkularitza Juridikoko Udal Zerbitzua.** Emakumeen Zentroek arreta eta aholkularitza juridiko integrala eta espezializatua eskaintzen diete Almeriako hiriko emakumeei. Horretarako, abokatu-talde bat dute, eta abokatu horiek lege-arazo guztien inguruko aholkularitza emango dute:

- Informazioa eta aholkularitza juridikoa ematea arreta integrala behar duten emakumeei, beren arazo guztiei erantzun ahal izateko.
- Egoera bakoitzean hartu beharreko neurrien berri ematea.
- Behar izanez gero, izapideak eta kudeaketak egiten laguntzea.
- Baliabide publiko eta pribatuetara bideratzea.
- Doako laguntza juridikoa lortzeko jarraibideak ematea.

**(iii) Familia Bitartekotzako Udal Zerbitzua.** Borondatezko prozedura konfidentzial gisa ulertzen da, familiako kideen artean komunikazio eraginkorra eta eraikitzailea ahalbidetzera zuzendua. Bitarteko baten laguntzarekin, inpartziala eta naturala. Alderdiak beren kabuz lortuko dute irtenbide adostua eta iraunkorra gatazka konpontzeko, eta beharrezko estrategiak garatuko dituzte etorkizuneko gorabeherak kudeatzeko.

Gaur egun, Almeríako Udalak Emakumearen hiru Zentro ditu: Terrizako

Emakumearen Zentroa

C/ Terriza, 9. Almería

Tel.: 950 28 27 67

Helbide elektronikoa: [centromujer.terriza@aytoalmeria.es](mailto:centromujer.terriza@aytoalmeria.es)

Cortijo Grandeko Emakumearen Zentroa

C/ Antonio Muñoz Zamora, 5. Almería

Tel.: 950 26 79 92

Helbide elektronikoa: [centromujer.cortijo@aytoalmeria.es](mailto:centromujer.cortijo@aytoalmeria.es)

Los Molinoseko Emakumearen Zentroa

C/ Instinción, s/n. Almería

Tel.: 950 04 72 36

Helbide elektronikoa: [centromujer.molinos@aytoalmeria.es](mailto:centromujer.molinos@aytoalmeria.es)

### III. Valladolideko Udala

- Udalerria: Valladolid (Valladolid)
- Biztanleak: 298.866 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Valladolideko Udaleko Berdintasunerako Udal Zentroak eta Gaztela eta Leongo Juntako Gizarte Ekintzako Zentroak
- Kontaktua:
  - Webgune ofiziala: <http://igualdadvalladolid.es/>
  - Tel.: 983 426 010

2021eko maiatzaren 26an, Gobernu Batzarrak Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren Aurkako VI. Udal Plan Integrala (2021-2025) onartu zuen. Haren helburu nagusia da aurrera egiten jarraitzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra

lortzeko. Horretarako, Planeko ekintzen bidez, berdintasuna eragozten eta zailtzen duten oztopoak desagerrarazi nahi dira, eta genero-indarkeriarekin erlazionatutako prebentzioa eta laguntza hobetzea. Hiru arlotan egituratzen da Udal Plana:

**(1) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna;** bost ildo ditu:

- "Genero-berdintasuna sustatzea"
- "Berdintasunerako hezkuntza eta kultura"
- "Kirola, osasuna, mugikortasuna eta ingurumena, genero-ikuspegiarekin"
- "Emakumeen gizarte-partaidetza eta ahalduntzea"
- "Enplegua eta bizi-kalitatea"

**(2) Valladolid genero-indarkeriaren aurka;** bi ildotan egituratzen da:

- "Genero-indarkeria prebenitzea"
- "Biktimentzako laguntza". Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta eta laguntza hobetu nahi da, eta genero-indarkeriaren prozesua eta haren baldintzak hobeto ezagutu.

**(3) Koordinazioa eta lankidetzak, berdintasuna lortzeko eta genero-indarkeriaren aurka egiteko udal-jardunaren tresna gisa.**

Aurrekoa esanda, Valladolideko Udalak tratatu txarren biktima diren emakumeei laguntza integrala ematera bideratuta dauden zerbitzuak eta baliabideak ditu. Hainbat ekintzaren bidez gauzatzen dira:

- Baliabide espezifiko eta espezializatuei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, eta, dagokion CEAS bidez (biktimaren bizitokiaren arabera), haietara bideratzea, 010 telefono-zenbakira deitu eta hitzordua eskatuta.
- Laguntza psikologikoa ematea, familiako esku-hartzeko taldeen bidez edo Gaztela eta Leongo Juntaren programetara bideratuta.
- Aholkularitza juridikoa ematea, Gaztela eta Leongo Juntaren programetara bideratuta, baita kasuan kasuko Abokatuen Elkargoetan genero-indarkeriaren biktimen defentsan espezializatuta dagoen txandara ere, Justizia Ministerioaren menpekoa.

- Hainbat erakunderekin elkarlanean aritzea, harrera-etxeak kudeatzeko, baita adingabeak trukatzeko topalekuak ere banantzeetan edo dibortzioetan bisita-araubideak betetzeko.
- GPS lokalizazioa duten eta udaltzaingoarekin harreman zuzena duten telefonoa mugikorreko gailuak erabiltzea, arrisku larrian dauden emakumeak babesteko.
- Emakume biktimentzako eta haien seme-alabentzako behin-behineko ostatuak jartzea.

Horrez gain, emakumearen eta, halakorik egonez gero, seme-alaben bizitza arrisku larrian jartzen duten genero-indarkeriako kasuetan, Valladolideko Udaltzaingoko Etxeko Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zerbitzuarekin (SAVVD) telefonoz harremanetan jartzeko aukera ematen da, 092 telefono-zenbakian.

#### IV. Gijóngo Udala

- Udalerria: Gijón (Asturias)
- Biztanleak: 271.843 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearen Aholkularitza Zentroa (CAM)
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [oficinaigualdad@gijon.es](mailto:oficinaigualdad@gijon.es)
  - Tel.: 985 181 627

2016an, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako bigarren Gutun Lokalean hartutako konpromisoa betetzeko, Gijóngo Udalak genero-indarkeriari eskaintzen dio 4. ardatza, eta, haren barruan, sexu-jazarpenaz, sexu-erasoiez eta sexu-ustiapenerako emakumeen salerosketaz hitz egiten du. Toki-entitateak Emakumearen Aholkularitza Zentroaren bidez jarduten du. Zentro horren bidez, aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen da, telefonoz edo aurrez aurre. Gijóngo Emakumearen Aholkularitza Zentroaren ildo estrategikoen artean, hauek nabarmentzen dira:

##### (i) Biktimentzako laguntza

- Biktimentzako arreta kalitatezkoa izango dela ziurtatzea.
- Aholkularitza juridikoa eta arreta psikologikoa ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei.

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eragiten dieten era guztietako prozedura judizialen segimendua egitea.

#### **(ii) Prebentzioa eta sentsibilizazioa**

- Biztanleak oro har genero-indarkeriaren arazoari buruz sentsibilizatzea.
- Emakumeen eta adingabeen aurkako indarkeria-mota oro prebenitzea.
- Autoestimuari eta hazkunde pertsonalari buruzko trebakuntza ematea emakumeei, baita genero-indarkeria identifikatzeko trebakuntza ere.
- Desgaitasuna duten emakumeen inguruneari ohartaraztea genero-indarkeria edo beste menpekotasunen bat jasaten ari direla, egoeratik irteten laguntzeko.
- Genero-indarkeriaren arloan trebakuntza iraunkorra sustatzea (udal-langileak, genero-indarkeriaren biktimekin esku hartzen duten profesionalak, etab.).
- Gazteak heztea, genero-indarkeria identifikatzen jakin dezaten eta gazte-gaztetatik berdintasun-balioak eskura ditzaten.
- Sare sozialak genero-indarkeriari buruzko informazioa zabaltzeko tresna gisa erabil daitezten sustatzea.

#### **(iii) Biktimentzako babesa**

- Babes-aginduen segimendua egitea, baita segurtasuna bermatzeko hartutako neurri guztiak betetzen ote ziren ikustea ere.
- Gijóngo Genero Indarkeriaren Batzorde Teknikoa sustatzea.
- Asturiasko Genero Indarkeriaren Behatoki Iraunkorrean parte hartzea.
- Printzerriko Harrera Etxeen Sarearen Segimendu Batzordean parte hartzea.

#### **(iv) Zaurgarritasun bereziko egoeran dauden emakumeak**

- Desgaitasuna duten emakumeen aurka erabiltzen den eta ezkutuan geratzen den genero-indarkeria agerian jartzea.

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakume etorkinei gure herrialdean ezarritako babes- eta segurtasun-neurriez baliatzeko aukera ematea, baita arreta-, harrera- eta laguntza-zerbitzuak erabiltzeko aukera ere, erabat leheneratzen diren arte, emakume espainiarren baldintza berberetan.

Horrez gain, Emakumearen Asturiasko Institutuak (IAM) aukera-berdintasunean espezializatutako zerbitzuak ditu, eta lurralde osoari ematen diote estaldura. Emakumearen Aholkularitza Zentroak Asturiasko Printzerriak sustatzen ditu, eta udalek eta mankomunitateak kudeatzen dituzte. Zentro horiek doako informazio eta aholkularitza juridikoa ematen diete Asturiasko Printzerrian bizi diren emakume guztiei.

Era berean, bereziki genero-indarkeriaren biktimei ematen diete aholkularitza juridikoa; kasuaren arduradun gisa jarduten dute, eta biktimei laguntzeko eta harrera egiteko eta haiek erabat leheneratzeko administrazioak abian jarri dituen neurrien segimendua egiten dute.

Arretan esku hartzen duten gainerako erakundeekin koordinatzen dira: Genero Indarkeriako Ofiziozko Txanda, Enplegu Zerbitzu Publikoa, Osasun Zerbitzu Publikoa, Gizarte Zerbitzuak eta Harrera Etxeen Lurralde Sarea.

Zerbitzu hori erabiltzeko, bizilekuaren herrialdearen arabera dagokion Emakumearen Aholkularitza Zentrora (CAM) joan behar da, besterik ez.

## V. Concello de Lugo

- Udalerria: Lugo (Lugo)
- Biztanleak: 98.025 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Casa da Muller
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [cmuller@lugo.gal](mailto:cmuller@lugo.gal)
  - Tel.: 982 297 412

Casa da Muller zerbitzuak Lugoko Udalean gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzen du, eta emakumeen beharrak artatzera bideratutako programa eta ekipamenduak ezartzeko prozesuan izandako bilakaeraren emaitza da, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planean (2021-2024) jasotakoaren arabera. Hauek dira helburu nagusietako batzuk:

- Tratu txarrei, irainei, mehatxuei eta emakumearen aurkako gainerako indarkeria-motei buruzko arreta pertsonalizatua eta doako ematea.
- Lugoko Udaleko genero-berdintasuneko politikak diseinatzea eta koordinatzea.

Casa da Muller zerbitzuak genero-indarkeriaren biktimei ematen dizkien zerbitzu estrategikoen artean jardun-arlo hauek nabarmentzen dira:

**(i) Gizarte-arreta bermatzea**

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta, behar dutenean, haien haurrentzako arreta, laguntza eta babesa bermatzea.
- Genero-indarkeriaren arloko informazio eta aholkularitza espezifiko eta espezifiko ematea hala nahi duten emakumeei.
- Jasaten ari diren indarkeria-egoeraren eta bizi duten prozesuaren ikuspegi globala eta integrala ematea emakume erabiltzaileei.
- Baliabide penalak eta sozialak mobilizatzea, emakume erabiltzaileei bizitzako eta etorkizuneko aukera posibleak emateko.
- Emakume erabiltzaileei erabakiak hartzen laguntzea, eta erabakiak hartzeko prozesuak sendotzea.
- Hala behar duten kasuen segimendua egitea eta gizarte-laguntza ematea.
- Bideratzeak egitea, eta gizarte-babeseke sistemiei dagozkien eta hala eskatzen duten zerbitzuetarako txostenak prestatzea (adibidez: enplegua, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, gizarte-segurantza, etab.).

**(ii) Arreta psikologikoa ematea**

- Tratu txarren edo genero-desberdinkerriako prozesuetan laguntza, orientazio eta aholkularitza psikologikoa ematea.
- Prozesu horietan erabakiak hartzeko jarraibideak ematea, eta sortutako sintomatologia emozionalari aurre egiten laguntzea.

**(iii) Laguntza juridikoa lortzen laguntzea**

- Banantzeak, dibortzioak, bikote ezkonduaren ekonomia-araubidea, filiazioa...
- Salaketak: indarkeria, pentsioak ez ordaintzea, etxea abandonatzea...
- Bete gabeko epaiak, doako justizia...



**(iv) Genero-indarkeriako kasuetan Galiziako Harrera Sareko etxeen arreta eta harrera ziurtatzea****(v) Genero-berdintasuna zeharka sustatzea**

- Emakumeen aukera-berdintasunarekin eta ahalduzuekin erlazionatutako plan, programa eta proiektuak programatzea, koordinatzea eta ebaluatzea.
- Lugoko Udaleko Berdintasunaren Arloko Herritarren Partaidetzarako Foroari laguntza teknikoa ematea.
- Ikastetxe eta institutuei zuzendutako berdintasunerako eta genero-indarkeriaren prebentzioarako hezkuntza-programak diseinatzea eta koordinatzea.
- Genero-berdintasunari buruzko tailerrak eta hitzaldiak antolatzea udal-langileentzat, ikastetxeetarako, elkartetarako, taldeetarako, kirol-elkartetarako, etab.
- Genero-berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko ikasmaterialak prestatzea.
- Emakumeen aurkako diskriminazio-jokabideak aldatzera eta genero-estereotipoak urratzera bideratutako sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea, antolatzea eta ebaluatzea.

**(vi) Kontziliazioa bultzatzea.** 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako "Aprende Jugando" programa ezartzea.

**VI. Terrassako Udala**

- Udalerria: Terrassa (Bartzelona)
- Biztanleak: 218.535 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumeentzako Informazio eta Arreta Zerbitzua (SIAD)
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [siad@terrassa.cat](mailto:siad@terrassa.cat)
  - Tel.: 937 397 408

Terrassako Udaleko Genero Politiken Zerbitzua arduratzen da genero-berdintasuna udal-zerbitzu eta -erakundeen arau eta jardun guztietan txertatuko dela ziurtatzeaz, emakume guztiei (bereziki, genero-indarkeria jasaten duten emakumeei) beren eskubideen inguruan aholkua, informazioa, orientazioa eta laguntza emateaz, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin erlazionatutako sentsibilizazio-, trebakuntza-

eta ikerketa-jarduerak planifikatzeaz, gauzatzeaz eta ebaluatzeaz, baita gaiari buruz emandako araudi sektorialean (alegia, Terrassako Udaleko Genero Berdintasunari buruzko Udal Erregelamenduan) jasotako gainerako ekimenak ere.

Bestalde, Emakumeentzako Informazio eta Arreta Zerbitzua (SIAD) etxeko indarkeriako egoeran dauden emakumeei informazioa, aholkularitza, lehen arreta eta laguntza emateko udal-zerbitzu nagusia. Ematen dituen zerbitzu eta jardunen artean, hauek nabarmentzen dira:

**(i) Lehen harrerako zerbitzua**

- Bikote-arazoen inguruko aholkularitza
- Gizarte-baliabideei buruzko informazioa
- Indarkeria matxistako egoeretarako orientazioa
- Zerbitzu espezializatueta bideratzea

**(ii) Aholkularitza juridikoko zerbitzua**

- Orientazioa banantze- eta dibortzio-kasuetan, izatezko bikoteentzat, etab.
- Lege-informazioa ematea: alokairuak, herentziak, epaiak betearaztea eta aldatzea, mantenu-pentsioa ez ordaintzea...
- Indarkeria matxistako kasuetako salaketei buruzko aholkularitza.
- Zerbitzu espezializatueta bideratzea.

**(iii) Arreta psikologikoko zerbitzua**

- Indarkeria matxistako egoeran dauden emakumeei orientazio, laguntza eta arreta psikologiko pertsonalizatua ematea.
- Talde terapeutikoak sortzea indarkeria matxistako egoeretako leheneratze-prozesuak indartzeko.

**(iv) Laneratzea**

- Lan-merkatuan sartzeko eta lan-merkatu itzultzeko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea.
- Trebakuntza-baliabideei eta gaikuntza profesionalari buruzko informazioa ematea, enplegu-aukerak hobetzeko.

2022an (urtarriletik urrira), Terrassako Udalak dituen datuen arabera, SIADek 4.213 esku-hartze egin zituen, eta guztira 872 emakume artatu zituen.

Horrez gain, SIADez gain, baliabide espezifiko batzuk sortu dira; esaterako, bikotearen arloko indarkeriari modu integralean heltzeko protokoloa. Halaber, Terrasako hiriak baliabide propio batzuk ditu; hauek dira:

- a) **Festa Nagusiko Punts Liles i +.** Festa-eremuetan edo kaleko jardueretan gertatzen diren eraso sexualen eta portaera sexisten eta LGTBI-fobikoen aurrean informazioa eta arreta ematen duten espazioak.

Terrassako Udalak 2018tik instalatzen ditu Punts Liles + Festa Nagusian, eta Genero Politiketako eta LGTBI+-eko zerbitzuek eraso sexualak, LGTBI-fobia eta portaera sexistak prebenitzeko sustatzen duten "Només un sí és un sí" kanpainaren barruan kokatzen dira.

- b) **Hiriko baliabideak.** Hauek nabarmentzen dira:

- **Biktimarentzako Arreta Unitatea (Udaltzaingoa eta Mossos d'Esquadra).** Funtzio hauek ditu: (i) salaketak biltzea; (ii) emakumeen segimendua egitea eta haiei laguntzea; eta (iii) babes-zerbitzuak ematea, hala nola hauek: (a) kasuan telefono bidezko segimendua egitea; (b) emakumeei laguntza pertsonala ematea; eta (c) patruila-autoak jartzea biktimen etxeetan. Halaber, hirian dauden baliabideei buruzko informazioa ematen die emakumeei.
- **Larrialdiko Ostatu Zerbitzua (SAU).** Zentro honen bidez, etxeko indarkeriaren biktima diren eta tratu txarren ondorioz etxetik joan behar izan duten emakumeen beharrei erantzun nahi zaie. Eremu horrek aldi baterako ostatu duina eta segurua bermatzen dio tratu txarren biktima den emakumeari. Udaltzaingoaren bulegoetan dago. Duintasunez eta erabat seguru bizitzeko tokia eskaintzen die pertsona horiei eta haien seme-alabei, egoerari irtenbide egokia aurkitu bitartean.  
  
Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzat da zerbitzua, seme-alabak dituzten ala ez kontuan hartu gabe. Erabiltzaileek aldi batez erabil dezakete SAU, gehienez 72 orduz, eta tarte horretan irtenbide egokia bilatuko zaio egoera horri.
- **Topalekua.** Banandu, dibortziatu edo familia beste nolabait hautsi ondoren gatazkak sortzen direnean adingabeak gurasoekin harremana izaten jarraitzeko diseinatutako espazioa. Helburu nagusia da familiako kideak elkarrekin ez bizitzearen alderdi negatiboak minimizatzea. Hirugarren

pertsona neutral bat badago, errazagoa da ordezeko aukerak aurkitzea etorkizunean aitarekiko, amarekiko edo aiton-amonekiko harremanaz gozatzeko, baliabide hau erabili beharrik izan gabe. Hauei ematen zaie zerbitzua:

- Espazio normalizatueta bisita-araubidea betetzeko zailtasunak dituzten bikoteak.
  - Epaileak hala eskatuta zerbitzu-mota hori erabili behar duten kasuak, haurraren eta familiaren ongizatea babesteko
  - Familia-inguruneaz gozatu ezin duten haurrak.
  - Familiako kide batzuen arteko harremana saihestu behar diren kasuak.
- **Tratu txarren biktimentzako ofiziozko txanda berezia.** Terrassako Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren ofiziozko txanda berezia 2000. urtean sortu zen, eta doako laguntza juridiko espezializatu ematen die bikote-harremanean edo familia-unitatean tratu txarren biktima diren pertsonari. Ofiziozko abokatua eta prokuradorea izendatzen ditu berehala, eta haiek arduratzen dira jardun zibilak edo penalak.
- **Telelaguntza.** Gizarte Zerbitzuen telelaguntza mugikorreko programak berehalako arreta egokia eskaintzen die etxeko indarkeriaren biktima diren eta babes-agindua duten emakumeei larrialdi-egoeretan. Telefonoz komunikatzeko eta telelokalizazioko teknologiak erabilita, behar diren baliabideak mobiliza daitezke (segurtasuna, osasuna eta laguntza psikosoziala), eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan emakumeen segurtasuna bermatzeko.

### c) Beste baliabide batzuk

- **Esku-hartze espezializatuko zerbitzua (SIE).** Esku-hartze Espezializatuko Zerbitzua doako zerbitzua da, eta arreta integrala eta baliabideak eskaintzen ditu leheneratze- eta erreparazio-prozesuan indarkeria jasan duten edo jasaten duten emakumeei eta haien seme-alabei. Prebentzioan, sentsibilizazioan eta inplikazio komunitarioan ere jartzen du arreta. Diziplinarteko talde profesionala du; hura osatzen duten pertsonak psikologian, gizarte-lanean, gizarte-hezkuntzan, zuzenbidean eta laneratzean titulatu daude.

Helburu nagusia da informazioa, arreta eta errekupeazioa ematea indarkeria matxistako prozesuetan egon diren edo dauden emakumeei eta ardurapean

dituzten seme-alabei, eta prebentzio-, laguntza- eta erreparazio-programa espezifiko eta integralak indartzea. Hauek dira helburu espezifikoak:

- Arreta sozial eta terapeutiko espezializatua eta jarraitua ematea bizi izandako indarkeria-prozesuari dagokionez.
  - Esku-hartze sozialeko, legaleko eta terapeutikoko eredia indarkeria jasan duten eta jasaten duten emakumeen prozesura egokitzea.
  - Kanpo-zerbitzuekin modu koordinatuan lan egitea, emakumeetako bakoitzaren prozesu espezifikoa kontuan hartuta.
- **Arreta, Errekuperazio eta Harrera Zerbitzua (SARA)**. Arreta anbulatorio espezifikoa ematen die indarkeria matxistako egoeren biktimei (emakumeak, haurrak eta nerabeak, eta indarkeria horren eragin zuzena jasaten duten ingurune hurbileko pertsonak). Halaber, aholku ematen die profesionaleri eta biktimen inguruneko pertsoneri.
- **Harreman ez-bortitzak sustatzeko Gizonentzako Arreta Zerbitzua (SAH)**. Bikotekidearen aurka indarkeria erabiltzen duten edo erabili duten eta harremanak izateko modua aldatu eta jokabide bortitzetatik urrundu nahi duten gizoneri zuzendutako aholkularitza eta tratamendua.

## VII. La Línea de la Concepcióneko Udala

- Udalerria: La Línea de la Concepción (Cádiz)
- Biztanleak: 62.940 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearentzako Informaziorako Udal Zentroa
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [siad@terrassa.cat](mailto:siad@terrassa.cat)
  - Tel.: 937 397 408

La Línea de la Concepcióneko Emakumearentzako Informaziorako Udal Zentroak informazioa ematen die emakumeei, doan, beren eskubideei eta aukera-berdintasunari buruz, eta orientazio eta aholkularitza juridikoa, psikologikoa, lanekoa, enpresakoa, genero-indarkeriakoa, etab. eskaintzen die; horrela, berehala erantzuten die haien beharrei eta kalitatea eta konfidentzialtasuna ziurtatzen du. Hona hemen Emakumearen Zentroaren jardunaren oinarriko printzipioak:

- Arreta pertsonalizatua informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskatzen denean.
- Dagozkion arloetan aditu diren profesionalak 48 orduan baino gutxiagoan ematea arreta.
- Konfidentziasuna: Kontsultak egiten direnean, pribatutasuna bermatuta dago.
- Datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea bermatzea.
- Eskatutakoari argi, bizkor eta egiazki erantzutea, hizkera zehatza eta egokia erabiliz.

Etxeko indarkeriaren biktimei zuzendutako ekintza eta prestazio nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

**(i) Animazio Soziokulturaleko Informazio Zerbitzua:** lehen orientazioa ematen die zentrora joaten diren emakumeei, eta aholkularitza tekniko egokia emango dieten sailalara bideratzen ditu. Halaber, udalerriko emakume-elkarteen funtzionamendua dinamizatzeaz arduratzen da, eta berehala jarduten du haien eta Emakumearen Andaluziako Institutuaren artean.

**(ii) Zerbitzu Juridikoa:** sail honek informazioa eta aholkularitza ematen ditu, eta, beharrezkoa denean, esku hartzen du, emakumeari eragiten dioten arlo juridikoetan. Lantzen dituen arlo juridikoak askotarikoak dira, eta guztiak emakumearen eskubideekin erlazionatuta daude; hain zuzen ere, aholkularitza juridikoa ematen da gai askotan, hala nola banantzeak, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, dibortzioa, bikoteko betebeharrak, lan-arloko kontuak, genero-indarkeria, herentziak, etab.

**(iii) Zerbitzu Psikologikoa:** emakumeek beren ongizatean eta familiari, lanari eta gizarteari dagokienez baldintzatzen duten faktoreetan eragiteko duten ahalmena areagotu nahi du. Hiru alderditan esku hartzen du (arreta, prebentzioa eta sustapena), hainbat jardun-mailatan (banakakoa, taldekoa eta komunitarioa).

**(iv) Enplegua Sustatzeko Zerbitzua:** informazioa eta aholkularitza ematen du trebakuntza-ikastaroei eta enplegua bilatzeko teknikei dagokienez, eta orientazioa ematen du autoenpleguari eta emakumeak lan-merkatuan sartzearekin erlazionatutako gainerako arloei buruz.

## VIII. Gandiako Udala

- Udalerria: Gandía (Valentzia)
- Biztanleak: 73.829 (EIN, 2018)

- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Delituaren Biktimentzako Arreta Bulegoak (OAVD) eta Gandíako Berdintasun eta Emakume Zentroa
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [servicioinfodonagandia@gmail.com](mailto:servicioinfodonagandia@gmail.com)
  - Tel.: 962 959 528

Delituaren Biktimentzako Arreta Bulegoak (OAVD) doako zerbitzua dira, eta arreta, laguntza eta orientazioa ematen diete genero-indarkeriaren biktimei. Espazio espezializatuak eta eraginkorrak dira biktimaren babesgabetasun-egoera konpontzeko. Nagusiki, hauetaz arduratzen dira:

- Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimen babes-aginduak koordinatzea.
- Delituaren biktimek egin behar dituzten edo egin behar ez dituzten jardunen (prozesalak edo ez-prozesalak) segimendua ahalbidetzea.

Halaber, aholkularitza-zerbitzu hauek eskaintzen dizkiote biktimari:

- Bere egoera legala, eskubideak eta betebeharrak, izapideak eta kasuan kasu egin behar diren prozedurak azaltzea biktimari.
- Biktimak aurkezten dituen salaketak edo bestelako dokumentuak idazten laguntzea.
- Biktimei gizarte-arreta ematea, eta eskura dauzkaten gizarte-baliabideen berri ematea.
- Jardun judizialtan biktimari laguntzea eta lekukotzak ahalbidetzea.
- Delitu Bortitzen eta Sexu Askatasunaren Aurkako Delituen Biktimentzako Laguntzari buruzko Legean ezarritako laguntzak kudeatzea.
- Lan-arloko aholkularitza ematea.
- Berdintasuna eta asoziazionismoa sustatzeko laguntzak bultzatzea.
- Genero-indarkeriari aurre egitera bideratutako laguntzak deitzea.
- Langabezia dauden emakumeak kontratatzeke hobariak ezartzea.

Aldi berean, Gandíako Udaleko Berdintasun Sailak arreta psikosozialeko programa oparoa eskaintzen du genero-indarkeriaren biktimei banakako eta taldeko orientazio eta esku-hartze terapeutikoa emateko. Zerbitzu horiek erabat doakoak eta borondatezkoak dira. Zerbitzu

honen helburua da emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak prebenitzea eta lantzea, hauek abian jarrita:

- Gizarte-arreta: genero-indarkeriaren biktimentzako Estatuaren laguntzei, baliabideei eta dirulaguntzei buruzko informazioa.
- Aholkularitza ematea genero-indarkeriaren gaiari heltzen dioten elkarte eta tokietan.
- Telelaguntzari buruzko informazioa ematea eta hura bideratzea.
- Genero-indarkeriaren arloko orientazioa, prebentzioa eta psikohezkuntza.
- Banakako eta taldeko terapia psikologikoa.
- Erabili ahal izango dituzten baliabideetara bideratzea eta haiei buruzko informazioa ematea.
- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak berriro gizarteratzea.

Era berean, Gandíako Udalak Berdintasun Agenteen Sare bat du, udal-politika publiko guztietan berdintasun-printzipioa sustatzeko eta integratzeko asmoz sortua.

## IX. Cáceresko Udala

- Udalerria: Cáceres (Cáceres)
- Biztanleak: 96.068 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Cáceresko Berdintasuneko eta Genero Indarkeriako Bulegoa
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [imas@ayto-caceres.es](mailto:imas@ayto-caceres.es)
  - Tel.: 927 21 23 35

LGBTI taldearen Berdintasuneko, Lankidetzako, Herritarren Partaidetzako eta Auzoetako Zinegotzigoaren helburu nagusia da herritarrek gai publikoetan eta hiriko bizitza kolektiboan gehiago parte hartzea. Unitate administratibo horrek jardun hauek egiten ditu:

- Gizarte-partaidetzako ekimenak edo proiektuak garatzeko baliabideak eta tresnak sustatzea (dirulaguntzen deialdiak, parte hartzeko baliabideak, etab.).



- Informazioa eta aholkularitza emateko eta elkarte eta taldeekin elkarlanean aritzeko jardunak garatzea.
- Herritarrek parte hartzeko organoak sustatzea, Udalaren eta herritarren entitateen arteko harremanak antolatzeko tresna gisa.
- Herritarren partaidetza eta asoziazionismoa areagotzera bideratutako gizarte-dinamizazioko programak garatzea.
- Barrutiek parte hartzeko prozesuak sustatzea, auzo bakoitzeko herritarren eta taldeen behar eta ekimenetatik hurbilen dauden eremu gisa.
- Elkarrekin sarean lan egiteko ekintzak sustatzea, lan-batzordeen, partaidetza-organoen, partaidetza-prozesuen eta abarren bidez.
- Cáceresko Udaleko herritarrekiko komunikazioa eta haientzako informazioa hobetzera bideratutako jardunak abian jartzea.
- Elkarrekin udal-interesekotzat jotako entitateak erregistratzeko liburuan jasotzeko espedienteak izapidetzea.
- Taldeek eta elkarrekin udal-zerbitzuei edo -sailei egindako eskaera, kexa, iradokizun eta informazioak bideratzea eta kudeatzea.

Bestalde, Gizarte Gaien Udal Institutuak (IMAS), toki-erakunde autonomo gisa, Cáceresko hiriko gizarte-zerbitzuak kudeatzeaz arduratzen da, baita gizarte-ongizatera zuzendutako programak prestatzera eta gauzatzea ere. IMASen Estatutuen arabera, xede hauek ditu erakundeak:

- Hiriko gizarte-zerbitzuak kudeatzea.
- Hiriko gainerako gizarte-zerbitzuak eta erlazionatutako beste sektore batzuk koordinatzea.
- Gizarte-ongizatera zuzendutako programak prestatzea eta gauzatzea.
- Biztanleak sentsibilizatzeko eta mentalizatzeko programak prestatzea eta gauzatzea.

IMASen programa estrategikoen artean, nabarmentzekoa da Berdintasuneko eta Genero Indarkeriako Bulegoak egindako lana, Cáceresko Udalak eta Extremadurako Emakumearen Institutuak sinatutako hitzarmen baten harira, Cáceresko gizarteko arlo guztietan emakumeen eta gizonen artean tratu-berdintasunaren printzipioa betetzeko, emakumeek jasaten dituzten diskriminazioak desagerrarazteko, eta genero-indarkeria prebenitzeko eta suntsitzeko.

Horrenbestez, zerbitzuak laguntza, aholkularitza eta informazioa ematen die Cáceresko hiriko emakumeei. Era berean, Berdintasuneko eta Genero Indarkeriako Udalak informazioa eta aukera-berdintasunean espezializatutako orientazio teknikoa ematen die hala eskatzen duten entitate, elkarte eta enpresa guztiei, baita herritarrei oro har ere, gizarte-aldaketa bultzatze aldera, aukera-berdintasuna hiriaren etorkizuneko hiri-garapenaren eragile gisa sustatzean oinarritua. Hauek dira ekintza nagusietako batzuk:

- Emakumeen demandak eta, bereziki, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeenak artatzea, haien inguruan aholku ematea eta haien berri ematea; hasierako balorazioa egitea eta baliabide espezializatuetera bideratzea. Baliabideak emakume biktimen babes-aginduen segimendua egiten du, eta telelaguntza mugikorreko telefonoa izapidetzen die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei (ATENPRO).
- Cáceresko Udaleko emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuneko politikak prestatzea, garatzea eta ezartzea, eta emakumeen behar espezifikoiei erantzungo dieten jardunak eta programak diseinatzea eta garatzea.
- Informatzea eta aukera-berdintasunean espezializatutako orientazio teknikoa ematea hala eskatzen duten entitate, elkarte eta enpresa guztiei eta biztanle guztiei oro har.
- Emakumeak dinamizatzea, emakumeak ikusgai jartzeko eta hiriko bizitzan sozialki, politikoki eta kulturalki parte hartzeko. Horretarako, Berdintasun Bulegoa Emakumearen Kontseilu Sektorialarekin koordinatzen da. Kontseilu hori gizarte-partaidetzako kide anitzeko organoa da, eta hirian aukera-berdintasunaren alde lan egiten duten elkarte, erakunde, alderdi politiko eta sindikatu guztiek osatzen dute.
- Emakumeen Elkarteentzako Dirulaguntzen Plana urtero deitzea, emakumeen elkarten gizarte-partaidetza bultzatzeko eta sexuagatiko desberdinkeriak desagerrarazten laguntzeko.
- Genero-indarkeriaren inguruan sensibilizatzeko, hura detektatzeko eta prebenitzeko eta aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak eta tresnak ezartzea
- Hedabideetan emakumeen eta gizonen irudi berdinzalea, plurala eta ez-estereotipatua zabal dadin sustatzea.
- Indarkeria matxista bihur daitezkeen genero-estereotipoak eta jokabide sexistak prebenitzea, hezkuntzaren arloan sensibilizatuta, askotariko programen bidez (hala nola Calendarios violetas), eta tailerrak eta trebakuntza emanaz ikasleei, irakasleei eta gurasoen elkarteei.

## X. Santanderko Udala

- Udalerria: Santander (Kantabria)
- Biztanleak: 171.693 (EIN, 2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Indarkeriaren Arreta Integralerako Puntua (PAIV)
- Kontakua:
  - Helbide elektronikoa: [concejalia-igualdad@ayto-santander.es](mailto:concejalia-igualdad@ayto-santander.es)
  - Tel.: 942 20 08 33

Santanderko Udalak eskarmentu handia du berdintasuna sustatzen eta eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzen. Horren erakusgarri, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako hainbat plan onartu ditu, genero-indarkeriaren biktimenzako udal-gidak prestatu ditu, edo genero-indarkeriaren eta pertsonen salerosketaren biktimenzako udal-dirulaguntzak arautzeko ordenantza bat eman du.

Era berean, toki-administrazioak Indarkeriaren Arreta Integralerako Puntu bat du. Puntu horrek tratu txarren biktimenzako arreta psikosozial espezializatuko zerbitzu bat ematen du, eta Indarkeriaren Aurka Egiteko Udal Programaren barruan sartzen da. Haren helburu nagusia da udal-arloan zerbitzu profesionalizatuak eskaintzea genero-indarkeria prebenitzeko eta tratu txarren biktimak artatzeko.

Azken urteetan, are gehiago zabaldu da laguntza psikosoziala, eta, etxeko indarkeriaren biktimei ez ezik, lan- eta gizarte-arloko indarkeriaren biktimei (sexu-esplotazioa, emakumeen trafikoa...) eta erasotzaileei ere ematen die arreta. Esku hartzeko unitate horrek helburu hauek ditu, besteak beste:

- Santanderko udalerrian genero-indarkeria desagerraraztea (indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, laneko jazarpena eta emakumeen trafikoa).
- Biktimei eta haien seme-alabei informazioa, orientazioa eta tratamendua ematea.
- Indarkeriaren biktimen autonomia sustatzea.
- Berdintasunean hezteak.
- Genero-indarkeriagatiko tratu txarren ondorioen detekzioari eta tratamenduari buruz ikertzea.
- Genero-indarkeriaren arazoarekin erlazionatutako irakasjarduerak garatzea.
- Eraitzen ebaluazioa eta segimendu espezializatua.

Diziplinarteko talde batek osatzen du PAIV, eta hauek ditu kide: psikologoa - berdintasuneko agentea - familiako indarkerian espezialista; gizarte-langilea - berdintasuneko agentea - familiako indarkerian espezialista; aholkulari juridikoa - berdintasuneko agentea - familiako

bitartekoa; eta lan-arloko orientatzailea - berdintasuneko agentea. Espezialista-talde hori zerbitzu hauek emateaz arduratzen da:

- Informazioa eta orientazioa.
- Laguntza juridikoa.
- Esku-hartze psikosoziala:
- Esku-hartze indibiduala/familiakoa indarkeriaren biktimekin eta haien seme-alabekin.
- Esku-hartze indibiduala/familiakoa erasotzaileekin.
- Esku-hartzea adingabeekin edo menpeko senideekin.
- Bikoteko indarkeriaren ikerketa eta lan terapeutikoa.
- Profesionalak genero-indarkeriaren arloan trebatzea.
- Genero-indarkeria prebenitzeko ekintza komunitarioak.

Horrez gain, komeni da nabarmentzea, 1999tik, Santanderko Udalak Berdintasun Zentro bat sortu zuela. Erakunde horren bidez, komunitate osoaren inplikazioa sustatu nahi da, sensibilizazio-programak eta -kanpainak prestatuta eta zabaldua aukera-berdintasuna sustatzeari, emakumeen aurkako indarkeria baztertzeari, eta hezkidetzak, familiako erantzunkidetasuna eta laneko berdintasuna bultzatzeari, gizartean parte hartzeari eta abarri dagokienez. Horretarako, hauetaz arduratzen da:

- Aukera-berdintasuna bultzatzen duten udal-politiketako helburuak erdiesteko beharrezko jardunak eta jarduerak garatzea.
- Emakumeei bizi-egoera sozioekonomikoan eta soziokulturean aktiboki parte hartzea ahalbidetzen dieten eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izatera iristeko baldintzak bultzatzen dituzten programak sustatzea.
- Udal-arloetako bakoitzarekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea, baita emakumeen egoera hobetzeko lan egiten duten askotariko erakunde publiko eta pribatuekin ere (gizarte-zerbitzu komunitarioak, ikastetxeak, osasun-zentroa, elkarteak, etab.)
- Aukera-berdintasunaren arloan pentsamoldea eta jarrerak aldatzen laguntzen duten eta gizarte-zerbitzu zuzenduta dauden sensibilizazio-, dibulgazio- eta trebakuntza-jarduerak egitea.
- Arreta indibidual espezializatua ematea hala eskatzen duten emakume eta gizon guztiei, problematika pertsonala konpontzeko.

Halaber, zeregin hauek ditu, besteak beste:

**(i) Gizarte Arretako Zerbitzua.** Udalerriko gizarte-baliabideei buruz aholku ematen du, haien berri ematen du, eta haiekin erlazionatutako izapideak egiten ditu. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen ditu, teknika profesionalak erabiliz erabiltzailearen gaitasun pertsonalak eta autonomia indartzeko, biktimentzako baliabide espezifikoak kudeatuta.

**(ii) Arreta Juridikoko Zerbitzua.** Emakumeei aholkua eta orientazioa ematen die hainbat kontutan; besteak beste, legalak, banantzea, genero-indarkeria, doako justizia.

**(iii) Arreta Psikologikoko Zerbitzua.** Aholkua, babes, orientazioa eta tratamendu terapeutikoa ematen die ingurunean zailtasunak edo familia-gatazkak dituzten edo genero-indarkeria jasaten duten emakumeei eta gizonei.

**(iv) Orientazio Akademiko eta Profesionaleko Zerbitzua.** Enplegu-ibilbide pertsonalizatua; gainera, enplegua bilatzeko teknikei buruzko orientazioa (curriculum vitae, aurkezpen-gutunak, etab.); enplegu publikoko eta pribatuko eskaintzei, irakaskuntza arautuari eta trebakuntza iraunkorrari buruzko informazioa.

#### **XI. Jerte Ibarreko Mankomunitatea.**

- Izaera juridikoa: 11 udalerrik osatzen duten elkarte (Barrado, Cabezuela del Valle, Cabrero, Casas del Castañar, El Torno, Jerte, Navaconcejo, Piornal, Rebollar, Tornavacas eta Valdastillas)
- Biztanleak: 12.000 (EIN, 2018)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Berdintasuneko eta Genero Indarkeriako Bulegoa
- Kontaktua:
  - Helbide elektronikoa: [oficinaigualdad@mancomunidadvalledeljerte.com](mailto:oficinaigualdad@mancomunidadvalledeljerte.com)
  - Tel.: 927 472 134

Jerte Ibarreko Mankomunitate Integrala 1972ko urriaren 11n eratu zen, 2754/1972 Dekretua irakurri ondoren (2754/1972 Dekretua, irailaren 15koa, Herrizaintza Ministerioarena), Jerte Ibarrean kultura eta turismoa bultzatzeko eta, ur-horniduraz gain, landaguneko komunikazio-eta elektrifikazio-bideetako zenbait alderditan garapen ekonomikoa sustatzeko.

1988an hasi zen entitatea eskualdeko herritarrei zerbitzuak ematen: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Hirigintza Kudeaketako Bulegoa, Hiri Hondakin Solidoak Biltzeko Zerbitzua, etab. Pixkanaka, udalerrien mankomunitateak lurraldean duen presentzia indartuko du, herritarrei emandako zerbitzuen zorroa zabaldua. Gai hauek hartzen ditu barnean:

- Kirol Dinamizazioa.
- Turismo Bulegoa
- Leihatila Bakarra
- Berdintasuneko eta Genero Indarkeriako Bulegoa
- Hirigintza Kudeaketako, Etxebizitzako, Arkitekturako eta Lurraldeko Bulegoa
- Familientzako arreta-programa
- Plastikoa eta kartoia gaika biltzea.
- Makinen parkea.
- Trebakuntza-ekintzak, tailer-eskola ezagunen bidez.

Gure aztergaiari dagokionez, Jerte Ibarreko Berdintasuneko Bulegoa Extremadurako Emakumearen Institutuaren (IMEX) eta Jerte Ibarreko Mankomunitatearen arteko elkarlanaren emaitza da, eta 2008an egin zituen lehen urratsak. Hala ere, 2016ra arte ez zuen hartu gaur egun duen izena, eta "Genero Ikuspegira Orientatzeko eta Genero Indarkeria Artatzeko Programa" deitu zitzaion; urtean, 48.000 €-ko aurrekontu-zuzkidura zuen. Gaur egun, berdintasuneko bi agentek osatzen dute bulegoa. Berdintasunerako eskubidea mankomunitatearen eskumenetan txertatzen dela ziurtatzen dute bi agente horiek. Ebaluazioaz gain, informazioa eta arreta genero-indarkeriaren biktimei, gizarte-bazterkeriako prozesuak prebenitzeko.

Halaber, jardun hauek ezartzeaz arduratzen da:

- Balio berdinzaleei, eskubideei eta funtsezko askatasunei buruz sentsibilizatzea eta erabakiak hartzen laguntzea.
- Berdintasuneko eta ez-indarkeriako kultura sustatzea.
- Aurkeztutako demanden inguruan aholkua eta arreta ematea.
- Beharren arabera, zerbitzu espezializatuetara bideratzea.
- Gizarteko arlo askotan elkarlanean aritzea: hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, familia-programa, kirol-dinamizazioa, elkarteak, toki-administrazioa, etab.

## **XII. Puerto del Rosarioko Udala (Fuerteventura)**

- Udalerria: Puerto del Rosario (Las Palmas)
- Biztanleak: 39.382 (EIN, 2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei arreta emateko Puerto del Rosarioko Udal Unitatea
- Kontaktua:

- Helbide elektronikoa: [igualdad@puertodelrosario.org](mailto:igualdad@puertodelrosario.org)
- Tel.: 928 85 19 46

Puerto del Rosarioko Udalak berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan herritarren eskura jarri duen informazio publiko eskasetik aztertuta, ikusi da Aukera Berdintasuneko Plan zaharkitu bat dagoela (2009-2012), baita orientazio afektibo-sexualari eta genero-identitateari buruzko zenbait alderdiren inguruko orientazio-gida bat ere.

Hala ere, Fuerteventurako kabildoarekin elkarlanean aritzearen ondorioz, ikusi da jardun hauek ezarri direla genero-indarkeriaren biktimei babes integrala bermatzeko:

**(i) Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak artatzeko telefono-zerbitzua (SAMVV)**

**(ii) Emakume erasotuentzako larrialdi-zerbitzua (DEMA)**

**(iii) Genero-indarkeriaren arloan informazioa eta aholkularitza juridikoa emateko telefono- eta online-zerbitzua (o16)**

Emakumearentzako Arreta Zerbitzuaren (SAM) bidez egiten dira jardun horiek. Erakunde horrek diziplinarteko zerbitzu espezializatua ematen du hainbat arlotan (soziala, juridikoa, psikologikoa, lanekoa eta hezkuntzako) informazioa, orientazioa eta aholkularitza emateko, baita, hala badagokio, genero-indarkeriako egoeretan emakumeekin esku-hartze integrala eta diziplinartekoa gauzatzeko.

Ematen duen arretak informazioa, orientazioa, aholkularitza, esku-hartzea, babesa eta segimendua biltzen ditu hainbat arlotan (soziala, juridikoa, psikologikoa eta lanekoa), dagokion kasuetan, emakumearen egoera normalizatzeko, autonomia pertsonala sustatzeko eta leheneratzea eta gizarte- eta familia-integrazioa ahalbidetzeko.

Gaur egun, SAM gizarte-langile batek, psikologo batek eta aholkulari juridiko batek osatzen dute.

### **XIII. Medina del Campoko Udala**

- Udalerria: Medina del Campo (Valladolid)
- Biztanleak: 20.183 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Medina del Campoko Udaleko Gizarte Ekintzako Zentroa.
- Medina del Campoko Udaleko CEASekin harremanetan jartzeko:
  - Tel.: 983 812 170
  - Helbide elektronikoa: [ceas@ayto-medinadelcampo.es](mailto:ceas@ayto-medinadelcampo.es)

Medina del Campo Valladolideko probintzian dago. Udalak Gizarte Ekintzako Zentroaren (CEAS) bidez bideratzen ditu etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-zerbitzuak. Zentro horretan, gizarte-langileen eta psikologoek talde batek genero-indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeak artatzen dituzte, baita familia-ingurunean egoera hori bizi duten adingabeak ere.

Medina del Campoko Udaleko CEASEk zerbitzu hauek ematen dira etxeko indarkeriaren biktimei laguntzeko:

- Emakumeari buruzko informazio espezializatuko zerbitzua.
- Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza psikologikoko zerbitzua.
- Genero-indarkeriari buruzko informazio espezializatuko zerbitzua.
- Emakumeari orientazioa eta aholkularitza emateko zerbitzua.
- Genero-indarkeriaren biktima diren eta hizkuntza ofiziala ezagutzen ez duten emakumeentzako itzulpen- eta interpretazio-zerbitzua.
- Genero-indarkeriaren biktima izatearen akreditazio administratiboa.
- Genero-indarkeriaren biktimei familia-ingurunean laguntzeko zerbitzua.
- Genero-indarkeriaren biktimentzako telelaguntza-zerbitzua.
- Larrialdi-zentroetan, harrera-etxeetan eta genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzetan arreta emateko zerbitzua.
- Bizi-proiektua prestatzeko laguntza-zerbitzua.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko zerbitzua.

Medina del Campoko Udaleko CEASEko profesionalen esku-hartzeak protokolo bati jarraitzen dio; urrats hauetan zehazten da:

1. Genero-indarkeriaren biktimaren lehenengo harrera egiten da, eta erreferentziako profesional bat esleitzen zaio.
2. Dauden baliabide eta laguntzen berri ematen da, eta haiei buruz orientatzen da, beharren arabera; esku hartzeko plan bat egiten da.
3. Laguntza psikologiko espezializatua ematen da, nola banakakoa hala taldekoa, eta arreta berezia jartzen da talde ahulengan, hala nola desgaitasuna duten emakumeengan eta adingabeengan.
4. Aholkularitza juridikoa ematen da, eta, behar izanez gero, beste baliabide batzuetara bideratzen dira biktima eta haren familia.



5. Prozesu osoan, babes eta laguntza profesionala ematen zaio familiari, segurtasuna eta autonomia berreskuratzeko.
6. Une oro, beste profesional batzuekin koordinatuta lan egiten da (polizia, osasun-langileak, justizia, etab.), egoera bakoitzera ongien egokitzen den erantzuna emateko.

CEASeko profesionalek egindako jardunak familia bakoitzarekin kasu-plan bat prestatzera bideratuta daude; horretarako, behar zehaztetara egokitzen dira baliabideak, Gaztela eta Leongo autonomia-erkidegoan ezarritako "Zero indarkeriako ereduaren" arabera.

Medina del Campoko Udalak sentsibilizazio-kanpainak ere egiten ditu biztanleak etxeko indarkeriaren aurka kontzientziatzeko, batez ere hezkuntza-arloan udalerriko eskola-umeak kontzientziatzeko. Kanpaina horiek Medina del Campoko Aukera Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren Aurkako III. Udal Planean (2021-2024) jasota daude.

#### XIV. Consell Insular de Formentera

- Udalerria: Formentera (Balear Uharteak)
- Biztanleak: 11.418 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumeentzako Informazio eta Arreta Puntua.
- Emakumeentzako Informazio eta Arreta Puntuarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 971 32 10 87 Luz.: 3445.
  - o Helbide elektronikoa: [igualtat@conselldeformentera.cat](mailto:igualtat@conselldeformentera.cat)

Consell Insular de Formentera-k, Gizarte Ongizateko Sailaren bidez, arreta integrala ematen die indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei, jardun hauen bidez:

- **Larrialdi-egoeretan berehalako arreta ematea**, gizarte-ongizateko saileko profesionalen bidez (berariaz trebatutako gizarte-eragileak, bereziki). Lan-tresna nagusia polizia- eta osasun-zerbitzuen eskuragarritasuna (eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan) eta haiekiko guztiekiko koordinazioa dira.

- **Teleitzulpeneko zerbitzua** hizkuntza ofizialetan behar bezala hitz egin ezin duten pertsonentzat.

- **Segimendua egitea, laguntza ematea eta** profesional eta zerbitzu egokienetara bideratzea zuzenean indarkeriatik datorren problematikaren arabera (nagusiki, psikologia-, lege- eta osasun-zerbitzua).

- **Berehalako harrera** ematea emakumeari eta seme-alabei, Consell Insular de Formenteraren harrera-etxean, premiazkoa bada, eta, bestela, Eivissara eramanda.

- **Familia-topaketako eta familia-topaguneetako zerbitzua** biktimaren babesa bermatzeko.

- **Baliabide ekonomikoen eta sozialen** eta gai horri buruzko edozein kontsulta-mota kudeatzea, eta **gizarte-langile batekin hitzordua jartzea**.

Gainera, Consell Insular de Formentera-k etxeko indarkeriaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egiten ditu biztanleentzat oro har. Horren harira, baliabideen informazio-liburuxka zabaltzen da, adierazleen testarekin; Formenterako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean (2019-2022) jasotako jardunak gauzatzen dira; eta ekintzak egiten dira Emakumearen Egunean eta Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean. Gainera, hezkuntza-arloan, hitzaldiak ematen dira guraso eta irakasleentzat; trebakuntza ematen zaie profesionalei, eta tailerrak antolatzen dira ikastetxe eta institutuetan kudeaketa emozionalari, afektiboari eta sexualari buruz. Consell Insular de Formentera-k etxeko indarkeriaren aurkako ekintzen eraginkortasuna lortu nahi du, indarkeria matxisten aurkako koordinazio-mahaiaren bidez.

Halaber, Consell Insular de Formentera-arentzat lehentasuna da etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen laneratzea. Hala ere, lan-arloko arreta- eta orientazio-mota hori Servei d'Ocupació de les Illes Balears (SOIB) izenekoaren bidez bideratzen da, *SOIB Dona* programaren harira. Programa horrek dirulaguntzak ematen dizkie sektore publikoko entitateei eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-entitateei, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kontratazioak dakartzan kostuak ordaintzeko. Informazio publikoan esaten denaren arabera, ekimen hori aitzindaria da Estatu osoan, eta ikuspegi ekonomikotik emakumeak ahalduntzea du helburu, haien profil profesionalera eta interesetara egokitzen den enplegu bat emanez.

#### **XV. Yeclako Udala (Murtzia)**

- Udalerria: Yecla (Murtzia)
- Biztanleak: 35.234 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta Zentroa (CAVI).
- Yeclako CAVIarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 968 750 407
  - o Helbide elektronikoa: [yecla@cavis.es](mailto:yecla@cavis.es)

Yeclako Udalak (Murtzia) Gizarte Politikako, Berdintasuneko eta Emakumearentzako Zinegotzigoaren bidez garatzen ditu berdintasunerako eta emakumeentzako politikak. Zinegotzigoaren ekintzak bideratzeko elementu nagusia Yeclako Emakumeen eta Gizonen Arteko Aukera Berdintasunerako Plana da. Toki-entitateak etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko duen baliabide nagusia Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta Zentroa (CAVI) da. Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta Zentroen Sarean sartuta dago, eta sare horrek Murtziako Eskualdeko udalerrri guztiei ematen die estaldura.

**Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta Espezializatuko Zentroa (CAVI)** Emakumearentzako eta Aniztasuneko Zuzendaritza Nagusiaren menpeko zerbitzua da, eta,

Udalarekin elkarlanean, banakako eta taldeko tratamendua ematen die tratu txarren biktima diren emakumeei. Horretarako, beharrezko laguntza ematen du gaitasun sozialak eta psikologikoak indartzeko eta bizi izandako esperientziei aurre egiteko. Arreta integrala eta doakoa da, ikuspegi juridikotik, sozialetik eta psikologikotik. Egiten den esku-hartzea emakume bakoitzaren beharretara egokitzen da, aurretik inolako baldintzarik bete behar izan gabe eta salaketa jarri behar izan gabe. Bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik tratu txarrak jasaten dituzten edo jasan dituzten edo antzeko egoera batean egon daitezkeen emakume guztiek jo dezakete zentrora.

CAVI zentroek arreta integrala, pertsonalizatua eta doakoa ematen die etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei, denbora nahikoan, tratu txarreko egoerarekin bukatzeko eta hortik irteteko. Zentro honetako profesional-taldea psikologo batek, gizarte-langile batek eta abokatu batek osatzen dute, eta hau ematen dute: banakako eta taldeko babes psikologikoa; emakumearen eta haren seme-alaben egoerarako egokienak diren baliabideei buruzko gizarte-aholkularitza; eta tratu txarren egoerarekin erlazionatutako guztiari buruzko aholkularitza juridikoa.

Yeclako Udalak sentsibilizazio-kanpainak ere egiten ditu biztanleentzat oro har genero-indarkeriaren aurka, egun jakinetan; besteak beste, azaroaren 25ean, Genero Indarkeriaren Aurkako Egunean. Ekintzak ere egiten ditu hezkuntza-kanpainen barruan biztanleentzat oro har genero-indarkeriaren aurka; horretarako, hezkidetzako eta harreman osasuntsuetako tailerrak antolatzen dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, familientzat eta irakasleentzat. Eta genero-indarkeriaren biktimei laneko bitartekotza ahalbidetzeko, Yeclako Udalak Murtziako Eskualdeko enplegu- eta trebakuntza-zerbitzuarekin koordinatzeko protokoloa aplikatzen du.

## XVI. Donostiako Udala

- Udalerria: Donostia
- Biztanleak: 188.743.
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Genero Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Programa.
- Genero Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Programarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 943 48 14 00, edo 112 (larrialdi-egoerak)
  - o Helbide elektronikoa:

Donostiako Udalak askotariko baliabideak ditu udalerraren eremuan berdintasun-politikak sustatzeko eta garatzeko. Donostiako Udaleko Berdintasun Atalak Berdintasunerako Unitatea du, eta emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko politikak sustatzea du helburu, aukera-berdintasunaren printzipioa praktikoki eta eraginkortasunez aplikatuko dela bermatzeko. Eta, gainera, Emakumeen Etxea, emakumeek topatzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko espazio gisa, bizitzako arlo guztietan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorrerantz aurrera egitea helburu duten politika, programa eta proiektuetan eragina eduki ahal izateko.

Donostiako Udaleko **Genero Indarkeriaren Biktimentzako Arreta Programak** etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta espezifikoko ekintzak biltzen ditu; besteak beste, hauek:

- Harrera, diagnostikoa eta orientazioa: entzuteko eta eusteko espazio bat eskaintzen da; beharren diagnostikoa egiten da; beharrezko baliabideak eskaintzen dira esku hartzeko plan baten barruan; eta esku-hartze integratua eta koordinatua gauzatzen da.
- Laguntza psikologikoa: krisialdian erabakiak hartzen laguntzea (banantzea, salaketa...); banantze-prozesu traumatiko baten ostean biktimei bizitza berregiten laguntzea.
- Berehalako harrera-zerbitzua: espazio seguru bat eskaintzen zaie genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, erabakiak lasai hartu ahal izan ditzaten, eta beharrezko laguntza izan dezaten; krisialdian laguntza eta kontrola eskaintzea.
- Harrera-etxebizitzak: etxebizitza bat eskaintzea biktimei, hiru hilabetez (luzagarriak), gizarteratze- eta laneratze-prozesuari hasiera eman ahal izateko.
- Larrialdiko laguntza ekonomikoak: baliabide ekonomikoak eskaintzen dira berehala, oinarrizko beharrei erantzuteko, biktimak beste laguntza horiek eskuratu ezin dituzenean.

Donostiako Udalak **indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko udal-protokolo zehatza eta osatua**<sup>1</sup>. Haren edukia publikoa da, eta merezi du nabarmentzea txosten honetan interesgarriak diren alderdietako askotan. Hain zuzen ere, Donostiako Udalak udal-zerbitzuen bidez etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko eskaintzen dituen baliabideak nabarmentzen dira:

- Harrerako udal-etxebizitzak: babes emateko laguntzazko baliabide sozial gisa konfiguratzen dira, eta emakumeak eta, halakorik egonez gero, adingabeak modu autonomoan eta independentean gizarteratzera bideratuta daude. Zerbitzuak tutoretza gabeko eta harreran hartutako jendea zaintzen duen langilerik gabeko ostaldea eskaintzen du, baina kasuen segimendua egiten du. Gehienez 3 hilabetez egon ahal izango da bertan, eta, denboraldi hori igarotakoan, beste gizarte- edo etxebizitza-baliabide edo -programa batzuek estaliko dute behar hori, baldin eta beharrezko beste balorazio batek hori egitea aholkatzen badu; edo, bestela, hasieran ezarritako epea luzatu ahal izango da, baldin eta harrera eragin zuten baldintzak mantentzen badira. Laguntza- eta tutoretza-prozesu baten bidez heltzen zaio problematikari. Prozesu horren harira, Esku Hartzeko Plan Indibidualizatuak (PII) prestatzen dira familia-unitateko kide bakoitzarentzat, eta familia-sistemeekin lan egiten da; azken helburua da familia-bizitza berreraikitzea eta normalizatzea.

---

<sup>1</sup> Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko Donostiako Protokoloa kontsultatzea:

[https://www.donostia.eus/info/bienestarsocial/queofrece.nsf/voWebContenidosId/1C20BD067904886BC125727900361813/\\$file/Protocolo%20violencia%20machista.pdf](https://www.donostia.eus/info/bienestarsocial/queofrece.nsf/voWebContenidosId/1C20BD067904886BC125727900361813/$file/Protocolo%20violencia%20machista.pdf)

Banakako eta familiako arreta-planaren esparruan, harrera-etxebizitzaren erabiltzaileek gizarte- eta hezkuntza-programa bat eta laguntza-programa bat izan behar dute, eta haien beharretara ongien egokitzen diren gizarte-baliabideetara bideratuak izan, hauen bidez: laguntza psikologikoa; arreta eta esku-hartze psikologikoa, terapeutikoa eta gizarte- eta hezkuntzakoa; orientazio eta aholkularitza juridikoa; laguntza ekonomikoak; gizarteratzeko eta laneratzeko eta autonomia ekonomiko eta pertsonalerako trebakuntza-jarduerak, etab.

- Laguntza-zerbitzua: larrialdietako etxebizitzetan eta ostatu propioa duten emakumeentzat ematen da zerbitzua, eta kasuan kasuko arduradunak prestatutako esku hartzeko planaren helburuak erdiesteko tresna nagusia da. Esku hartzeko lehenengo fasean aplikatzen da baliabideak, eta ez da aplikatzen behar-beharrezkoa ez bada.
- Prestazio ekonomikoak: etxeko indarkeriaren biktimek jaso ditzaketen zenbateko ekonomikoak; besteak beste, hauek: diru-sarrerak bermatzeko errenta, prestazio osagarria, guraso bakarreko unitateen sorospena eta beste laguntza ekonomiko batzuk.
- Laneratzeko-programa: gizarteratze-zerbitzuak programa propioak kudeatzen ditu, eta gizarteratzearen eta laneratzekoaren arloan lan egiten duten beste entitate batzuekin ere koordinatzen da. Programa horiek udaleko gizarte-zerbitzuetan artatutako pertsonen zuzenduta daude. Ez dira etxeko indarkeriaren biktime diren emakumeentzat espezifikoak, baina emakume horiek gizarteratze-programetan lehentasuna duten taldeetako bat dira.

## XVII. Salamancako Udala

- Udalerria: Salamanca
- Biztanleak: 142.412.
- Etxeko indarkeriaren biktimek artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearentzako Informazio eta Aholkularitza Zentroko Genero Indarkeriaren Biktime diren Emakumeentzako Arreta Zerbitzua (CIAM).
- Emakumearentzako Informazio eta Aholkularitza Zentroarekin harremanetan jartzeko:
  - Tel.: 923 18 75 44 (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara)
  - Helbide elektronikoa: [ciam@aytosalamanca.es](mailto:ciam@aytosalamanca.es)

Salamancako Udalak Familiako eta Aukera Berdintasuneko Zinegotzigoaren menpe dagoen Emakumearentzako Informazio eta Aholkularitza Zentroaren (CIAM) bidez zentralizatzen ditu udalerrian bizi diren emakumeentzako arreta-zerbitzuak. Hona hemen CIAMen helburu nagusiak:

- Gizartearen emakumeak duen egoera hobetzera eta arlo guztietan aukera-berdintasunaren printzipioa lortzera bideratutako ekintzak garatzea.

- Emakumeak bizitzako arlo guztietan parte har dezan sustatzea, eta sexuagatiko diskriminazioak saihestea.
- Gizartea sentsibilizatzea eta desberdintasun- eta indarkeria-egoerak prebenitzea.
- Familiei eta genero-indarkeriaren biktima diren kideei babesa eta arreta psikosoziala ematea
- Aukera Berdintasunerako Udal Planean jasotako edukiak eta ekintzak garatzea

Lehen deskribatutako helburuak lortzeko, CIAMak hainbat zerbitzu ditu; besteak beste, hauek:

- Informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua
- Asoziazionismoa sustatzeko zerbitzua, emakumeen elkarteei eta zaugarritasun-egoeran dauden emakumeak artatzen lan egiten duten entitateei lagunduz
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-zerbitzua: arreta psikologikoa, soziala eta juridikoa
- Prebentzio- eta sentsibilizazio-zerbitzua

CIAMen 2023ko memoriaren arabera (argitaratutako azkena), 315 emakume artatu ziren; haietatik 173k bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik jaso zuten indarkeria ; 15ek familia-ingurunean jasan zuten indarkeria; 4k, gizartean/komunitatean; 1ek, lan-arloan; eta 122 kasutan ez zen indarkeria-motarik zehaztu. Emakume haietatik guztietatik, 240 arreta individualizatuko gizarte-langileek artatu zituzten, eta 131, berriz, esku-hartze individualizatuko psikologoek. Guztira, 13 emakume eta 13 adingabe sartu ziren Salamancako Harrera Etxean; hala ere, haietako bat bera ere ez du zuzenean toki-entitateak kudeatzen. 78 aholkularitza juridiko egin zituen CIAMeko zerbitzuak; eta 29 ATENPRO-ren 2022ko erabiltzaileak izan ziren.

Salamancako Udalak gutxienez hiru sentsibilizazio-kanpainak egiten ditu urtean, biztanleentzat oro har, etxeko indarkeriaren aurka. Haietako batzuek indarkeriaren alderdi espezifiko batzuetan eragina dute; besteak beste, sexu-erasoak, indarkeria gazteengan, puntu moreak zaindariaren jaietan, etab.; eta oroitzapenezko ekintza, hala nola Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Tailerrak ere egiten dira ikastetxeetan aukera-berdintasunari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruz, baita berdintasun-geletan ere.

Salamancako hiriko Emakumeen eta Gizonen Arteko Aukera Berdintasunerako III. Udal Plana zortzi ildo estrategikoren inguruan egituratzen da; haien artean, genero-indarkeriaren arloko prebentzioa eta arreta daude. Genero Indarkeriaren Udal Batzordea dago, eta gutxienez hiru hilez behin biltzen da. Halaber, zenbait neurri daude genero-indarkeriaren inguruan;

esaterako, sailarteko koordinazioa, hautapen-prozesuetan gai espezifikoak sartzea, sentsibilizazio-kanpainak, trebakuntza- eta informazio-ekintzak, etab.

Gainera, Salamancako Udalak enplegu-baliabide espezifikoak ditu etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzat; zerbitzu horiek informazioa, orientazioa, aholkularitza eta gizarteratzea eta laneratzea ematen dute. Hala ere, egia da ez dela aurkitu estatistikarik argitaratuta artatutako emakume kopuruari eta haien laneratzeari buruz. Baliteke baliabide hori CIAMek zuzenean ez kudeatzea, baizik eta Salamancako Udalaren beraren Lan Trebakuntzako eta Orientazioko Zentroak (CEFOL). Zentro hori Gizarte Ekintzako Arloaren menpe dagoen "Emakumea, Enplegua eta Aukera berdintasuna" atalak kudeatu behar du.

Halaber, Salamancako Udalak lankidetzeta-hitzarmenak ditu etxeko indarkeriaren eta salerosketaren biktima diren emakumeekin lan egiten duten entitate eta elkarteekin; besteak beste: Sexu Erasoen eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Salamancako Elkartea ("ADAVAS"), Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza Integrala Emateko "Plaza Mayor" elkartea; Beatriz de Suabia elkartea; edo Prostituzioa Prebenitzeko eta Emagalduek Berrito Gizarteratzeko eta Artatzeko Elkartea (APRAMP). Gainera, toki-entitate honek partaidetza-organoak ditu; besteak beste, Emakumearen Kontseilu Sektoriala, Genero Indarkeriari buruzko Udal Batzordea eta Sexu Abusuen Azpibatzerdea.

Azkenik, nabarmentzekoa da duela gutxi "Clara Campoamor" Emakumearen Etxea sortu dela. Han kokatu dira CIAMen egoitza eta Berdintasunerako Udal Eskola. Horrez gain, topaleku gisa ikusten da adin guztietako emakume eta gizonentzat, genero-berdintasunari eta aukera-berdintasunari buruzko sentsibilizazioan, kontzientziazioan eta trebakuntzan sakontzeko. Salamancako hiriko Emakumearen Etxeak erreferentzia-puntu bihurtu nahi du, programazio egonkorra eta jarraitua eskainiz, biztanleei oro har eta talde espezifikoek zuzendutako hainbat jarduerara, proiektu eta jardunen bidez.

### **XVIII. Agüimesko Udala (Kanaria Handia)**

- Udalerria: Agüimes (Kanaria Handia uhartera, Las Palmasko probintzia)
- Biztanleak: 32.105 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Genero-indarkerian espezializatutako zerbitzua.
- Agüimesko Udaleko Berdintasunarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 928 78 99 80 (astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era)
  - o Helbide elektronikoa: [centro.igualdad@aguimes.es](mailto:centro.igualdad@aguimes.es)

Agüimesko Udalak genero-indarkerian espezializatutako zerbitzu bat du, eta hauek osatzen dute: gizarte-langile bat, psikologo bat eta gizarte-hezitzaile bat. Genero-indarkeriari egoeran edo hura jasateko arriskuan dauden emakumeek zuzenduta dago, baita haien ardurapean dauden pertsonen ere, kontuan hartu gabe babes-agindua dagoen ala ez, edo salaketa bat jarri den ala ez. Hona hemen zerbitzu espezializatu horren helburuak:

- Genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeei eta haien seme-alabei informatzea, bideratzea eta modu integralean arreta ematea.
- Pertsona horientzako arreta integrala beste hauekin koordinatzea: Agüimesko Udaleko beste arlo batzuk, Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoak, udaltzaingoa, tartean diren gizarte-eragileak, eta Osasun Arloko eta Arlo Juridikoko profesionalak.

Hainbat bidetatik iristen da zerbitzura: emakumeak berak hala eskatuta, Berdintasun Zentroan bertan aurrez aurre; instantzia orokorra eginda; gizarte-zerbitzuek bideratuta; Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoek edo Udaltzaingoa bideratuta; genero-indarkeriaren biktimentzako arreta- eta harrera-baliabideek bideratuta; beste profesional eta baliabide publiko batzuek bideratuta, hala nola osasun-zentroak edo beste erakunde batzuk.

Agüimesko Udalak sentsibilizazio-kanpainak garatzen ditu martxoaren 8a (Emakumearen Nazioarteko Eguna) eta azaroaren 25a (Emakumearen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) direla-eta. Gainera, etengabe, udal-arlo guztiek, beren jardunetan, antolaketan eta egituran, sexuagatiko diskriminazio zuzen edo zeharkako oro desagerrarazteko betebeharra dute, emakumeen eta gizonen eginkizunarekin erlazionatutako estereotipoei aurre eginez, baita genero-indarkeria sortzen duen ekintza edo jokabide oro desagerrarazteko betebeharra ere; horretarako, hitzaldiak, jardunaldiak eta jardunaldi espezifikoak ematen dituzte, eta irrati- eta telebista-programa berezietan parte hartzen dute. Genero-indarkeria prebenitzea eta desagerraraztea Emakumeen eta Gizonen Arteko Aukera Berdintasunerako Agüimesko II. Planeko ardatz nagusietako bat da.

#### **XIX. Avilésko Udala (Asturias)**

- Udalerria: Avilés (Asturias)
- Biztanleak: 75.877 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearen Aholkularitza Zentroa (CAM).
- Emakumearen Aholkularitza Zentroarekin (CAM) harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 985 52 75 46
  - o Helbide elektronikoa: [igualdad@aviles.es](mailto:igualdad@aviles.es)

Avilésko Emakumearen Aholkularitza Zentroa (CAM) Avilésko herrietan bizi diren emakumeei zuzendutako doako informazio- eta aholkularitza-tresna bat da. Hona hemen Avilésko CAMen funtzio nagusiak: emakumearen eskubideei, kasuan kasu gauzatu behar diren ekintzei eta bidera ditzaketen izapide eta baliabideei buruzko informazio-lan orokorra egitea, eta emakumeen aurkako edozein diskriminazio-mota salatzea. Asturiasko Printzerriak (gobernu autonomikoa) sustatzen du baliabidea, eta Avilésko Udalak kudeatzen du, Berdintasuneko Zinegotzigoaren bidez.



Avilésko CAMEk informazio eta aholkularitza juridikoa eskaintzen du Zuzenbideko hainbat diziplinan: zibila, penala, lanekoa, behin-behineko neurriak izapidetzea banantzeetan eta falta-epaiketetan etxeko indarkeriaren biktima diren eta baliabide gutxi dituzten emakumeentzat. Etxeko indarkeriako egoerei heltzeko, Avilésko CAMEko langileek Asturiasko Printzerriko berdintasun-arloko zerbitzuekin koordinatuta lan egiten dute. CAM zerbitzuak guztira 2.246 emakume artatu zituen 2020tik 2022ra bitartean.

Avilésko Udalak etxeko indarkeriaren biktimentzako eta haien seme-alabentzako Harrera Etxea kudeatzen du. 2022an, guztira 27 emakume eta 7 adingabe artatu dira Avilésko Harrera Etxean. Halaber, tutoretzapeko etxebizitza bat dute Avilésko udalerrian. Baliabide horietan ostatatutako emakumeek, arreta soziala, psikologikoa eta juridikoa ez ezik, gizarteratzeko eta laneratzeko orientazioa ere jasotzen dute ibilbide espezifiko baten bidez, etorkizun hurbilean lana errazago aurkitzeko eta, horrela, haien autonomia ekonomikoa bermatzeko. Baina gizarte- eta lan-arreta ez dute soilik etxebizitzetan ostatatutako emakumeek jasotzen; guztira, etxeko indarkeriaren biktima diren 44 emakume artatu zituen 2022an Avilésko Udaleko Trebakuntza eta Enplegu Zerbitzuak.

Halaber, 2022ko amaieratik, Avilésko herriak Emakumeen Etxea du xede horretarako eraikin batean. Zabaldu zenetik, leku berean jar daitezke emakumeei zuzendutako programa guztiak, eta tailerrak, hitzaldiak, erakusketak eta bestelako jarduera guztiak. Orobat, Avilésko Udalak Emakumearen Udal Kontseilua du partaidetza-eremu eta foro gisa; hor, emakumeen taldeek eta elkarteek beren proposamenak egiten dituzte, eta Avilésen berdintasunaren arloan egiten diren jardunak ebaluatzen dituzte.

## XX. Cádizeko Udala

- Udalerria: Cádiz
- Biztanleak: 113.066 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta integraleko zerbitzua.
- Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta integraleko zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 956 21 11 99 / 956 21 12 65 (astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era)
  - o Tel. Larrialdiak (24 ordu): 900 21 21 30.
  - o Helbide elektronikoa: [fundacion.mujer@cadiz.es](mailto:fundacion.mujer@cadiz.es)

Cádizeko Udalak genero-indarkeriaren biktimentzako arreta integraleko zerbitzu bat du, eta Emakumearen Udal Fundazioan integratuta dago. Udal-fundazio horrek bere konplexutasun osoan heltzen dio genero-indarkeriari, udal-arlo guztiak inplikatur, genero-zeharkakotasuna prebentzioarekin, etxeko indarkeriaren aurkako borrokarekin eta biktimentzako eta haien familientzako arretarekin erlazionatutako alderdi guztietan aplikatzeko.

**24 orduko larrialdi-zerbitzua eta indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta zuzena emateko zerbitzua** Emakumearen Udal Fundazioak ematen du, Estatu segurtasun-indar eta -kidegoekin batera, eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako esku-

hartze eta laguntza zuzeneko unitate gisa ulertzen da. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuak artatzeko larrialdi-mekanismo hau 900 21 21 30 doako telefono-zenbakian jasotzen dituen deiek sustatzen dute. Zerbitzu honek eguneko 24 orduetan ematen du genero-indarkerian espezializatutako laguntza teknikoa. Babesa eta aholkua ematen dio biktimari indarkeria jasan ondorengo uneetan, eta kasu zehatz bakoitzera egokitutako jardun egokiak egiten ditu. Larrialdi-zerbitzuen jarduna amaitu ondoren, Emakumearen Udal Fundazioko diziplinarteko taldera bideratzen da kasua, genero-indarkeriaren biktimei eta haien familiei segimendua egiteko eta laguntza integral psikologikoa, juridikoa eta soziolaborala emateko programa baten bidez.

Cádizeko Emakumearen Fundazioko diziplinarteko taldearen bidez segimendua egiten zaie genero-indarkeriaren biktimei eta haien familiei eta laguntza integrala ematen zaie. Hiru unitate ditu Fundazioak: arreta juridikoko unitatea, arreta psikologikoko unitatea eta arreta sozialeko unitatea.

- Arreta juridikoko unitatea: doako zerbitzua da, eta maila indibidualean edo familiakoan duten edozein gairi dagokionez aholkularitza juridikoa eskatzen duten Cádizeko emakumeak artatzen ditu. Gainera, etxeko indarkeriaren biktimei diren emakumeen eskubideak babesten ditu, gainerako udal-arloekin, erakunde nazional eta autonomikoekin, poliziarekin eta biktimak babesten diharduten epaitegiekin koordinatuta.
- Arreta psikologikoko unitatea: aholkua ematen die genero-gatazken ondoriozko egoeretan dauden emakumeei; familiako eta gizarteko harremana eta adostasuna hobetzera bideratutako programekin lan egiten du, arreta psikologiko pertsonalizatua emanez eta taldean lan eginez, familia-egitura aldatzen duten prozesuen ondorioz (esaterako, banantzea edo dibortzioa) sortzen diren gatazkek konpontzeko. Gainera, arreta psikologikoa bermatzen die etxeko indarkeriaren biktimei diren emakumeei, ebaluazio indibidualizatuak eginez, eta arreta eta babes psikologikoko programak zuzentzen ditu entitateentzat eta emakumeen elkarreentzat, prebentzio- eta informazio-jardunen bidez.
- Arreta sozialeko unitatea: unitate honetan, lehenengo balorazioa eta analisia egingo da udal-baliabide honetara jotzen duten emakumeen problematikari edo eskaerari buruz. Unitate honen bidez koordinatzen da lana profesionalekin eta kanpo-baliabideekin, emakumeei gizarte-laguntza ematen zaie, eta kasuen segimendua egiten da.

Era berean, Cádizeko Udala Cádizeko hiriko genero-indarkeriaren aurkako I. Udal Plan Integrala du 2019ko urtarriletik. Plan horretan, toki-entitateak genero-indarkeriari heltzeko ekintzak eta estrategiak biltzen dira. Hala ere, aurretik, Udalak bazuen Cádizeko udalerrian emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeria desagerrarazteko udal-ordenantza bat. Horri guztiari **Cádizeko hiriko Berdintasunaren Behatokia** sortu izana gehitzen zaio, hiriaren gizarte-errealitatea aztertzeke eta ebaluatzeke,

eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria prebenitzeko proiektuak sustatzeko; berdintasuna, genero-rolak, indarkeria eta segurtasunik eza ikertzeko tresna gisa. Hari esker, informazio objektiboa lor daiteke prebentzio-estrategiak prestatzeko, baita politika publiko eraginkorragoak eta efizienteagoak ere.

Cádizeko Emakumearen Udal Fundazioak ikastaroak, kanpainak eta jarduerak ere egiten ditu urte osoan zehar. Jarduera horietako batzuk martxoaren 8arekin, azaroaren 25arekin eta inauterietako kontzientziazioarekin erlazionatutakoak dira. Gainera, kontsulta egiteko, parte hartzeko, proposamenak bideratzeko politika publikoak ebaluatzeko organo gisa, Cádizeko hiriko Genero Indarkeriaren Aurkako Segimendurako Tokiko Batzordea eta Cádizeko Udalerriko Emakumearen Kontseilua eratu ziren.

## XXI. Toledoko Udala

- Udalerria: Toledo
- Biztanleak: 85.085 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearen Zentroa.
- Emakumearen Zentroarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 925 33 03 99 (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara); eta 900 100 114, 24 orduko arretarako.
  - o Helbide elektronikoa: [centromujer@toledo.es](mailto:centromujer@toledo.es)

2008an, Toledoko Udalak **Emakumearen Zentroa** sortu zuen udal-egituraren barruan, toki-entitatearen eta Gaztela-Mantxako Emakumearen Institutuaren arteko hitzarmenaren bidez, emakumea bizitzako arlo guztietan erabat integratzeko prozesuan aurrera egiteko eta prozesua finkatzeko, lan-arloan eta arlo sozialean, kulturean, ekonomikoan edo politikan diskriminazio oro gainditzeko. Toledoko Emakumearen Zentroaren helburua da emakume guztiei dauzkaten eskubideei eta aukera-berdintasunari buruzko informazioa ematea, eta hainbat arlotan orientazioa eta aholkularitza ematea (juridikoa, psikologikoa, lanekoa, enpresakoak, gizarte-zerbitzuetako, dinamizazio kulturelekoa, osasunekoa eta aisiakoa).

Arlo juridikoan eskaintzen dituen zerbitzuek emakumeen eskubideei eta haiek erabiltzeari buruzko informazioa eta aholkularitza ematen dute arlo zibilean, lanekoan, fiskalean eta beste batzuetan. Arlo psikologikoan, informazio, orientazio eta babes psikologikoa eskaintzen die, bai banakakoa, bai taldekoa, laguntza behar duten emakumeei, bereziki etxeko indarkeriaren biktimei, baita autonomia-erkidegoaren baliabide psikologikoei buruzko informazioa eta aholkularitza ere etxeko indarkeriaren biktimek doako laguntza psikologikoa jaso ahal izan dezaten.

Enpleguaren eta enpresak sortzearen arloan, Toledoko Emakumearen Zentroak informazio eta orientazio indibidualizatua eskaintzen du lan-etorkizunaren inguruan erabakitzen eta enplegua bilatzen laguntzeko, eta ikastaroak ere ematen ditu enplegua bilatzeko teknikak hobetzeko, eta trebakuntza espezifikoa ere bai enplegarritasuna hobetzeko. Halaber, informazioa eta aholkularitza ere ematen da ekintzaile izateko eta enpresa-ekimenak abian jartzeko.

Etxeko indarkeriaren biktimentzako arretan, Toledoko Udalak, lehen adierazitako zerbitzuak emateaz gain, Gaztela-Mantxako Emakumearen Institutuaren erakunde laguntzaile eta babesle gisa jarduten du. 900 100 114 doako larrialdi-telefonoaren bidez artatzen ditu etxeko indarkeriaren biktimen dei guztiak. Zerbitzu autonomiko honen bidez, Udalarekin koordinatuta, erabilgarri dauden baliabide guztiak antolatzen dira eguneko edozein unetan etxeko indarkeriaren ondoriozko egoerak artatzeko; horretarako, tresnak eskaintzen ditu, eta emakume biktimei eta, halakorik izanez gero, seme-alabei erantzuten die.

## XXII. Mislatako Udala

- Udalerria: Mislata (Valentzia)
- Biztanleak: 44.282 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Delituaren Biktimentzako Laguntza Bulegoa (OAVD).
- Delituaren Biktimentzako Laguntza Bulegoarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 961 839 587 (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara).
  - o Helbide elektronikoa: [victimes\\_mislata@gva.es](mailto:victimes_mislata@gva.es)

Mislatako (Valentzia) udalerrian eskaintzen den baliabidea Valentziako Generalitatearen menpe dago, nahiz eta toki-entitatearekin koordinatuta ematen den, delituen biktimak bideratzeko. Gure kasuan, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta kontuan hartuta aztertuko dugu zerbitzua. Delituaren Biktimentzako Laguntza Bulegoaren barruan, Valentziako Erkidegoko edozein udalerritan bizi diren eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak prozedurako edozein unetan lekualdatzeko zerbitzua antolatzen du (baita salaketa jarri baino lehen eta bista egin ondoren ere).

OAVDek biktimaren ebaluazio indibidualizatua egiten du kasu bakoitzaren behar espezifikoak baloratzeko, babes-neurriak proposatzeko, informazioa emateko eta laguntza-plan indibidualizatuen bidez babesa eta laguntza emateko. Halaber, arreta juridikoa, psikologikoa eta soziala ematen da. Une oro dago udal-zerbitzuekin koordinatuta, baita probintziako (kasu honetan, Valentziako) Genero Indarkeriaren Biktimentzako Salaketa eta Laguntza Bulegoarekin ere. Bulego horrek laguntza psikologikoa eta gizarte- eta laguntza-baliabideak ematen ditu salaketa egin eta berehala, eta toki seguruak eskaintzen dizkie biktimei, haien eskubideak bermatzeko. Haren bidez, salaketa aurkezten denetik baliabideak integratzen dituen sistema bat ezartzen da, ahalik eta informazio gehien izateko, baita biktimari maila juridikoan eta psikosozialean lagunduko zaiola bermatzeko ere. Horrela, prozesu judizialaren hasieratik amaierara etxeko indarkeriaren biktimek arreta integrala jasoko dutela bermatzen da, jasandako kaltea aritzen da, eta leheneratzen laguntzen zaie.

**XXIII. Rivas Vaciamadrideko Udala**

- Udalerria: Rivas Vaciamadrid (Madril)
- Biztanleak: 96.690 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta – Genero Indarkeriaren aurkako Eskualde Behatokiaren Udal Puntua.
- Genero Indarkeriaren aurkako Eskualde Behatokiaren Udal Puntuarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 91 666 68 66 (astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara)
  - o Helbide elektronikoa: [mujer@rivasciudad.es](mailto:mujer@rivasciudad.es)

Rivas Vaciamadrideko (Madril) Udalak etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-zerbitzua du. Zerbitzu horretara jo dezakete bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa, sexuala edo psikologikoa jasaten duten edo jasan duten emakumeek. Zerbitzu honen bidez, etxeko indarkeriaren biktimek laguntza, informazio, aholkularitza eta arreta espezializatua jaso ahal izango dute. Zerbitzuko taldea hauek osatzen dute: gizarte-langile bat (egoera aztertzen du, eta haien beharretara ongien egokitu daitezkeen baliabideen eta laguntzen berri ematen dio etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeari); psikologo bat (arreta eta babesa emango dizkio biktimari, banaka esku hartuta, dagoen egoera pertsonalaren arabera); eta abokatu bat (eskubideen berri ematen dio biktimari, eta prozedura judizialen segimendua egiten du).

Halaber, Rivas Vaciamadrideko herriak duela hamar urte baino gehiago du indarkeria matxisten aurka jokatzeko protokolo lokal bat. Protokolo hura prestatzeko, xede horretarako sortutako Batzorde Teknikoaren lanak hartu ziren oinarri gisa. Batzorde hori protokoloaren funtzionamenduaren segimendua egiten du, eta beharretara eta errealitate aldakorrera egokitzeko egin beharreko hobekuntzak sustatzen ditu. Horrez gain, Udalak Puntu More bat du herriko jaietan, eta sexu-indarkeriako egoeretan jokatzeko protokolo espezifikoa ere bai jaialdietan. Duela gutxi, VIOPET proiektua sustatu du Gizarte Eskubideen eta 2030erako Agendaren Ministerioko Animalien Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiarekin batera. Gainera, Udalak etxeko indarkeriako kasuen segimendua egiteko batzorde bat eratu zuen, etxeko indarkeriaren herriko biktimek jasotzen duten arretari eta kasuan kasu erabilgarri dauden baliabide guztietarako sarbideari buruzko etengabeko segimendua egiteko.

Kontzientziazio-arloan, Rivas Vaciamadrideko Udalak kanpainak eta hedapen-materialak egiten ditu etengabe, etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko; emakumeek indarkeria matxistaren aurka jarduteko gida nabarmentzen da. Berdintasunaren arloko beste ekimen batzuen artean, aipatzekoak dira Etxe Feminista eta Emakumeen Ikasgela Irekia. Proiektu horien kudeaketaz Feminismoen eta Aniztasunaren Zinegotzigoa arduratzen da, eta, beste helburu batzuen artean, herritarrak indarkeria matxisten inguruan sentsibilizatu nahi

ditu, eta indarkeria horiek jasaten dituzten emakumeei aholku eman eta lagundu egin nahi die, haien garapen pertsonal eta sozialeko aukerak areagotze aldera.

#### XXIV. Iruñeko Udala

- Udalerria: Iruñea (Nafarroa)
- Biztanleak: 203.418 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearentzako arretarako udal-zerbitzua (SMAM).
- Emakumearentzako arretarako udal-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:
  - o Tel.: 948 42 09 40 (08:30etik 14:30era)
  - o Helbide elektronikoa: [SMAM@pamplona.es](mailto:SMAM@pamplona.es)

Emakumearentzako Arretarako Udal Zerbitzuaren (SMAM) bidez, Iruñeko Udalak arreta integrala eta pertsonalizatua ematen die egoera hauetako batean dauden herriko emakumeei: genero-indarkeria edo genero-indarkeriako arriskua, bikote-harremanen haustura eta gatazkak gertatzeko aukera handia, dibortzioko eta seme-alabekiko harremanak legez arautzeko prozesuak, prostituziotik irteteko prozesuak. Zerbitzuak aholkularitza juridikoa eta esku-hartze soziala eta psikologikoa ematen ditu, eta, bereziki, aholkularitza eta informazioa familientzat eta etxeko indarkeriaren biktima den ingurunearentzat. Telefonoz edo Udaleko auzo-unitateen, osasun-zentroen edo beste erakunde batzuen bidez jar daiteke zerbitzuarekin harremanetan.

Iruñeko Berdintasunerako III. Udal Planaren (2016-2022) arabera, aurrera egin behar da emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan, arretan eta azterketan, udal-baliabideak eta Nafarroako Foru Erkidegoko baliabideak aprobetxatuz. Era berean, lehentasunezkoztat jotzen da politika publikoak martxan jartzeko, Iruñea hiri segurua izan dadin, jarrera sexistak prebenitzeko protokolo espezifikoekin, bereziki hiriko jaietan eta jende askoko beste ekitaldi batzuetan. Horrez gain, toki-entitateak etengabeko konpromisoa du berdintasunarekin, ez bakarrik egun nabarmenetan ekintzak egiteagatik (hots, martxoaren 8an eta azaroaren 25ean), baita Emakumeen Etxea Iruñeko emakume guztientzako hausnarketa-, topaketa-, ahalduntze- eta erreferentzia-eremu gisa izaten jarraitzeko lan egiteagatik ere, ikastaro, hitzaldi, tailer, erakusketa eta beste jarduera batzuen bidez berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko sinergiak sortze aldera. Halaber, Emakumeen Biblioteka bultzatzen du, ekintza espezifikoen bidez emakumeak literaturan duen eginkizuna zabaltzeko.

#### XXV. Jerez de la Fronterako Udala

- Udalerria: Jerez de la Frontera (Cádiz)
- Biztanleak: 212.730 (2022)
- Etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko udal-baliabide nagusia: Emakumearen Aholkularitza Zentroa.
- Emakumearen Aholkularitza Zentroarekin harremanetan jartzeko:

- Tel.: 956 14 91 21
- Helbide elektronikoa: [cam.sygenero@aytojerez.es](mailto:cam.sygenero@aytojerez.es)

Jerez de la Fronterako Udalak Emakumearen Aholkularitza Zentroa du bere egituran. Haren instalazioak Emakumeen Etxean daude, eta Jerez de la Fronteran bizi diren emakumeentzako aholkularitza, orientazioa eta erantzuna ematen duen arreta pertsonalizatuko udal-baliabide gisa definitzen da. Halaber, Emakumearen Aholkularitza Zentroak askotariko zerbitzuak ematen ditu bere helburua betetzeko; hain zuzen ere, hauek:

- Informazio-zerbitzua
- Gizarte-laneko aholkularitza
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta psikologikoa
- Aholkularitza juridikoa
- 24 orduko larrialdi-telefonoa, genero-indarkeriaren biktimak babesteko
- Genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdietako baliabidea
- Genero indarkeriaren biktimentzako telelaguntza mugikorra

Jerez de la Fronterako Emakumearen Aholkularitza Zentroko **Informazio Zerbitzuarekin** jarri behar da lehenbizi harremanetan udal-zerbitzuetara iristeko. Informatzaileak aurrez aurre edo telematikoki erantzuten dio eskaerari, eta, arreta-protokoloari jarraikiz, jardunak egin ala ez baloratzen da, eta, behar izanez gero, beste zerbitzu batzuetara bideratu, nola Udalarenak berarenak hala beste erakunde batzuenak. Astelehenetik ostiralera bitartekoa da arreta-ordutegia, 09:00etatik 13:00etara.

**Gizarte-laneko aholkularitzak** informazioa eta orientazioa ematen du, behar izanez gero dagokion zerbitzura bideratzeko, erabiltzaileen eskaeren arabera. Hain zuzen ere, aholkularitzak laguntza indibidualizatua ematen die zaugarritasun bereziko egoeretan (esaterako, genero-indarkeriakoetan) dauden emakumeei; informazioa, arreta eta kudeaketa genero-indarkeriaren arloan erabil ditzaketen baliabide espezifikoei eta eskura ditzaketen gizarte-prestazioei buruz; genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorreko zerbitzua izapidetzen du; genero-indarkeriaren biktimak Larrialdietako Baliabidean edo Harrera Etxean sartzeko izapideak egiten ditu; eta segimendua eta koordinazioa egiten du hala behar duten kasuetan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat arreta ematen diharduten entitateekin batera.

**Emakumeentzako arreta eta orientazio psikologikoko zerbitzuak** laguntza eta orientazio pertsonalizatua edo taldekoa ematen du pertsona arteko krisialdi-egoeretan eta emakumeek genero-indarkeria jasan dezaketen gizarte-esfera guztietan; genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako terapiak, psikologikoki eta emozionalki leheneratzeko; eta segimendua eta koordinazioa hala behar duten kasuetan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta ematen diharduten gainerako entitateekin batera.

**Aholkularitza juridikoko zerbitzuak** informazioa eta aholkularitza ematen du emakumeen eskubideei buruz, baita hainbat arlotako ekintza, izapide eta baliabideei buruz; esaterako, zuzenbide zibila (familia-zuzenbide alderdiak: banantzea, dibortzioa, mantenu-pentsioak...), zigor-zuzenbidea (tratu txarrak, erasoak, sexu-abusuak, jazarpena, babes-agindua...), doako laguntza juridikoko eskubideari buruzko informazioa, eta kasuen segimendua eta koordinazioa, hala behar izanez gero, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta ematen diharduten gainerako entitateekin batera.

**Genero-indarkeriaren biktimak babesteko 24 orduko larrialdi-telefonoak** berehalako arreta eta babesa ematen die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei, baldin eta haien segurtasuna arriskuan badago eta larrialdia Emakumearen Aholkularitza Zentroaren arreta-ordutegitik kanpo gertatzen bada (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara). Hain zuzen ere, baliabide honetan eskura jartzen diren telefonoak Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoei dagozkie; hauek dira: Udaltzaingoa (092), Polizia Kidego Nazionala (091) eta Guardia Zibila (062). Eguneko 24 orduetan ematen da arreta, urteko 365 egunetan.

**Genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdietako baliabidea** genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen berehalako babesean eta zaintzan espezializatutako zerbitzu bat da. Emakume horiek etxetik joan behar izan dute, seme-alabak hartuta, haien segurtasuna arriskuan zegoelako. Zenbait egunez ematen zaie ostatu; emakumea eta haren seme-alabak luzaroago hartu behar dira, Andaluziako Juntako Harrera Etxeen Sareko baliabidera bideratzen dira. Larrialdietako baliabide honen helburu nagusia da behar duten segurtasuna bermatzea emakumeari eta haren seme-alabei, erasotzailearekiko legezko babes-neurriak ezartzen diren bitartean. Gainera, hauek dira baliabide honen helburu espezifikoak: emakumearen eta adingabeen segurtasun fisikoa eta psikologikoa babestea; emakumeari arreta integralagoa ematea; arrisku eta presioetatik urrun dagoen toki bat eskaintzea, bere egoerara egokitutako erabakiak hartu ahal izateko; eta adingabeei ohituren eta zainketen eremu normalizatu bat ematea, emakumeak laguntza-testuinguru batean oinarrituta aurre egin diezaien egoera berriari eta erabakiei. Eguneko 24 orduetan dago zabalik baliabidea, urteko egun guztietan.

ATENPRO-ren bidez ematen den **genero-indarkeriaren biktimentzako telelaguntza mugikorrak** berehalako arreta telematikoak ematen die genero-indarkeriaren biktimei, telefonia mugikorrak eta geolokalizazioak eskaintzen duten teknologiaren bidez, eta erantzun bizkorra ematen die eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan eta edonon daudela sor daitezkeen egoerei. Zerbitzuaren erabiltzaile izateko, Emakumearen Aholkularitza Zentroaren bidez eskatu behar da.



## ONDORIOAK

Zerbitzuen goiko azterketak agerian jartzen du Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluan definitutakoaren arabera etxeko indarkeriatzat jotzen denaren biktimei askotariko toki-entitateek ematen dizkieten prestazioen heterogeneotasuna.

Horrenbestez, ez dago autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen arteko akordiorik prestazio horiek zein izan behar luketen zehazteko. Uniformetasunik ere ez dago autonomia-erkidego beretako herrien artean. Zalantzarik gabe, askotariko faktoreengatik izan daiteke hori; besteak beste, udalerraren tamaina, politika horietako inbertsio handiagoa edo txikiagoa, Estatuaren lurralde-antolaketa eta erakundeen arteko eskumen-banaketa.

Kezkagarria iruditzen zaigu deskribatu berri dugun eta egiaztatu ahal izan den egoerak, azterlan osoan zehar enpirikoki frogatu ahal izan dugun bezala, tratu-desberdintasuna eragitea etxeko indarkeriaren askotariko biktimen artean; izan ere, praktikan, lehen eta bigarren mailako biktimak daude, bizitokiaren arabera.

Gure ustez, beharrezkoa litzateke organo eskudunetan (esaterako, autonomia-erkidegoetako presidenteen biltzarretan edo FEMPen bileretan) gutxieneko zerbitzu batzuk protokolo batean biltzeko ados jartzea; gutxieneko zerbitzu horiek biztanle-tarteen arabera izango lirateke, eta etxeko indarkeriaren biktimentzat egokiak, lurralde nazional osoan uniformeak, bizitokia edozein dela ere. Hori guztia, noski, eskumen nazionalak, autonomia-erkidegoenak, tokikoak eta udaletakoak errespetatuz.

## 7. txostena

*Lokalki esku hartzeko ereduaren  
proposamena*

Toki-entitateetan espezializatutako ekintzak ezartzea dakarren eredu bat proposatzen da. Txosten honetan, zerbitzu, atal eta abarren izen batzuk erabiliko dira, baina izen horiek ez dute zertan bat etorri zerbitzu espezifikoekin; hobeto identifikatzeko baino ez dira erabiltzen.

Toki-entitate bakoitzean martxan jarri behar den berdintasun-zerbitzuaren bidez egingo da hori guztia. Berdintasun-zerbitzu hori bi ataletan banatuko da: Prebentzio Atala eta Arreta Atala.

Zerbitzu-burutza bat izango da zerbitzuaren buru. Besteak beste, zerbitzuko langile eta jarduera guztiak koordinatzeaz arduratuko da, eta egitura ekonomikoa eta materiala eta giza egitura izango du zerbitzuari dagozkion funtzioak garatzeko.

**Prebentzio Atalak** funtzio hauek izango ditu:

- Ekintza positiboari buruzko aholkularitza eta informazioa ematea emakumeen egoerari lotuta.
- Udalerriko desberdinkeria posibleak aztertzea, ikertzea eta diagnostikatzea.
- Genero-berdintasuna sustatzeko proiektuak, jarduerak eta programak garatzea eta ezartzea.
- Udalerriko arlo guztietan zeharkakotasuna sartzea.
- Etxeko indarkeriako egoerengatik bazterkeria prebenitzea.
- Diskriminaziozko egoeren inguruan sentsibilizatzea.
- Etxeko indarkeriari, hizkera inklusiboari eta abarri buruzko protokoloak garatzea.
- Gaikuntza- eta dibulgazio-ekintzak egitea.
- Berdintasunaren aldeko informazio-materiala diseinatzea.
- Udalerriko berdintasun-programak garatzea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Aholkularitza ematea eta udalerriko emakume-taldeekin eta erakunde feministekin lan egitea.

Horretarako, langile hauek izan behar ditu:

- Berdintasuneko agentea:

Gutxienez bat egongo da.

Zeregin hauek izango ditu: Ataleko ekintza guztiak diseinatzea, aztertzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.

Postu honetan egongo den pertsonak baldintza espezifiko hauek izango ditu gutxienez:

- Unibertsitateko titulua.

- Berdintasunarekin, generoarekin, feminismoarekin eta abarrekin erlazionatutako gaiei buruzko unibertsitate-master bat egin izatea.

- Berdintasun-sustatzailea:

Halakoen kopurua udalerraren tamainaren arabera izango da; gutxienez bi plaza egongo dira 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta beste bat 50.000 biztanleko edo goragoko frakzioko. 20.000 biztanletik beherako udalerriek diputazioaren bidez jasoko dute arreta. Gutxienez bi plaza izango ditu alderdi judizial bakoitzean, eta beste bat 50.000 biztanleko edo alderdi judizialeko goragoko frakzioko.

Zeregin hauek izango ditu: Ataleko ekintza guztiak abian jartzea, ezartzea eta garatzea.

Postu honetan egongo diren pertsonen baldintza espezifiko hauek izango dituzte gutxienez:

- Batxilergoko titulua edo baliokidea.
- Berdintasunarekin, generoarekin, feminismoarekin, berdintasuneko agentearekin edo berdintasun-sustatzailearekin eta antzekoekin erlazionatutako gaiei buruzko ikastaro bat egin izatea, gutxienez 300 ordukoa aurrez aurrekoa bada, eta gutxienez 400 ordukoa birtuala bada.

Atal honetako langile guztiek etengabeko trebakuntzako ekintzak egin behar ditu; besteak beste, hauek:

- Berdintasun-gaiei buruzko ikastaro espezifikoak.
- Gertaera akademiko espezializatuak.
- Genero-berdintasunarekin erlazionatutako gaurkotasun-gaiei buruzko ikastaroak, biltzarrak, mintegiak, etab.
- Berdintasunari buruzko ezagutzak eguneratzeko eta gai berrietan gaitzeko iraupen luzeko ikastaroa (gutxienez 300 ordukoa) (nahitaezkoa gutxienez bost urtez behin).

**Arreta Atalak** funtzio hauek izango ditu:

- Etxeko indarkeriaren biktimetzako ekintza positiboak buruzko aholkularitza.
- Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimetzako arreta integrala.
- Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima diren adingabeentzako arreta integrala.
- Etxeko indarkeriaren biktimetzako jarduerak garatzea.
- Udalerraren beraren egituraren etxeko indarkeriari buruzko gaikuntza- eta dibulgazio-ekintzak egitea.

Horretarako, unitateetan banatuko da atala. Herriaren tamainaren arabera izango da unitateen kopurua; gutxienez unitate bat egongo da 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta beste unitate bat 50.000 biztanleko edo goragoko frakzioko. 20.000 biztanletik beherako

udalerriek diputazioaren bidez jasoko dute arreta. Gutxienez unitate bat izango du alderdi judicial bakoitzean, eta beste bat 50.000 biztanleko edo alderdi judizialeko goragoko frakzioko. Haietako bakoitzak langile hauek izango ditu:

- Kasuaren koordinatzailea:

Gutxienez bat egongo da (unitate bakoitzean).

Zeregin hauek izango ditu: biktimarekiko lehenengo kontaktua, gizarte-arloko arreta, kasuaren koordinazioa eta eta biktima bakoitzarentzako erantzun integralaren diseinua.

Postu honetan egongo diren pertsonen baldintza espezifiko hauek izango dituzte gutxienez:

- Gizarte-laneko, gizarte-hezkuntzako edo antzeko unibertsitateko titulua.
- Berdintasunarekin, generoarekin, feminismoarekin, berdintasuneko agentearekin edo berdintasun-sustatzailearekin eta antzekoekin erlazionatutako gaien buruzko ikastaro bat egin izatea, gutxienez 300 ordukoa aurrez aurrekoa bada, eta gutxienez 400 ordukoa birtuala bada.

- Psikologoa:

Gutxienez bat egongo da (unitate bakoitzean).

Zeregin hauek izango ditu: biktimentzako arreta psikologikoa.

Postu honetan egongo diren pertsonen baldintza espezifiko hauek izango dituzte gutxienez:

- Psikologiako unibertsitateko titulua.
- Osasun-arloko psikologia orokorreko unibertsitate-masterra egin izatea.
- Berdintasunarekin, generoarekin, feminismoarekin, berdintasuneko agentearekin edo berdintasun-sustatzailearekin eta antzekoekin erlazionatutako gaien buruzko ikastaro bat egin izatea, gutxienez 300 ordukoa aurrez aurrekoa bada, eta gutxienez 400 ordukoa birtuala bada.

- Abokatua:

Gutxienez bat egongo da (unitate bakoitzean). Zeregin

hauek izango ditu: biktimentzako arreta juridikoa.

Postu honetan egongo diren pertsonen baldintza espezifiko hauek izango dituzte gutxienez:

- Zuzenbideko unibertsitateko titulua.
- Dagokion abokatuen elkargo txit prestuko kide izatea.

- Berdintasunarekin, generoarekin, feminismoarekin, berdintasuneko agentearekin edo berdintasun-sustatzailearekin eta antzekoekin erlazionatutako gaiei buruzko ikastaro bat egin izatea, gutxienez 300 ordukoa aurrez aurrekoa bada, eta gutxienez 400 ordukoa birtuala bada.

Atal honetako langile guztiek etengabeko trebakuntzako ekintzak egin behar ditu; besteak beste, hauek:

- Berdintasun-gaiei buruzko ikastaro espezifikoak.
- Gertaera akademiko espezializatuak.
- Genero-berdintasunarekin erlazionatutako gaurkotasun-gaiei buruzko ikastaroak, biltzarrak, mintegiak, etab.
- Berdintasunari buruzko ezagutzak eguneratzeko eta gai berrietan gaitzeko iraupen luzeko ikastaroa (gutxienez 300 ordukoa), aditu bakoitzarentzat espezializatu (nahitaezkoa gutxienez bost urtez behin).
- 

Arreta Atalak **arreta-eredu** honen bidez lan egingo luke:

- Hartzaileak:

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak (Istanbulgo Hitzarmenean ezartzen den ikuspegi zabaletik ulertzen da kontzeptua) eta familia-ingurunean jasaten duten edozein indarkeria-motaren biktima diren adingabeak (haurrak eta nerabeak).

- Ereduaren oinarrizko laburpena:

Biktimak gehienez bi asteko epean jasoko du arreta, bizi den tokiaren arabera dagokion Ataleko unitateko kasuaren koordinatzailearen eskutik.

Biktima bere kabuz joan izan daiteke Atalera, edo bideratuta (beste udal-zerbitzu batetik edo hiriko beste erakunderen batetik). Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoek bideratu badute eraso edo salaketa izan delako, zazpi egun baino lehen artatu behar da pertsona.


Lehenengo bileran, 8. txosteneko galdetegia bete beharko da (entregagarri honetan jaso, jarraian), dauden tresnen berri emango (laguntzak, bekak, ikastaroak...), eta, unitatearen barruan (esparru psikologikoa edo juridikoa), zer komeni den, udalerriko beste zerbitzu batzuetara (Familia, Enplegua, Menpekotasuna...) edo kanpo-zerbitzuetara (elkarteak, ATENPRO...) bideratuko da kasua, Zerbitzuaren arloan (prebentzio-zereginetarako).

Kasuaren koordinatzailea gutxienez hilean behin bilduko da, egoera eguneratzeko eta segimendua egiteko, baldin eta aktibo badago (terapiaren batean, egoera judizialean... dagoen bitartean egongo da kasua aktibo). Kasua erdiaktibo badago (alegia, kasua egonkortuta badago eta jardunik martxan ez badu), gutxienez hiru hilez behin egin beharko dira bilerak. Kasua egoera inaktibora igaroko bada (alegia, beste hiri batera igarotzen denean

edo bileretara joaten jarraitu nahi ez badu); ahal denetan, azken bilera egingo da itxi aurretik, egoera eguneratzeko eta, lekualdatzea badago, dagokion hiriko zerbitzura bidaltzeko.

Kasuren bat bideratzen zaienean, bai psikologoek, bai abokatuak gehienez hamar eguneko epean artatu beharko dute, eta ohiko bilerak kasu zehatzaren eta egoeraren arabera maiztasunarekin egingo dira. Interesduna egoera judizialen batean badago, abokatuak gehienez hiru eguneko epean artatuko dute.

Arreta-fluxua:



Arlo honetan dugun esperientzia eta ezagutza espezializatua kontuan hartuta, uste dugu gaur egungo kudeaketa-, antolaketa- eta arreta-eredua egokia da udalerrri guztietan ezartzeko, eta herriaren tamainarekin, izaera uhartetarrarekin eta abarrekin erlazionatutako berezitasun zehatzak gehitzen ditu.

Gure ustez, modu horretan sistema homogenea egongo litzateke, eta, hari esker, antzeko arreta eman ahal izango litzateke genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima guztiei herrialde osoan. Gainera, harmonizazio horrek lurraldearteko koordinazioa eta, behar denean, kasuetako datuen trukea ahalbidetuko luke (adibidez, biktima bat beste norabait joaten denean).

Gure herrialdeko errealitatea eta herri txikiak daudela ikusita, proposatutako ereduak mankomunitateen edo herrien arteko batasunen bidez gauza daiteke, edo diputazioen bidez, hainbat udalerrri txikiri zerbitzua ematen dieten alderdi judizialez baliatuta.



## 8. txostena

*Emakumeen aurkako indarkeriaren  
diagnostikoa egiteko galdetegi/tresna  
lokalaren proposamena*

Erabiltzaileei buruzko datuen fitxa erreferentzia gisa hartuta prestatu da galdetegia. Fitxa hori zerbitzuko altak eta bajak izapidetzeko toki-entitateek behar dituzten ATENPRO-ren inprimakietako bat da.

Fitxa horretan, betetzen duen pertsonak zenbait datu objektibo idatzi behar ditu; haietako batzuetan "oharrak" egin behar ditu. Horren harira, prestatutako galdetegiak gida izan nahi du oharrak egin ahal izateko.

Galdetegia prestatzeko, hauek hartu dira kontua: ATENPRO-ren Zerbitzu Memoriak, "Las mujeres víctimas de violencia de género, atendidas en el servicio ATENPRO" izeneko Gurutze Gorriaren azterketa, Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko 2015etik 2019ra bitarteko makroinkestak, eta organo lizitatuak arriskua ebaluatzeko eskainitako tresnak (funtsean, EPV-R eta SARA) baloratzeko txostena, ikerketa-taldeak prestatua.

**Erabiltzailea aurkitzea** atalaren barruan, bi motatako informazioa dago: gaur egungo bizitokia eta lantokia.

Gaur egungo bizitokiari buruzko oharrak osatzeko, etxebizitzarekin erlazionatutako zailtasunei buruzko galdera batzuk egin daitezke:

- arazo garrantzitsurik izan den; esaterako, hipoteka ordaindu ezin izatea, alokairua edo ur-, argi- eta bestelako zerbitzuak ordaindu ezin izatea;

- etxerik gabeko egoerarik dagoen; alokairua ordaintzeko, etxebizitza babestua lortzeko eta abar laguntzak izapidetzeko zailtasunik egon den edo dagoen.

1. Non bizi den: berea den etxebizitza batean; etxebizitza alokatu batean; logela alokatu batean; tutoretzapeko etxebizitza batean; kalean; beste egoera bat.
2. Hipoteka bidez erositako etxebizitza batean bizi bada, arazorik izan du hura ordaintzeko?
3. Etxebizitza alokatu batean bizi bada, arazorik izan du errenta ordaintzeko?
4. Etxebizitza alokatu batean bizi bada, alokairua ordaintzeko laguntza baten onuraduna da?
5. Etxebizitza alokatu batean, berea den etxebizitza batean, etab. bizi den ala ez, arazorik izan du ura, argia, Internet, etab. ordaintzeko?

Lantokiari buruzko oharrak osatzeko, lan-egoerarekin erlazionatutako galdera batzuk egin daitezke; adibidez:

- emakumea langabezian dagoen, eta zergatik (osasun-arazoak, kontziliazio-arazoak, kontratu-harremanaren amaiera, indarkeriaren ondorioz, bikotekide ohiak ez zion lan egiten uzten);

- langabezia-sorospena jasotzen duen;

- langabezian ez badago, zer motatako kontratua duen (kontraturik gabe, lanaldi osokoa edo erdikoa, hobariduna);

- profil okupazionala (sektorea, gaikuntza).

1. Lan egiten du: bere kontura; besteren kontura; ez da lanean ari, baina enplegu bila ari da; ez da lanean ari, ezta enplegu bila ere.
2. Lanik ez egiteko arrazoiak: osasun-arazoak; indarkeria; kontziliazio-arazoak; kontratua amaitu zitzaion; bikotekide ohiak ez dio lan egiten uzten; ez du nahi.
3. Langabezian egonez gero, jasotzen al du sorospena edo langabezia-laguntzaren bat?
4. Lan egiten badu, zer motatako kontratua du?: kontraturik gabe; lanaldi osokoa; lanaldi partzialekoa; hobariduna; finkoa; aldi baterakoa.
5. Zein jarduera-sektoretan egiten du lan? Nekazaritza edo abeltzaintza; industria; zerbitzuak; beste bat.

**Egoera fisikoa/psikikoa edo osasun-egoera** atalean, hauekin erlazionatutako galderak sar daitezke:

- norberaren osasunaren balorazioa,

- haurdun dagoen edo haurdun dagoela uste duen,

- gaixotasun larriarik duen,

- mina duen eta, hala badagokio, non duen mina,

- antsietatea, larritasuna, depresioa edo insomnioa duen,

- farmakorik hartzen duen eta, hala badagokio, zein,

- azterketa ginekologikoak egiten dituen.

1. Nola baloratzen duzu zure osasun-egoera? Ezin hobea; ona; erdipurdikoa; txarra.
2. Haurdun zaude, edo haurdun zaudela uste duzu?
3. Gaixotasun larriarik duzu? Baiezkoa bada, adierazi zein.
4. Minik duzu? Baiezkoa bada, adierazi non (adibidez, bizkarrean, buruan, etab.).
5. Antsietatea, depresioa edo insomnioa duzu?
6. Botikarik hartzen duzu? Baiezkoa bada, adierazi zein (ez esan marka, baizik eta zertarako diren; adibidez, buruko minerako, artikulazioetarako, depresiorako edo antsietaterako, lorako, etab.).
7. Gutxienez urtean behin joaten zara ginekologoarenera?

**Bizikidetza-nukleoa** atalean, hauekin erlazionatutako galderak sar daitezke:

- gaur egungo bikotekidea (bikotekide berria duen eta, hala badagokio, nola ikusten duen harreman hori),
- seme-alabak (haien zaintza eta jagoletza duzun, edo partekatu egiten dituzun, bikotekide berriaren seme-alabarik ere badagoen).

1. Gaur egun, bikotekide berriarekin bizi zara?
2. Baiezkoa bada, nolakoa da bizikidetza hori? Ona. Erdipurdikoa Txarra.
3. Bikotekide ohiarekin seme-alabarik izanez gero, haien zaintza eta jagoletza zuri dagokizu, edo partekatu egiten duzu?
4. Seme-alabarik duzu bikotekide berriarekin?
5. Bikotekide berriarekin seme-alabarik izanez gero, haiekin bizi zara?

**Laguntzak/Harremanetarako pertsonak** atalean, gizarte-harremanekin erlazionatutako galderak sar daitezke:

- ea aspalditik daraman toki berean bizitzen,
- ea baduen arazoak nori kontatu,
- ea norbaitek emango lieketen laguntza materiala,
- ea sozializatzeko lekurik baduen eta sozializatzeko jarduerarik egiten duen (kafetegietako solasaldiak, askotariko jarduerak auzoko elkartean, etab.)

1. Zenbat denbora daramazu gaur egungo bizitokian/auzoan bizitzen? Sei hilabete baino gutxiago, urtebete, urtebete eta bi urte artean, bi eta hiru urte artean, hiru urte baino gehiago.
2. Baduzu arazoak nori kontatu?
3. Arazoak kontatzeko aukeratzen dituzun pertsonetatik, haietakoren batek laguntza materiala emango lizuke, behar izanez gero?
4. Auzoko jardueretan parte hartzen duzu; besteak beste, tailerrak, ikastaroak, gimnasia, etab.?
5. Elkartzen zara lagunekin tabernetan kafe bat hartzeko, hitz egiteko, etab.?

**Tratu txarrei buruzko istorioak** atalean, etxeko indarkeriaren askotariko alderdiekin erlazionatutako galderak sar daitezke:

- (i) gizarte-isolamendua (ea bikotekide ohiak non dagoen jakin nahi duen etengabe, ea haserretzen den beste pertsona batzuekin hitz eginez gero, ea haren mugikorra kontrolatzen duen);

- (ii) indarkeria fisikoa eta sexuala (ea bultza egin dion, aurpegian jo dion, iletik tira dion... Ea jipoitu egin duen. Ea arma batekin mehatxatu duen. Ea nahi ez bazuen ere sexu harremanak izatera behartu duen. Ea lesiorik izan duen eta, hala badagokio, non. Ea urratuak, ubelduak, etab. dituen);

- (iii) indarkeria psikologikoa (ea apaldu, gutxietsi, iraindu edo baztertu egin duen...);

- (iv) seme-alabei eragindako indarkeria (ea indarkeria-egoeren lekuko izan diren, ea jipoitu, iraindu, mehatxatu, etab. egin dituen, ea trauma osteko estresa diagnostikatu dieten, ea bikotekide ohiak mehatxu egiten zien bisitetan, etab.);

- (v) etxeko ekonomiaren kontrola (ea bikotekide ohiak uko egiten zion dirua emateari etxeko gastuak ordaintzeko; ea dirua bereganatzen zuen; ea ez zion uzten familia-ekonomiarekin erlazionatutako erabakiak hartzen).

1. Zure bikotekide ohiak non zauden jakin nahi du etengabe?
2. Zure bikotekide ohiak haserretu egiten da beste pertsona batzuekin hizketan ari zarela ikusten badu?
3. Zure bikotekide ohiak mugikorra kontrolatzen dizu?
4. Zure bikotekide ohiak gutxietsi, apaldu, iraindu edo baztertu egin zaitu?
5. Zure bikotekide ohiak bultza egin dizu, aurpegian jo dizu, jipoitu egin zaitu, edo lurrera bota zaitu?
6. Zure bikotekide ohiak sexu harremanak izatera behartu zaitu zure borondatearen kontra?
7. Zure bikotekide ohiak lesioak eragin dizkizu? Baiezkoa bada, non? Baiezkoa bada, ubelduak, urratuak... dituzu?
8. Seme-alabarik izanez gero, indarkeria-egoeren lekuko izan dira?
9. Seme-alabarik izanez gero, jipoitu edo iraindu egin ditu?
10. Seme-alabarik izanez gero, zure bikotekide ohiak mehatxu egiten zien bisitetan?
11. Zure bikotekide ohiak ez zizun dirurik ematen etxeko gastuak ordaintzeko?
12. Zure bikotekide ohiak zure dirua bereganatzen zuen?

**Erasotzailearen datuak** atalean, arrisku-adierazleekin erlazionatutako galderak egitea gomendatzen da, item batzuetan multzokatuta:

- Erasotzailearen profila:

1. Erasotzailea oso jeloskor jarri da, edo bikotekidea edo bikotekide ohiak kontrolatzen saiatu da?
2. Erasotzaileak jokabide bortitzak izan ditu aurreko bikotekide batekin edo beste pertsona batzuekin?
3. Erasotzaileak alkohola edo drogak kontsumitu izan ditu, edo jokora emana izan da?
4. Erasotzaileak buruko gaixotasunen bat izan du eta tratamendua bertan behera utzi du?
5. Erasotzaileak biktima mespretxatu du, krudelkeriaz tratatu du, eta ez du damurik erakutsi?
6. Erasotzaileak argudiatu du bere egoeragatik edo biktimak probokatu duelako jokatu duela bortizki?

- Doikuntza psikosoziala:

1. Erasotzaileak arazoak izan ditu duela gutxi bikote-harremanetan?
2. Erasotzaileak arazoak izan ditu duela gutxi lanean?
3. Erasotzailea familia-indarkeriaren biktima edo lekukoa izan da haurtzaroan edo nerabezaroan?
4. Erasotzaileak drogak edo alkohola kontsumitu edo gehiegi hartu ditu duela gutxi, edo jokora emana izan da?
5. Erasotzaileak bere buruaz beste egiteko edo norbait hiltzeko ideiak/saiakerak adierazi ditu duela gutxi?
6. Erasotzaileak sintoma psikotikoak edo maniatikoak erakutsi ditu duela gutxi?
7. Erasotzaileak nortasunaren nahasmendua izan du, amorruekin, oldarkortasunarekin edo jokabide-ezegonkortasunarekin?

- Indarkeria:

1. Erasotzaileak indarkeria fisikoa erabili du aurretik?
2. Erasotzaileak armak erabili ditu edo heriotza-mehatxu sinesgarriak egin ditu iraganean?
3. Erasotzaileak erasoen maiztasuna edo larritasuna areagotu du duela gutxi?
4. Erasotzaileak aurretik ez ikusiarena egin die urruntze-aginduei?
5. Erasotzaileak ukatu edo minimizatu egin du aurretik bikotekidearen aurka erabili duen indarkeria?
6. Erasotzaileak bikotekidearen aurkako indarkeria babesten edo onartzen duten jarrerak izan ditu?

- Beste batzuk:

1. Erasotzaileak etorkizuneko plan bideragarriak ez duela adierazi du?
2. Erasotzaileak ez du gizarte-babesik?
3. Erasotzailea faktore desegonkortzaileen eraginpean dago?
4. Erasotzaileak ez ditu bete agindu zaizkion tratamenduak?
5. Erasotzaileak estres-maila handia du?

**Neurri judizialak** atalaren barruan, hau galdetu daiteke:

- ea salatu duen;
  - ea babes-agindu bat eta beste neurri penal edo zibil batzuk izapidetu dituen (hala badagokio, zein: hurbiltzeko debekua, komunikatzeko debekua, armak kentzea, behin-behineko espetxealdia, bizitzeko debekua. Mantenu-prestazioa, zaintza- eta bisita-araubidea, familia-etxebizitza erabiltzeko modua);
  - ea tratu txarren emailea hurbiltzeko debekua izapidetu duen;
  - ea laneratzeko errenta aktiboa edo Lege Integralean jasotako laguntzetakoren bat jasotzen duen,
  - ea badagoen pentsioa aitortzen duen epai judizial bat eta ea hura gauzatzen den.
1. Salatu duzu bikotekide ohia?
  2. Babes-agindu bat edo beste neurri penal edo zibilen bat eskatu duzu? Baiezkoa bada, adierazi zein: hurbiltzeko debekua; komunikatzeko debekua; armak kentzea; behin-behineko espetxealdia; bizitzeko debekua; mantenu-prestazioa; zaintza- eta bisita-araubidea, familia-etxebizitza erabiltzeko modua)
  3. Laneratzeko errenta aktiboa edo Lege Integralean jasotako laguntzetakoren bat jasotzen duzu? Baiezkoa bada, adierazi zein: kontratu hobariduna; ordezkapen-kontratua; 27. artikuluko laguntza ekonomikoa; aldi baterako egoitzarako eta lanerako baimena ematea.
  4. Badago pentsioa aitortzen duen epai judizial bat? Baiezkoa bada, adierazi ea hura eraginkorra den.

**Arriskuaren balorazioa** atalaren barruan, sartu hauekin erlazionatutako galderak: alde batetik, bikotekide ohiak berriro eraso egiteko arriskuaren autopertzepzioa (ertaina, altua, oso altua); bestetik, orain arte fitxan ez dauden baina arrisku-adierazleak eraikitzeke balio izan dezaketen beste datu batzuk.

Horren harira, Gurutze Gorriak proposatzen du gizarte-zaurgarritasunaren ikuspegia sartzea analisisian, AROPE adierazlea erabiliz. Adierazle hori gutxienez hiru baldintza hauetako bat betetzen duen biztanle-portzentajea da: 1) pobrezia arrisku-atalasearen azpitik egotea; 2) gabetze material larriko egoeran egotea; eta 3) langabezia dagoen etxe batean bizitzea,

edo enplegu-intentsitate oso txikikoan)<sup>1</sup>. Hura hobeto ulertzeko, adierazleak honela definitzen ditu baldintzak:

**a) Gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak** Kontsumo-unitateko batez besteko errenta erabilgarri baliokidearen % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonak (gizarte-transferentziak egin ondoren). Elkarrizketa egin aurreko urteari dagozkio diru-sarrerak.

**b) Gabezia material larria**

Gabezia material larria bederatzi kontzeptu hauetatik gutxienez lau ez dituzten etxeetan bizi diren biztanleen proportzioa da:

- 1) Gutxienez urtean astebete oporretara joan ezin izatea.
- 2) Gutxienez bi egunez behin otordu batean haragia, oilaskoa, arraina, barazkia edo fruta jan ezin izatea.
- 3) Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin izatea.
- 4) Ustekabeko gastuei aurre egiteko gai ez izatea (650 euro).
- 5) Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza nagusiarekin erlazionatutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gas-ordainagiriak, komunitatea...) edo epekako erosketetan atzerapenak izatea.
- 6) Automobilik eduki ezin izatea.
- 7) Telefonorik eduki ezin izatea.
- 8) Telebistarik eduki ezin izatea.
- 9) Garbigailurik eduki ezin izatea.

**c) Oso lan-intentsitate txikiko etxeetan bizi diren pertsonak** Elkarrizketa egin aurreko urtean (diru-sarreraren erreferentzia-aldia) lan egiteko adina baduten familiako kideek lan-ahalmen osoaren % 20 baino gutxiago erabili zuten etxeetan bizi diren 0 eta 59 urte bitarteko pertsonak. Erreferentzia-urtean etxeko kideek zenbat hilabeteetan lan egin duten kalkulatu da, eta, bestetik, kide horiek teorikoki guztira zenbat hilabeteetan lan egin ahal izango zuketena. Ratioa kalkulatu da, eta % zotik beherakoa den zehazten da. Aldagai hau ez zaie aplikatu 60 urte edo gehiago dituzten pertsonari. Adibide honen adibide gisa, bi heldu dituen baina lanaldi osoan bakarrak lan egiten duen etxe batean, lan-intentsitatea % 50ekoa izango litzateke; biek lan egiten badute lanaldi osoan, intentsitatea % 100ekoa izango litzateke; helduetako batek lanaldi osoan lan egiten badu eta besteak lanaldi erdian, lan-intentsitatea % 75ekoa izango litzateke.

Alderdi horiek argitu ondoren, AROPE adierazlea kalkulatzeko, honela geratuko lirateke galderak:

1. Arriskuan zaudela eta bikotekide ohiak berriro eraso egin diezazukeela sentitzen duzu? Baiezkoa bada, baloratu arriskua: ertaina, altua edo oso altua.

<sup>1</sup>[https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es\\_ES&c=INESeccion\\_C&cid=1259941637944&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios/PYSLayout](https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259941637944&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios/PYSLayout)



2. Zein izan ziren iaz etxeko diru-sarrerak? (Pertsona hori pobrezia-egoeran dagoen zehazteko, Bizi-baldintzei buruzko inkestan oinarritutako lortutako EINen emaitzak kontsultatu beharko dira, etxearen osaera ere kontuan hartuta).
3. Egoera hauetatik, adierazi zein diren egiazkoak zuretzat:
  - a. Gutxienez urtean astebete oporretara joan ezin izatea.
  - b. Gutxienez bi egunez behin otordu batean haragia, oilaskoa edo arraina jan ezin izatea.
  - c. Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin izatea.
  - d. Ustekabeko gastuei aurre egiteko gai ez izatea (650 euro).
  - e. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza nagusiarekin erlazionatutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gas-ordainagiriak, komunitatea...) edo epekako erosketetan atzerapenak izatea.
  - f. Automobilik eduki ezin izatea.
  - g. Telefonorik eduki ezin izatea.
  - h. Telebistarik eduki ezin izatea.
  - i. Garbigailurik eduki ezin izatea.
4. Etxean zurekin bizi diren eta 59 urte baino gehiago ez dituzten pertsonetatik, zenbatek egin dute lan azken urtean?
5. Etxean zurekin bizi diren, azken urtean lan egin duten eta 59 urte baino gehiago ez dituzten pertsonetatik, zenbat hilabetean egon dira enplegatuta?

Azkenik, biktimarekin erlazionatutako arriskua baloratzeko beste adierazle posible batzuk zaugarritasunaren ideari lotuta daude, eta hauek izan litezke:

- Azken hilabetean biktimak heriotza-pertzepzioa eduki izatea

- Aurreko salaketak kentzen saiatzea, edo erasotzailea uzteko edo salatzeko erabakian atzera egiten saiatzea.

- Biktimaren zaugarritasuna bakardadeagatik, gaixotasunagatik edo menpekotasunagatik.

## 9. txostena

*ATENPRO zerbitzuaren esparruan  
jarduteko protokoloa prestatzeko  
gakoak*

Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioak Genero Indarkeriaren Aurkako Gobernuaren Ordezkaritzarekin adostutako protokolo berriak emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak jasotzen dira, Istanbulgo Hitzarmenean adierazi bezala. Protokolo horretan oinarrituta, gomendio hauek egiten ditugu:

1. Erabiltzailearen fitxa behar bezala betetzeko, txosten honen azken emaitzetako bat bezala aurkezten den galdetegian, zenbait jarraibide ematen dira "Oharrak" izeneko fitxako atalak osatzen laguntzeko.
2. Protokolo honetan emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak sartzen direnez (indarkeria bikarioa eta adingabeen aurkako barne), beste galdera batzuk sartu behar dira erabiltzailearen fitxan:
  - a. Bidaidetik ez duen eta desgaitasuna duen adingabe bat al da biktima?
  - b. Bakarrik bizi al da biktima?
  - c. Biktima norbaitekin bizi bada, zer harreman du bizi den pertsonarekin? Ama/Tutorea. Ahaidea. Lotura librea. Beste bat
3. Protokoloak emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen duenez indarkeria bikarioa ere, baliteke hainbat biktimak/biziraulek ematea kasu beraren berri. Halako kasuetan, argi geratu behar da biktima bakoitza kasu autonomo gisa tratatu behar dela eta bereiz jakinarazi behar dela.
4. Nahiz eta ATENPRO ez izan kasuak kudeatzeko tresna, eta ez duen balio ez esku-hartzeen ez etxeko indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko programen kalitatea ebaluatzeko, interpretazio baliotsua eskaintzen du funtsezko erabakiak hartzeko, etorkizuneko erabakiak planifikatzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko/eragozteko programen eraginkortasuna hobetzeko eta sektorearteko koordinazioa hobetzeko. Horren harira, garrantzitsua da zerbitzua emateaz arduratzen diren entitateek informazioa behar bezala biltzea, gordetzea, aztertzea eta trukitzea.
5. 4) puntuan adierazitakoaren arabera, beharrezkoa da zerbitzua ematen duten entitateek informazioa trukatzeko protokolo bat diseinatzea. Informazio hori modu anonimizatuan eta segurtasunez eman behar da, eta zorrotz betez datu pertsonalak babesteko araudia.
6. Protokoloaren arabera biktimaren bizitokiari dagozkion toki-entitateetako gizarte-zerbitzuen zentroen eskumena denez zerbitzuan sartzea, zentro horien zerrenda bat eta haiekin harremanetan jartzeko datuak jarri behar lirateke ATENPRO-ren webgunean.
7. Desgaitasuna duten pertsonak direnean biktimak, erraz irakurtzeko moduan eman behar da jarduteko protokoloa (edo, behintzat, haren laburpena egin behar da).
8. Komeni da webgunean "maiz egiten diren galderen" bi atal jarri behar dira, udalerrientzat eta erabiltzaileentzat, hurrenez hurren. Horren harira, ikus adibide gisa <https://www.dival.es/es/bienestar-social/content/servicio-telefonico-de-atencion-y-proteccion-para-victimas-de-violencia-de-genero-atenpro>

9. Adingabeak ere sartzen dira biktima gisa edo, hala badagokio, zerbitzuaren onuradun gisa protokoloan ezarritako baldintzetan. Hori berria denez, informazio-triptiko ulerterrazen bat prestatu behar da.
10. Protokoloak eskatzen du zerbitzuaren erabiltzaile izateko 16 urtetik beherako biktimek legez guraso-ahala, harrera, tutoretza edo izatezko zaintza duenaren baimena izan behar dutela (erasotzailearena izan ezik), baina eskakizun hori kontraesanean dago haurtzaroaren filosofiako funtsezko premisekin. Haurtzaroaren filosofia zabalduz doa gure herrialdean, baina proiektio handia du Europako gainerako herrialdeetan, eta, haren arabera, haurrak eskubideen titular dira, eta ez babestu beharrekoak soilik. Horren harira, zalantzan jarri behar da adingabeak izaki pasiboak direla eta indarkeriak haiengan eragin zuzenik ez duela edo helduei baino gutxiago eragiten diela dioen tesia. Azterlan horien arabera, haurtzaroa funtsezko garaia da bizitzan, eta eragin handia du helduaroan. Beste kontu bati helduz, ez da ulertzen protokoloan ezarritako gehieneko adina 16 urtekoa izatea, eta ez txikiagoa (adibidez, 14 urte).

# 10. txostena

*Azken ondorioak*

Txostena amaitutakoan, lehenetsuneko azken ondorioen zerrenda labur bat proposatu behar dugu:

Etxeko indarkeriaren aurkako borrokaren esparruan politika publiko egokiak ezartzeko, ezinbestekoa da zehatz-mehatz ezagutzea arazoaren gaur egungo egoera. Horretarako, estatistikak funtsezkoak dira, aztertzen ari garen fenomenoaren alderdi aipagarrienak identifikatzeko eta politika eraginkorragoak proposatzeko aukera ematen baitigute.

Horren harira, hainbat azterlanen bidez, agerian jarri dugu hainbat erakunde publikok erabiltzen dituzten estatistikek hainbestearinoko gabeziak dituztela, ezen ez baitigute uzten arazoaren ikuspegi osoa izaten; erakusten dituzten datuak erabat desberdinak dira.

Ondorioz, ezin dira arazoak zehatz-mehatz identifikatu, ezarri beharreko politika publikoetako erabakiak hartzeko.

Horrenbestez, behar-beharrezkoa da datuen errealitatea erakutsiko duten etxeko indarkeriari buruzko inkesta eta galdetegi uniformeak (eta beste analisi-metodologia batzuk) diseinatzea eta ezartzea.

Kontu hori areagotu egiten da landaguneko emakumearen egoeraz hitz egiten dugunean. Neurri bakar batekin ez konparatzeko, udalerraren tamaina aipatu behar da (adibidez, 250 biztanletik beherako udalerreri txikiak; 251 eta 500 biztanle artekoak, 501 eta 1.000 biztanle artekoak; 1.001 eta 2.000 biztanle artekoak), biktimek dituzten zailtasunak desberdinak baitira lurraldean erroldatutako biztanleen kopuruaren arabera, bai indarkeria detektatzeko, bai dauden baliabideetarako sarbidea bermatzeko.

Txosten honetan jaso den zerbitzuen azterketak agerian jartzen du Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluan definitutakoaren arabera etxeko indarkeriatzat jotzen denaren biktimei askotariko toki-entitateek ematen dizkieten prestazioen heterogeneotasuna.

Horren ondorioz, tratu-desberdintasuna sor daiteke etxeko indarkeriaren biktimei artean; praktikan, lehen eta bigarren mailako biktimek daude, bizitokiaren arabera.

Gure ustez, beharrezkoa litzateke organo eskudunetan (esaterako, autonomia-erkidegoetako presidenteen biltzarretan edo FEMPen bileretan) gutxieneko zerbitzu batzuk protokolo batean biltzeko ados jartzea; gutxieneko zerbitzu horiek biztanle-tarteen arabera izango lirateke, eta etxeko indarkeriaren biktimei egokiak, lurralde nazional osoan uniformeak, bizitokia edozein dela ere. Hori guztia, noski, eskumen nazionalak, autonomia-erkidegoenak, tokikoak eta udaletakoak errespetatuz.

Lehenbailehen, hauek egin behar dira:

Baliabide pertsonalez eta materialez hornitzea Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluan jasotako etxeko indarkeriaren biktimei laguntzen dieten toki-entitateak.

Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluan jasotako etxeko indarkeriaren biktimei laguntzen dieten toki-entitateetako langileen trebakuntza areagotzea.

Diziplinarteko tokiak indartzea Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluan jasotako etxeko indarkeriaren biktimei laguntzen dieten toki-entitateak.

Istanbulgo Hitzarmeneko 3. artikuluan jasotako etxeko indarkeriaren biktimei laguntzen dieten toki-entitateetan berdintasun-agentearen figura modu egonkorrean sartzea eta arautzea.

Baliabide pertsonalez eta materialez hornitzea ATENPRO-ren arreta-zentroa.

ATENPRO-ren arreta-zentroko langileen trebakuntza areagotzea. Diziplinarteko

taldeak indartzea ATENPRO-ren arreta-zentroan.

Toki-entitateen eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazioa eta lankidetzak areagotzea.

Larrialdietako zentroak, harrera-etxeak, tutoretzapeko etxebizitzak eta iraganbidekoak areagotzea.

Bizirauleei babes emateko eta erabakiak hartzen laguntzeko zerbitzuak hobetzea.

ATENPRO-k artatzen dituen kasuak berrikustea, zerbitzuarekiko gogobetetasun-maila eta, izan bada, zailtasunak ezagutzeko.

Emakume bizirauleak ebaluatzeko inkestak sustatzea, laguntza-zerbitzuetan jasotako tratuarekiko gogobetetasun-maila ezagutzeko.

Urte osoan zehar kanpainak prestatzea eta zabaltzea, genero-indarkeria desagerrarazteko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-neurriei aldi batez eustearen esparruan. Komeni da bereziki indartzea oporraldietan (Gabonetakoak eta udakoak), estatistiken arabera aldi horietan hiltzen baitira emakume gehiago genero-indarkeriagatik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskuetan.

Horri dagokionez, talde guztietan jarri behar dute arreta kanpainak, bereziki talde ahulenetan; esaterako, adineko emakumeak, landaguneetan bizi direnak, desgaitasunen bat dutenak, haurdunak, migratzaileak, gutxiengo etnikoak (esaterako, emakume ijitoak, emagalduek, adikzioak dituztenak, GIB dutenak, etab.). Kanpaina horietan, argi eta garbi jaso behar dira haien berezitasunak, biktimak identifikatuta senti daitezzen.

ATENPRO zerbitzua toki-entitateen eskumenekoa da, eta baliabiderik eraginkorrenetako bat da etxeko indarkeriaren biktimei arreta emateko, lotutako problematikaren berri emateko eta hari buruz sentsibilizatzeko, eta hura prebenitzeko eta hari aurre egiteko. Hala ere,

hauteman da ATENPRO-k kudeaketa motela duela eta horrek eragin negatiboa duela zerbitzuaren erabiltzaileengan; koordinazio-falta ere badago tresna desberdinen artean, eta, ondorioz, ezin da bizkor erantzun.

Azkenik, beharrezkoa da honen moduko azterlan gehiago egitea. Hala ere, uste dugu, FEMP gehiago inplikatu izan balitz (bileretako batean esan zen bezala, inkestak bidaltzeaz arduratuko litzateke), erantzun gehiago lortuko ziratekeen eta jende gehiagok parte hartuko zukeen, eta, horrek guztiak, zalantzarik gabe, azterlana aberastuko zukeen.



# I. gehigarria

*Erreferentzia bibliografikoak*

- Aizpurua, E., Copp, J., Ricarte, J. J. eta Vázquez, D. (2021). Controlling behaviors and intimate partner violence among women in Spain: An examination of individual partner, and relationship risk factors for physical and psychological abuse. *Journal of Interpersonal Violence*, 36, (1-2), 231-254.
- Andrés-Pueyo, A. (2017). Manual de evaluación del riesgo de violencia. Metodología y ámbitos de aplicación. Ismael Loinaz. Pirámide argitaletxea. Madril. 253. or. 2017. urtea. *Anuario de Psicología Jurídica*, 27, 127-129.
- Andrés-Pueyo, A. eta Echeburúa, E. (2010). Valoración del riesgo de violencia: instrumentos disponibles e indicadores de aplicación. *Psicothema*, 22 (3), 403-409.
- Andrés-Pueyo, A., López, S. eta Álvarez, E. (2008). Valoración del riesgo de violencia contra la pareja por medio de la SARA. *Papeles del Psicólogo*, 29, 107-122.
- Andrews, D., Bonta, J. eta Wormith, S.J. (2006). The recent past and near future of risk and need assessment. *Crime & Delinquency*, 52(1), 7-27.
- Arbach, K. eta Andrés-Pueyo, A. (2007). Valoración del riesgo de violencia en enfermos mentales con el HCR-20. *Papeles del Psicólogo*, 28, 174-186.
- Arbach-Lucioni, K. eta Andrés-Pueyo, A. (2016). Violence risk assessment practices in Spain. In: J. P. Singh, S. Bjorkly (ed.), *International Perspectives on Violence Risk Assessment* (280.-295. or.). Oxford University Press.
- Ballesteros, A., Graña, J.L., Andreu, J.M. (2006). Valoración actuarial del riesgo de violencia en centros penitenciarios. *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, 6, 103-117.
- Belfrage, H. eta Strand, S. (2008). Structured spousal violence risk assessment: Combining risk factors and victim vulnerability factors. *International Journal of Forensic Mental Health*, 7, 39-46.
